



ARRAITZ

(OLERKIAK)

SOLOZABAL'DAR PAULIN
"PAULIN"

EUSKERAZAINTZA'KOA

Paulin

Arraitz

Bilbao 1995

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

Flash Composition, S.L.

I.S.B.N.: 84-88464-07-X

Lege Gordailuaren zka.: BI-899-95

SOLOZABAL'DAR PAULIN'EN LIBURU BARRIA

Solozabal'dar Paulin olerkari ezagunak liburu barri bat argitaratu dausku. Seireun eta amasei olerki dira. "ARRAITZ" liburuaren idazburua. Liburuaren asieran egiten dan deiak garrantzi aundia eukiten dau. Gogoratu "Don Quijote'ren sarrera edo Milton'en "El Paraíso Perdido"'rena edo Orixe'ren Euskaldunak liburuarena. Cure Paulin Solozabal'ek be asierako deian garrantzi aundia emoten dautso liburu onetan. Lau olerki artzen dauz orretarako eta oneik dira agertzen dauzan gaiak.

Gogoa makal eta nekea izkuntza menperatzen.

Goi-argia barrenerako.

Beroa biotzerako.

Izadiari deia: biztu nire irudimena!

Laiñoa dator barrua illundu naiez.

"Zatoz indar argia, Parnaso-bizitza gozatzeko".

Goiko itz zuria dator, Euskal-itx odolez buztiak bear dira.

Euskera izkuntza arrigarria, Euzkadiren aapaingarria.

Sorterria edena da!!

* * *

Urrengo aurkezpen labur bat egiten dau, opera baten "obertura"n doiñuak agertzen diran antzera, bere gaiak agertzeko.

Gaiak berak, beti, maite izan dauzanak (lira: Oiñarri lez izadiaren edertasuna, batez be mendiak, zugatzak eta onein artean aritza, pagua ta gorostia. Itxasoa be ur-urrean dabil eta izarrak, berez urrin egon arren, itxasoagaz alkartzen dira eta danaren gaiñetik Jaungoikagana jotzen dau. Izan be, Paulin'en olerkien ezaugarri bat Jaungoikaren maitasuna da eta maitasun ori gizartean zabaltzea, zuzentasunagaz ta bardintasunagaz batera. Bere abade-izaera agertzen da or.

Irugarren eta Iaugarren saillean itxasoa ta izarrak dira kanta-gai, baiña izadi-arlo bi

onein batasuna adiorazteko irugarron puntuan abots bitara abosti bat dakar. Noskatx batek eta mutil maitaleak abeston dabo abesti ori aitzaron erpin banatan, izarron eta itxasoaren edortasunak bat egiten dabela adierazteko.

Gero "bat batean" idazpurua, sarritan, agertzen dala, izadiko bikoteen alkartzeak adierazten dauz: Zerua, itxasoa, eguzkia, itxasoa...

Gorostola edo gorostiari berari, kantua dator bosgarren zatian. Gorostola gogoan dauala, eguzkia, iturria, makila... dira abes-gai. Ez aitzu Solozabal'dar Paulin, bide zabaloan ezbear bat izan obanetik errena dala eta makilaren boar-izanean dagoala. Boti erabilten dau gorostizko makilla bat.

Gorostiaren barruan txoriak eta maiteminduak dira olergai.

Guztiok ozagutzen dogu Etxobarri ta Arrate'ren bitartean dagoan Maxa mendia. Bertakoak ez diranak Kalamua esaton dautsoen mendia. Toki zoragarria da eta Paulin'ek maite dau toki ori, bera be Maxa'ron oiñetan dagoan Etxebarri'ko semea data, ondo dago maitasuna ta esker ona *agertzea*.

Ori da VI zatiaren gaia.

Asieran dei borozi bat egiten dau, laguntza eskatzoko deia: "Botor nigana anakaria!". Eta mendiari berari be bai doia: "Sutu eidazu biotza!".

Maxa'ren abestian gai onek aurkitu daikeguz: Edertasuna, gaua, udagoiona, ikuspogiak, pistiak eta aboreak, egun-sentia, zugatzak, eresa, edurra, ekaitza, egazkiña.

Euskerea ta euskaldunak, beti izan dauz Paulin'ek olergai ta liburu onetan be arlo luze bat eskeintzon dautse izkuntzari ta izkuntza erabilten dabenei.

Ezin aitzu dauz euskaldunen kondaira eta or agertzen diran edertasunezko jokabide batzuk.

Eta zortzigarren zatian, barriro, joaku izadira, lurra eta argia gogoratuz, euria zara-zara egiteraron bear-izana, udabarriko giroa ta zelaioetako margo orlegia.

Bederatzigarron zatian mutiltxoari Jaungoikoak egin dautson deia ota bere zeregiña beteteko bizitzan izan dauzan eragozponak.

Amargarrenoan Pazko eguna gogoratzen dau, Aberri-egunaron ozpakizunai abestuz. Pozik dago erria berbizten doalako.

Amaikagarren zatian, ogei ta amaseigarren urtoko gudari abosten dautso. Paulin'ek, bizi-bizi, dauka bero barruan guda negargarri aren samintasuna, izan be

guda ori barru-barrutik bizi izan eban. Or agortzon dauz olorki berootan Urbasa mendiko illeta ikaragarriak eta beste ekiñaldi samin batzuk.


Eta amabigarrenoan, barruan, beroen daukan gaira sartzen da Pautin: Fede ikuspegiaz munduari begiratzora. Paulin abadea da eta ezin aitzu liburu eder onetan be fedearen ikuspegia eta gaurko arazo larriak.

Agur-olerki bero bategaz amaitzen da liburua. Zoriona, Paulin, liburu eder au gure gozamenerako aurkeztu dauskuzulako eta jarraitu zoure olerkari-lan edor orretan. Eskerrik asko.

Oiazar'tar Martin'ek



*Tromin Agirre
(idazlea)
Euskaldun-Fededun*



Gasteiz' ko Gotzain-Eleiza Barria

I.- GOITAR INDAR ARGIA, ZATOZ

ERNE

*Gogoa makal dago
illunak zapalduta
indarrik gabea;
etsai baltzena dabil
itza menpetu nairik...
joi nire nekea...!*

*Zeru goiko argia
ixuri dizdiz ori
nire barrenera;
itza suspertu dedin
buruko almenetan
argitasunera.*

*Gau argiko izarrak,
bota suzko beroa
nire biotzera;
itza odoldu dedin
maitasunaren garrez
bertso miñetara.*

*Aran, mendi ta arkaitz
ama lurreen sorrera
lore tan zakusdaz;
biztu irudimena
olerki biur dedin
arnas ezilkorraz.*

IRRINTZI

*Niregan asmetan dot
gauaren illun baltza
nekezko samiñez;
alderdi danetatik
laiñoak orroaka
barrua il naiez.*

*Gogoak bizi nai dau
itza ezilkortzeko
eusko olerkian;
goitar indar argia,
zatoz olermenera
izpi gozo artian.*

*Ta zuk, euskaldun lurra,
arkaitz, mendi ta ibar,
arrothu biotza;
argi ta odol bidez
goratzeko euskaldun
Parnaso bizitza.*



Baserri-langilleak

II.- IZADIA TA GIZONA, LANA TA EGILLEA

IZKUNTZ

*Goiko itza ba-dator
barneko sormenera
zurizko jantzirik;
indar ta erioa
bear dauz euskal itzak
odolez bustirik.*

*Izkuntza arrigarria,
arkaitzak legez zara
zar; sendo, bizia,
zuk arritu izan dozuz
jakintsuen buruak
ta izkuntz legia.*

*Munduan agertu zan
lore bikaiñena da
zure irudia;
lurra zoratu dozu
ta Euzkadi apaindu,
izkuntz loradia.*

ENE

*Ederretan ederren,
saminduta zakusdaz
ene sorterria;
zure duintasuna
lur eta gizonetan
zan opagarria.*

*Mendiak lirain dozuz,
basoak aberatsak,
zelaiak orlegi;
ainbesteko ederrez
nor ez da lilluratz en
ta so begiz begi...!*

*Asko arritu dira
zure gizatasunez,
Aberri maitia;
zurtasun eta ona
zugan alkartu ziran
bizitza loria.*

IZADI

*Zer daukazu zuregan
loreak ez-tia lez
sortzeko lillura?;
zure arkaitz zuriak
munduko eder-miñen
balkoi ete dira...?*

*Zer dau zure mendiak
aritzak gizentzeko
ortzira bidean?*

*Lerden, zuzen ta zorrotz
doaz urdiñerantza
eguzki artean.*

*Ta zu, gorozti gogor,
argiak gurtzen zaitu
orri dizdizetan;
txoria dantzatan dabil
zu ikusirik orleiz
arantz orrietan.*

AITA

*Gizonaren semea,
Jainkoak maite zaitu
zure izatean;
itza maitekorra zan,
"ugaritu zaiteze"
esan ebanean.*

*Beraren maitasuna
ixuri eban zugar
itzaren indarrez;
odolez baiño geio
zuregan alkartu zan
bizitzaren miñez.*

*Jainkoa ta gizona
zerutar sendi dira
giza sortzeratik;
Aitaren zoriona
semearentzako da
esker on bidetik.*

AMA

*Amaren maitasunak
itxasoa dirudi
urdiñez jantzia;
sakon, zabal, biribil,
ez ondo ta ertz barik
bere nai guztia.*

*Amaren biotz onak
eguzkia dirudi
urregorritzkoa;
dana da maitasuna
printz gorri eriotan
orban-bagekoa.*

*Amai-bako biotza
dirudi amarenak
seme-alahentzat;
beti, errukiz urtzen,
biziaren doaia
ospatuz zoritzat.*

GIZARTE

*Gizarte zuzendari
zaitugu Jaun Altsua,
Lurreen Egilea;
borondatez sortu zendun
izadi biribilla
lur ta itxasoa.*

*Iñork egin ez dauna
bizi ta bizi-leku
irazi zenduzan;
ta gizona langille
jarri zenduan lurrez
eta itxasoan.*

*Agindu berezi bat
emon zeuntsen gizonei...
alkar maitatzeko;
izerdiz landu lurra,
ta zure ogia jan
bizi izateko.*

AGINDUA

*Onartu eizu lurra...
maite egizu lana
gizontasun eran;
lur onaren erraiak
frutu opaka dagoz
lana egikeran.*

*Urre, zidar ta burdin
lur babesean dagoz
begira lanari;
lur oro zuena da
atxu¹ rez, ta izerdiz
bIurtuz janari.*

*Aitaren maitasunak
ezin ditu ikusi
seme azurtuak;
maite egizu urkoa
zeu¹ e bizia legez
zabalduz eskuak.*

LAGUNTZA

*Errukia obe da
gizarte mindu ontan
opariak baiño;
Jesusen agindua:
lagundu urkoari
eriotzaraiño.*

*Jesusek bere itza
zuzen eta maitetsu
erabili eban;
iñoiz ez zan ibili
itz utsean kantari
aizearen eran.*

*Itza ta errukia
zuzentasun ta egiz
alkartu zituan;
dana emongo eutsan
maite eban lu-rari
gurutza gaiñean.*

DANENTZAT

*Jakintza egarri da,
illezkor izan nairik,
gizona munduan;
ikasi ta ikasi
bide barriak artzen
bizitz inguruan;*

*Jakituri geiago
ta itza doa zorrozten
min leuntasunagaz;
aundiezten doazi
giza arrokeriak
egizko itxuraz.*

*Zergaitik ainbeste min...?
gizonak gizonari
erbeste onetan...?
Danentzat egiña da
lurra ta itxasoa
bizitza bidean.*

GOSEZKO

*Nork nori ostu dautso
lapurrik ez ha-dago
gaurko gizartean...?
Zertatik unten dabe
zarat samingarriak
bizitz esturetan?*

*Gosezko samin bidez
ildoak sortzen doaz
bizitz alorretan;
zuloak, emen, zulo...
aragiak argaltzen
ezaren miñetan.*

*Aienaka negarrez
ta ilten zoritxarrez
doa gizadia;
nun da zuzentasuna...
errukiaz batera
zaintzeko bizia...!*

SABELETIK

*Giza jakituria
geitzen doa lurrean
ertzetik ertzera;
eguzkia zearka
ba-doa urreratzen
zugatzen lorea.*

*Argiak indartzen dau
lur, zugatz ta bedarra
etorkizunean;
betor goiko argia
gizon adimenera
zuzentasunean.*

*Uxa gaiztakeriak,
uxa lurtar negarrak
giza biotzetik;
betor zuzentasunez
ogi zuri gozoa
lurreen zabaletik.*

ITZA

*Egilleraren itza,
"maite egizue"
egiaren bidez;
alkar maite ba zare,
ogia izango da
zuen zorionez.*

*Bekaitzkeriak kendu,
gorrotorik ez dot nai
lurrean ikusi;
anai maitatzailleentzat
lurrak sortuko ditu
jan ala arnari.*

*Lurra aberatsa da
Sorleak alan eiñik
urrez ta zidarrez;
lurra emonkorra da
giozonak landaturik
anaien omenez.*

DIDARRA

*Sorleak ez dau gura
ez alper, ez nagirik
masti zabalean;
arlo mamintsu ori
jana opaka dago
atxurren trukean.*

*Besoak hear ditu,
buruaz zuzendurik,
janari bidean;
zuzendaritza nai dan
burdiñezko miñeak
lurreen babesean.*

*Itsuak deika dagoz,
landu naiez esaten
lurraren barrutik...
adimendunak entzun,
lurraren deadarra
beren barrenetik.*

GOSEA

*Min. daukat urdaillean
gosezko min gogorra
bizia samintzen;
alderdi danetatik
gosezko gogorkeriz
gorputza argaltzen.*

*Gizona lanik barik,
larri, iltera doa,
sendi samindua;
aitaren lanik ezak
umien azurrera
min latza daroa.*

*Bizia deika dago
anai danen etxera
eske mingarrian;
ortzian zear dator
Aitaren deadarra
laguntza eskian.*

AMABIETAN

*Anai alkartasuna
zein eder dan goizian
Jesusen aurrian;
sinismen itza dabil
indarka gizonetan
jainkozko bidian.*

*Amabi kanpai otra
deika dator kristaueri
kalbario goitik;
Jesus beso zabalik,
zauriz dauka biotza,
bizia arturik.*

*Odol ori artzera
ta Jesus maitatzera
doaz euzkotarrak;
abesti eta otoi
aintza Jesusi goian
eskar onekoak.*

NESKA TILLA

*Munduko jendartean
otso eta lagunak
batera ebilzan;
leoia orroaka
asmakizun latzetan
arrokerietan.*

*Kristauak, ixil, ixil,
abere baltz artean
maitasun opaka;
andra, neska ta mutil
Egilleaz izketan
bakeari deika.*

*Arrokeriak ez dau
bere baitan asmetan
zitala besterik;
baiña neskatil zurrak
egia ta bakea
ez dau nai besterik.*

LUTZI

*Neskatilla zintzoa
nork aurkitu lurrean
burruka miñetan...!
zu leial izan zīñan
etsaiaren ezpaia
eldu orduetan.*

*Zer ikusten zenduan...
zer asmetan ain gogoz
buru-biotzetan;
Jainko bera al zeunkan
maitasunaren garrez
zerutik izketan...?*

*Jainkoaren alaba,
egiz, ikusi zenduan
zerua zabalik...
antxe, zendukan Aita
zorioneko itzez
aintza eskeindurik.*

LUTZI DEUNA

*Etsaia gogorra zan.
Bere asmo zitala
erioztu nai eban;
zu aurkitu zinduzan
opari jatorrena
beren asmoetan.*

*Aukera itzal artan
lur ta zeru aurrean
zengozan apalki;
Jainkoa zugaz zeunkan
une larrienean
laguntzen maiteki.*

*Zu Aitari begira,
gogo onez eskeintzen
bizitz oparia;
odolez goitu zendun
asmakizun gaiztoen
txarkeri guztia.*

LUTZI AITARENEAN

*Etsaia zu ilkeran
bere asmo gaiztoan
arroto egin zan;
menperatuta dago
neskatillaren itza
oiukatu eban.*

*Eta zu, zoriontsu,
une aretan bertan,
Aitaren etxean;
eguzkia poztu zan,
izarrak dizdiratu
zeru urdiñean.*

*Ta lurrak zabal zabal,
pozez abestu eban,
aintza zeruetan;
lora aipagarria,
garbi, urrezko doa
bake eoetan.*

LUTZI AITARENEAN

*Nor izan da garaille...?
Gizonen ezpatea
edota Lutzia...?
Iltzaille gorrotoa
ez da giza legea
ez egi bidea.*

*Iltzailleak odola
dama beraren gain
irrintzi miñetan;
iñoiz ezin ixildu
obenaren il-otsa
giza erraietan.*

*Zorionik ez dauka
ezpata ausi arte
parkamen bidean;
buru eta biotza
apaldu bear ditu
odolen aurrean.*

LUTZI ZER UAN

*Urreprintzetan doa
Lutzi garailaria
lurretik zerura.
aingeru baten giza,
gora ta gora doa
egalen erara.*

*Etsaiaren burleak
ezti biurtu jakoz
ortzira bidean;
eskerrak ezpatari,
il nauan gizonari
Jaunaren aurrean.*

*Lurra ederra zara.
Goiko zorionaren
irabaz tokia;
zerua atsedena,
miña poz biurtzen dan
baratza zuria.*

LUTZI TA LURRA

*Len sinistuten neban
Aitaren itz maitea
argi ta bizia;
txori bat nintzan lurrez,
beti, egaztu nairik
zeruko bidea.*

*Lurra sinistu neban
ta bertan, Jaungoikoa
gizonak askatzen;
maitasuna zan Aita,
betioko atsedena,
oparo, eskeintzen.*

*Aita ikusten neban
zelai orlegietan
zidarrezko dizdiz;
Aita egon eleizan
itz zuzenak esaten
goitar jakituriz.*

LUTZI ANTZIZ

*Egiz, ezin ukatu
barne deadarra
deika gizonari;
illezkorra deritxo
lurretik hetidaiño
putska ~asad.*

*Gorputza iztun dabil
antzizka bizi nairik
ezilkor bidetan;
egarri berezia
bizi izatea da
gizonaren zaiñetan.*

*Lutzi neskatilleak
bizitzaTik onena
aukeratu eban;
lastargi gorri bidez
zabaldu eutsoezan
ateak zeruan.*

LUTZI ZURRA

*Zurtasun gogoa zan
neskatil zintzoaren
egarri onena;
lurra eder dalarik,
ez da ondasunetan
itzik bikaiñena.*

*Lutzik, ondo, ekian
bizitza arloetan
bikaiñena zer zan;
lurra, beti, astuna
egarri ain aundiak
goitzeko soiñean.*

*Gogoa, bizkor, eukan
ederraren ederra
aukeratu naian;
lurreko eder-miñak
geroagaz bardinduz
ezer gitxi ziran.*

LUTZIAREN A UKERAMENA

*Lurra itz ederra da.
Arkaitz zuriak sendo
zeru eusgarritzat
gogo; eder, zuria
arraitz arrigarriak
ez dira niretzat.*

*Itxas urdin zabala
gogozko babes zara
arrain zurientzat
zure aunditasunak
luze, zabal, joriak
ez dira niretzat.*

*Mendi, zelai ta arru
biziz beterik dagoz
gizadiarentzat;
lur maite gizen ori,
zure edertasunak
ez dira niretzat.*

LUTZIREN GOGO

*Lurra ez dot ukatzen
Jainko emaitza da-la
giza bizirako;
lurra eder dalarik,
bizitz laburra dauka
nik, lar; maitatzeko.*

*Lur au bidea dogu,
atsedenaren billa
garoazen lorra;
Illuntasun onetan
argiak darakusku
elburu ziarra.*

*Kristo da argia,
siñistu nai dabenak
lortzeko egia;
gure barruko itzak
opaldu gura dausku
betiko zona.*

LUTZIREN NEKEAK

*Neke barik ez dago
bizia urratzerik
arlo aundietan;
aundietan aundiena
lortu nai eban Lutzik
Aitaren oiñetan.*

*Egiz, arrigarri zan
zoriona lortzea
Aitaren etxean;
zatoz alaba leial,
zure zintzotasuna
ospatzen zeruan.*

*Ateak zabal zabal
ta giza adimenak
zer zan ezin esan;
ongi-etorri Lutzi,
neskatil zur, apala
Itzak esan eutsan.*

LUTZI ZERUAN

*Ez urre ta ez zidar
ez arri ta ez burdin
ezertxo ez dira;
zegaz bardinduko dot
saririk aundiena
bardingea da-ta.*

*Itz ederrena Aita
ontasun eriotan
zintzoei begira;
zatoz, alaba leial,
irabazi dozuna,
pozez, gozartzera.*

*Burruka amaitzean
bakearen zona
agertzen dau Aitak;
egizko maitasuna
betirako lortuta,
zeru ezteguak.*

ADISKIDE ARTEAN

*Millinoi adiskide
aurkitu ditu Lutzik
zelai zabalian;
izarrak dirudie
guztiak banan banan,
A itaren aurrrian.*

*Lurra gogoraturik,
joan ziran negarrak
baso baztarrera;
aren truk poza dator
amai bako argia
izaki barnera.*

*Amai bako egia
ikusten dau Luziak
pozez indarturik;
nik ez nekian zer zan
guzti onen ederra
A ita maitaturik.*

ARGI ETA KANTU

*Lurrean izan diran
argi-zagi ederrak
apaltasunean;
aundi egin dauz Jaunak
zeru alde artako
izarren artean.*

*Dana argi-zuzia
urre printzaz dizdikka
zerutar jakituriz
Maitasun gisara.*

*Zerutar abes-batza,
arritu zaitez lurra...!
ango zoramenez;
guztion dan A itari
abotsik zolienak
abesten eskarrez.*

ABES-BATZA

*Lurtarrak ezin esan
zeru bizia zer dan
basoko itzetan;
lurra eta argia
poza eta nekea
ez dira moldetan.*

*Ahotsik ederrenak
maitasunez beterik
dabiltzaz kantari;
saria eskertuten,
pozez, bete dituan
zeruko Aitari.*

*Aingeruak entzuten
ura zan zoriona
askatasunean;
aingeruak txaloka
Egillea goratzen
santuen aurrean.*

BEARTSUAK

*Zeruetan ez dago
beartsu ta gaisorik
lurreko enana;
lur ontako illuna
argitan aldatu da
izarren gisara.*

*Giza seme pobria
Jainkoaz bizi zana
aberats da orain;
poz ta alaitasuna
ditu janari gozo
zeruko izar gain.*

*Bizitz zorundun arek
pozaren agurgarri
ez dauka azkenik;
ortxe geintzen da poza
ezilkortasunian
Aitagaz bizirik.*

LUTZIA GOIAN

*Zerua deika dago
biziaren egia
agertuz lurrarl;
basca alper dago
lokatzetan sarturik
itza arglarl.*

*Zatoz zoriontsua,
kanta gizadiari
gizonen artean;
zure itza entzunda
lurtar pobre guztiak
sartzeko zeruan.*

*Askatasuna nai dot,
emen, ez dan lorea
gorrotoz beterik;
askatasun zorian
bizi zara Lutzia
nekeak goiturik.*

LUTZIA KANTARI

*Kanta munduaren alde
lo-zorrotik esna dedin,
abestu Jaungoikoari
gugaz errukitu dadin.*

*11-zorian dago lurra
lorriñak atsipeturik,
aragizko atsedanak
itz argia izuturik.*

*Gizadia, larri, dago
illunaldi baltzenetan,
errukirik ba ete da
zeru goi eta lurretan...*

*Ez dago beste biderik
Jainko maitasuna baiño,
esnatu zaitetz gizona...
Jauna dator zuganaño...*

IZAN BEDI

*Gizonak baiño lenago
ha zan langille nausia,
lurrik ez egon aldian,
berezko jakitura.*

*Izatez, maitasuna zan
argi ta biotz batean;
ta jakintza egillea
ezin egon ixilian.*

*A smo ongarri bat eukan
egi biurtu naiean,
lurrezko babesa sortu
bizi barri omenean.*

*Lenengo lur langilleak
aragizko esku barik...
izan bedi esanagaz
itzi dau lurra sorturik.*

EGILLEA

*Lenengo lur langillea
goratu daigun bizian;
bere maitasun guztia
zabaldu eban lurrian.*

*Lur babesa sortukeran,
langilleak bear ziran,
ez burdin, ez arrizkuak...
jakituri irudian.*

*Bere jakituri antzo
eta maitasun emana
gizon ta andra sortu zitun
alkarren bizitz gisara.*

*Sorle beraren antzera
jakintzaz ta maitasunez
sortu zitun langilleak
duban eta eskar utsez.*

LANDU

*Lurraren sorrera artan
dator gizarte auzia,
alkar ulertu eziña
ta sanzinezko bizia.*

*Agindu on bat damotse:
landu egizue lurra
ta menperatu atxurrez
sasien arantz gogorra.*

*Ez eban iñor banatu
jaunkerari asmotarako,
ez eban iñor baztertu
zapaldua izateko.*

*Danak zitun bere seme,
guztiak zitun alaba,
sortzez eta eskubidez
deituak bizitz lanera.*

ALKARTU

*Ez dau nai , jauntxokeririk
seme bardiñen artean,
bearra agindu eutsen
alkarren onean.*

*Arroa beratu bedi
ta txikia gora jaso,
au da Jaungoiko legea
pozez, bizi izateko.*

*Jorratu lurrak atxurrok,
ta arantzak azpiratu,
betoz aleak ugari
ta anaitasuna gozartu.*

MAITE

*Maite egizu anaia,
maitasuna da zerua,
maitatzailleak doazi
zoriontasun errira.*

*Maitasunak hardindu dauz
norhera ta urkoa,
maiteak ez dau zapaltzen
urko lagunen eskua.*

*Anaien eskubidea
bardiña da guztietan,
egizko ta indartsua
danen eginkizunetan.*

LUR LANG UILLE

*Lenengo lur langillea
gogo eta itz utsa zan,
jakituria berbera
izatez bere haratzan.*

*Beste baratz biribil bat
aidean sortu eban,
arrigarrero, gizonentzat
argiaren biztueran.*

*Lurra, urak ta aizea
jaio ziran ostiñean
ta danen erdi erdian
gizona zugatz artean.*

BARATZA

*Baratza barri mielan
bere antz ta irudira
tinkatu eban gizona
jaun altsuaren erara.*

*Lurraren eskubidea
dana zan esker utsean,
sagar; madari ta ardo
erentzi aberatsean.*

*Gizontasunez gozartu
izan zan giz zoriona,
Aita onak egin leiken
bizirako barri ona.*

SORRERA

*Ez eskuz ta ez atxurrez,
gogoz, soil, sortu eban
lurra biribil ta eder
aizearen goi aldean.*

*Ez eban bear lan gairik,
berenez, altsua zanak,
semientzat sortu eban
lur oro Aita oberenak.*

*Be gira begira egon
ta eder eretsi eutsan,
lur, zelai ta mendiari
gizonaren omenean.*

ARGI-ZALE

*Gizonak sortu baiño len
illuna besterik ez zan,
ta jakituri altsua
bere asmoetan ebillan.*

*Gizon andrak sortu nai dauz
bere irudi argira,
baiña illunez ezin bizi
satorraren ara-bera.*

*Gizona argizale da
buru, biotz eta egiz,
gizona eta argia
alkar maitazen goi zuziz.*

DIRDARI

*Lur illunaren gaiñean
gaba egoan dirdari,
goi guztia urdin eder
eta izarrak dantzari.*

*Goi oztiñean sortu zan
erremeri aundiena,
bakezko soiñu otsean
aurrezkorik liraiñena.*

*Danak irriparrez, pozez,
itz ta argia zabaltzen,
gizona lurretik adi
zenbat dantzari dabiltzen.*

IZARREZ

*Zerua izarrez dago
gizonaren omenetan,
jakintsu zara urdiña
dizdizera ederretan.*

*Sua eta errukia
alkartu dira ortzian,
zugatz tantaiak dizdizka
izadiaren gainian.*

*Errekondoan lizarra
dirdari zidan bitsetan,
ta txori alaia puntan
kantu urretxiñoletan.*



Gaztelugatxe: toki eder

III.- ZIDAR-EDERRA IZARRETAN, URDIN-EDERRA ITXASOETAN

IZARRAK

*Maitasun itza darie
argi gozoa zahaltzen,
oztiñeko hiztanleak
urrezko ahotsez urtzen.*

*Alkartasuna da nausi
urdin ta urre artean,
zeruaren zoriona
esan al-ha nei gabea...*

*Goizaldian esnatu da
mendi gaiña abeslari,
zidar ederra dario
zelai eta ibarrari.*

ERES-BATZA

*Ortzi goiko eres-hatza
ederretan ederra da,
ertilarien soiñua
dana da urre gorria.*

*Orkestarik nausiena
kokatu da urdiñean,
bakoitzak bere erti lanez
goiak eztitzen aidean.*

*Bakoitzaren agindura
bestearen soiñuagaz,
egoki, alkartzen ziran
izar- guztien dirdiraz.*

IZARDIA

*Izadi arrigarria,
nundik nora artu dOZu
ainbeste jakituria
oro urrez eta soinu...?*

*Lurra begira daukazu
Gau izartz ederra dago
ur cliñaren mantupean
argi izpitan oparo.*

*Nor Altsu dago, or; goian,
suzko indarren artean...?
Nork esan dautso suari
ez erretako goizean...?*

IZARRETAN

*Galia izarretan dago;
neskatxa zuriz jantzia
senar-gaiari begira
goi arrimenez hetia.*

*Izar danak dagoz ñir ñir
goi urdiña urreturik,
neskatxa orhanhagea
lau- gaiñean kokaturik.*

*Ortziko izar urteak
begira so alkarrerri,
neskatxa zuriz jantzia
mutil gazteari adi.*

BEGIRA

*Zeruko izar guztiak
danak urrez jantzi dira,
nor ete da goi urrelaria
danak berari begira.*

*Ainbeste jakituria,
dana ederrez jantzia,
dizdizera ederretan
dago zeruko ontzia.*

*Neskatx soiñeko oria
zeru ñirnirrari adi,
eder bardingabean
Egille Jakintusari.*

IZARRRETAN

*Intz egizue zeruak,
urrea bota izarrak,
ederren edermiñetan
dagoz zeru eta lurra.*

*Izadia gorantz adi,
ixilik dagoz mendiak,
urTe-bitsaren argiaz
gurtzen goiko izardiak.*

*Guztia dogo amesti.
An goian urre gorria
ta dor re zarre gaiñean
mosolo abeslaria.*

ORTZI

*Ortziko izar gorriak,
aidetu zuen egalak,
lurraren arru barrenak
orbiztu daizen argiak.*

*Lurra illun ta astun dago,
hai izadi ta gizadi,
izarren urrezko sua
zeru goitik etor bedi.*

*Zeruko urdin ta lur baltza
gau lotan alkartu dira,
bakea dator zerutik
mendi ta soloetara.*

EDER

*Zein ete dan ederrago,
gabaz, nengoan pentsalari,
gogoa, gora, begira
izar edertasunari.*

*Mendi gaiñean gorputza,
geldi, dago atsedentzen,
begiak, soli, begira
izar urTetan estaltzen.*

*Ederra zara zerua
ortziko gardentasunez,
eder sortua zara lur;
Egillearen almenez.*

MAITEDER

*Zer dago ortz urdiñean
urrezko gaba erdian,
zer dago mendi orleian
eguzkizko printzapian...?*

*Izarrak, gabaz, kantari
urrezko abots miñetan;
zeru guztia entzule
amai bageko landetan.*

*Lurra gabeko ez titan,
alkartze gozoan dager,
intza dau zidarrezkoa
ta gau ixilla maite eder*

BAT BITAN

*Egille bat berbera zan
lur ta gizonen Sorlea,
itz egiten Altsuena
Jainkozko borondatea.*

*Gizona eta izarrak
jarri zituan gidari,
munduko giza bizi
danen zelai babesgarri.*

*Izarrak leial dabilta
gau eta lurraren pozez,
giza jakituriagaz
gizadia gose miñez.*

ORTZIAN URRREA

*Ortz garbia urdin urdin,
isletan dabil urrea,
oztin danaren altsuan
neskatxaren irudia.*

*Ortzi guztiko izarrak
urregorritzko jantzirik
apal eta bakez dabiltz
Egillea gurtu nairik.*

*Ederretan ederrena
askatasuna darie,
bizitza edertu nairik
Jainkozko borondatie.*

BAT BITAN

*Aitaren itza, beti, da
askatasun ta bakea,
berez ontasuna danak
ezin aldatu bidea.*

*Semeak itzi zituan
baratz eder baten jaube,
artu ta jan zugatzetik
gorputza asetu arte.*

*Baiña gizonak sortzetik
eukan biurrikeria,
ezin menperatu eban
gizonezko nauskeria.*

*Izarrak ez dau lotsarik...
pozik dario urrea;
esana egitea da
askatasun urrezkoa.*

*Gaizona dabil orroka
askatasun zori-gaitzez,
jakiturizko almena
trabestuta zoritxarrez.*

*Biotza erkindu jako
egarrikeri gaiztoetan,
lur txakur biurtu jako
gogoa zapalketetan.*

BAT BITAN

*Dana emon dau Sorleak
oparo, maitasun aundiz,
zerua oro urrezko
jakituri arrigarritz.*

*Lurra, mendi eta zelai
aberastu zitun urrez,
zugatzez arri-ederrez
burdiñez eta zidarrez.*

*Guztia zan oparia
Aitaren borondatia,
ta gizonak ausi dogu
Sorlearen itz nausia.*

*Gitxi dira jainko lagun
ondasunen banaketan,
txakurkeriak ugari
giza lapurkerietan.*

*Mitoak eta itz utsak
nabarmen dabiltz lurrean,
zuzentza eskatzen dabe
ta egurra lepo gainean.*

*Au ez da giza legea,
au lorrez illaztea da
anaiaren odolagaz
gorputz dana gorrituta.*

BAT BITAN

*Ortzetik begira dago
bizitzaren goi argia,
Egille berbera da
itxasotara begira.*

*Sakon, zabal eta urdin
zabaldu eban eskua
maitasuna ixuririk
urtegi aundietara.*

*Itxasoa gora adi,
argi printzetan zidarrez,
maitasuna agertzen dau
beraren urdintasunez.*

BITAN BAT

*Itxasoaren babesa,
iñoz, ezin zaitut aantzi,
ain zara urdin, ain eder
begientzat arrigarri.*

*Zure babes aberatsak
danetik arrain saltari,
ondasunaren itz poza
darlo itxasoari.*

*Egoz txoriak egaztu
itxasoaren zabala,
ertz batetik besteraiño
itza dariozuela.*

URPEAN

*Ur barruetan dabilza
millinoiak arrain bizi,
urak ba-dira gatzdunak
biztanleak urre-gorri.*

*Ondasun izugarriak
ain atsegin direlarik,
nork negurtu ete leikez
uretako neuskin barik?*

*Arrain zuria zoratzen,
arrain oztiña loratzen,
itxaso amak poz aundiz
ume barriak agertzen.*

ITXASO ZABAL- URDIÑA

*Itxaso urdin zabalala
biotzez zabalagoa,
esku arraz ezin neurtu
zure zabaldi osoa.*

*Izatez arrigarria
egin zinduzan Sorleak,
zure irudi guztiak
dagerz urrezko eskuak.*

*Jakitura danetik,
maitasuna goi-aldeetik,
biotz onaren asmoa
darizu sort-iturritik.*

ALTZOA

*Itxasoaren altzoak
nun ete dauka barrena,
lulpean ala lur goian...
ertz bako urdintasuna.*

*Giza jakituriz goitik
eguzkia artzen dabil,
arnai bako jira-bira
aize urdiñagaz gilgil.*

*Itxas antzarrak orroa
egazka goi aldietan,
itxasoa agurtzen dabe
egazkada ausartetan.*

IZ-OZTIÑA

*Itxasora adi dago
etxe zuriko leioan
neskatxa zuriz jantzia
uin zerien aurrean.*

*Zoramenez ikusten dauz
zerua eta Itxasoa,
an, urrin, bik bat eginda
zerua eta itxasoa.*

*Itxasoak maite ditu
zentzunezko neskatilek,
gorriz jantzi dan loreak
maite ditu ur urdiñak.*

URAK ZERUARI

*Itxaso urdin aundia,
ertz bagea dirudizu,
ez zulo ta ez tontorrik...
nork eIn zaitu ain jakintsu?*

*Zure urak ez dau loirik,
zeru urdina dirudi,
ta biok alkartu zare
maitasunaren agiri.*

*Goiak ontasuna dager;
ur beiak edertasuna,
itxasoak zeruari,
maite zaitut goi laztana.*

ZER URREN IRUDIA

*Ortzian izarrak dagoz
itxasoari begira,
zidarrezko dizdizera
irriparrez dago ura.*

*Izarrak ñir-izirka dagoz
zeru ortzian kantari,
bertso zoragarrienak
abestuz itxasoari.*

*Oi maitia, oi laztana,
neskatxa urdin jantzia,
itxaso aurrean dago
zeruaren irudia.*

ORTZI AMESLARI

*Arrigarria ez ba litz...
Zer da ikusten dodana...
Zerua ala itxaso...
bien zorakortasuna...!*

*Ura oztin eta zabal
gaurko neskatxaren antzera
urdin, aratz, dizdiratan
dago aitzari begira.*

*Millinoiak urre gorriak
izar biziak iduri,
uraren barruan, dizdiz,
dabiltzaz ortzi ameslari.*

ITXASO BARNEAN

*Zeruan aiña izar da
kantauriko itxasoan,
ederrago zein ete dan
amestu naian nengoan.*

*Zeruko gardentasuna
izar danekin batera
gau zorakortasunean,
pozik, doa itxasora.*

*Itxasoak laztandu dau
zerua gau urdiñean
ta izarrak ames dagie
itxasoaren barnean.*

BESARKATU

*Nork sortu dau goi ortza...?
Nor da goi ertilaria...
itz bategaz sortu dauna
izar guztien bizia...*

*Lurra eta gizadia
arritu dira gabea;
izarrak biztuta ñirñir,
ikusirik itxaspean.*

*Argiak alaitu ditu
zerua eta itxasoa,
ta izarrak besarkatu dau
itxasoaren biotza.*

URRE GORRIZ

*Bat, hi, iru, lau, geiago...
zenbat izar ete dira
izadiaren pozgarri
zerutik adi lurrera...*

*Millinoiak dira zeruan,
goian ainbat itxasoan,
ta gu bien bitartean
zutik, lurraren aurrean.*

*Goi izarrak, dizdiz, dabiltz
itxasoa argiturik,
urtegi guztia dago
urre gorritz apainduak.*

URRE JAUN

*Iru anai kutun dagoz
sorkaldeko eguzkitan,
ederrari begiraturuz
maitasunezko itzetan.*

*Ortzia dago sor-miñez,
egun sentiko izpitan,
lur ta itxasoa adi
maitasun urre dirdaitan.*

*Lurra eta itxasoa
biak, ernai, gora adi,
esker-miñetan agurka
urre jaun argiari.*



Lan eta arlu-emonetan

IV.- NESKATZA GORRIZ
JANTZITA,
MUTIL GAZTE MAITALEA
KANTARI
ENTZULEAK UGARI

ABESLARIAK

*Arkaitz, magalean dago
neskatxa gorri jantzia,
amets kantak datorkioz
aitz artetik biotzera.*

*Arkaitzaren puntan dago
mutil gaztea kantari,
eresi eztiak jalkiz
maite daun kutunari.*

*Maitasunezko abotsak
alkartu dira kantari,
eres gartsuak abestuz
itxas urdin gardenari.*

ENTZULEAK

*Biotz, eztia darie
neska mutillak kantari,
arkaitzak urre gorritan
entzuten maitasunari.*

*Arrain zuri ta urdiñak
amestu dabe ur pean,
neskatx gorri jantziaren
ezkontza arkaitz gaiñean.*

*Guztiak apaindu dira
urdin, zuri, gorri jantziz...
ta ur gaiñera urten dabe
txalo joten gogo biziz.*

IZONTZIA

*Itxas urdinean dago
Izontzia zuri zuri,
ur urdiñak, bakez, dagoz
maite itzaren irudi.*

*Eguzkia, alai, dago,
itxasoa barrekari,
ontzi zuriko jendea
kontu kontari izlari.*

*Guztiak ortzira adi
egazkiñari begira,
noz elduko ete diran
ezkonbarriak ontzira.*

MAI ONDOAN

*Izontziko aretoa
luze ta zabal garbia
ezkonbarriei begira
gertu dauke mai zuria.*

*Senar-emazte barriak
urdin ta zuri jantzirik,
dana agurra eta poza
artZen dagoz zoraturik.*

*Bazkariaren gozoa
ederra da itxasoan,
danak alai ta kantari
itxas bare babesean.*

EGUZKIA TA ITXASOA

*Ura eta eguzkia
alkarri begira dagoz,
zein ete ederrago
argi ta ur pozkarioz...*

*Ederretan ederrena
maitasunaren garra da,
eguzkia urtzen doa
itxasoaren gaiñera.*

*Eguzkia biotz zabal
doa ortzetik urera,
bere ongi-nai guztia
ixuriz ur urdiñera.*

ITXASOA TA EGUZKIA

*Itxasoa zabal zabal
urdin jantzi da goizian,
argiaren urre printzak
musukatu dauzanean.*

*Itxas barea jantzi da
neskatxa baten antzera,
garbi, alai ta eder
maitasuna zabaltzera.*

*Ederretan eder zara
itxas andere urdiña;
izardiaren antzera
arrañen ama egiña.*

ORTZI TA ITXASOA

*Ederretan eder dira
ontzi eta itxasoa,
Egillea gurtzen daben
zeru ta itxas soiñua.*

*Ortzi urrez josita
ñirñirka, dabil gabea,
itxaso eta lurraren
amets zorabioetan.*

*Itxasoa, bare, dago
bere edertasun guztian,
arrañetan oparoa
barne amatasunian.*

ITXASOA ETA ORTZI

*Goizez agurra darie
zeru eta itxasoari,
urrea eta urdiña
opalduz goi aizeari.*

*Zeruko gardentasuna
urre gorritz apainduta,
ortzi goitik beratu da
itxaso gain zabalera.*

*Ezkontzarik maitiena
egun-sentian izan zan,
izarren argitasuna
itxasora sartukeran.*

NORK?

*Ortzia urdin egoan,
mendi aldapak orlegi,
basetxe aintzagarria
eguzkira adi adi.*

*Zer zorakortasun dauka
eguzkiaren argiak
urdiñez inguraturik
beraren ibilbideak...?*

*Nork eratu dau urrezko
egunezko izar ori...
nork dauka, zutik, aidea
argia biztuta guri...?*

ITXASOA

*Oro oztin, oro eder
agiri da ingurua,
begiak asper eziñik
zabalдитara begira.*

*Urregorritzko bolia
aidean dator biribil,
ez zaldi ta ez burdi
jaunaren erara dabil.*

*Aizeak baiño gorago
eukan beraren kabia,
ta eder miñez jantzi zan
itxaso ur urdiñera.*

ALTZORA

*Bart arratsaldean, berandu,
txoriak lotaratzean,
suzko bola, geldi geldi,
itxas gaiñera joan zan.*

*Izadia, pozik, egon
urrezkoari begira,
ta itxasoa agurka,
zatoz, eguzki, gurera.*

*Goizeko izar argia
lo egitera joan da
bake urdiñez jantzita
itxas amaren altzora.*

GAU ARGIA

*Oro dago, bare bare,
uraren Neste aldean,
izarren argi-mutilla
agertu da goi ortzean.*

*Lurmendi ta zelaiak
argi illaren gisara,
txori uluetan dagoz
lo-aldiaren girora.*

*Gabeko zidar urratsa
dager zelai orlegian,
illargiaren zirrarak
alaituta biotzean.*

AURRERA OIÑAK

*Zatoz onantza argia,
goroztolako egitik,
aldatz gora joan nadin
malkar onen saietzetik.*

*Zatozkit arnas barría
mendiaren gibeletik,
aritzaren orlegiak
biotz barnez indarturik.*

*Aurrera oiñak aurrera
aldatz gora ibiltari,
zarra dago urdiña,
urretxindorra kantari.*

GORAGO TA EDERRAGO

*Gorago igon joranez
argi barriak datozkit,
gero eta urrerago
nire zeru goienetik.*

*Mendi gauza ta ontzia
besarkatuta dakusdaz,
urdiña eta orleia
alkartu dira zeruaz.*

*Ur, laster mendi gauza
nire ametsen abia,
gorago ta ederrago
mendiaren irudia.*



Izadian gazte ertilariak

V.- GOROSTOLARI KANTUA

*Neguaren ortz azpian
igon dot mendi gaiñera,
lenen, arnas artzea da
hirikien arauera.*

*Goia zabal, eder, dago
parnaso mendi antzera,
edermiña dariola
alderdi guztietara.*

*Zer ete dan ederrena
asmetan nengoalarik,
izar eder hat nenkusan,
dindiliz, zeru ortzetik.*

OPARO

*Gaiñaren edertasunez,
oparo, aurkituten naz,
inguru danetatik dator
bake itza zorionaz.*

*Lendahiziko agurra
guraso eta sendiari,
iñoz, astu ezin neiken
arbasoen erriari.*

*A gur arkaitzak, zeru, lur
agur Euskalerra maite,
zure izatez hizi naz
goi bizira eldu arte.*

*Gorostola gaiñean datza
zerua biribil ur din,
erhia bordarik horda
txoria arkaitzaren gain.*

*Zabal begiak mendira,
aurrian daukazu itza
ta irakurri arkaitzen
urregorritzko izkia.*

*Esnatu zaitez biotza,
opaka daukazu lurra
bere eder maitasuna
egiaren itz ziuerra.*

EGIEDER

*Zeruaren menpe dago
gorostolako mendia,
leiden eta iaioa da
beren ardatz eusgarria.*

*Ez dau ezerk ikaritzen
ez oiñeztuak bildurtzen,
trumoia datorrenean
bularra jako sendotzen.*

*Gorostola, gorostola,
aize gardenen abia,
bular sendo ortan lortu
semien ahots zolia.*

BEGIRA

*Gorostola goitik dator
egun-sentia danian
izarren argi guztia
urrezko maitasunian.*

*Aritza begira dago
izardirantz goizaldian,
begiak eme-miñetan
adarraren goi ez-tian.*

*Dotore daukaz adarrak
bizi barriaz jantzirik,
itxaropen aintza dakar
argiTa begiraturik.*

GOROSTOLA

*Gorostola mendi gaiña,
zer dok ire barru ortan?
urrezko al dok biotza
odol gorrizko aintzatan...?*

*Nungo jatorrikoa dok
lur orren mamin nausia...?
Zer adu daukak iregan
gorostiaren abia...?*

*Egur jatorrena al az
ire indar ta biotzez...
eusko leiñu antzera
sortzez datorrena odolez...?*

SORTERAZI

*Giza begiak, zoliki,
mendi gaiñera begira,
zer dok ire magal orretan
zugatz orlei ariora...*

*Urre izarrak al dozak
gorostolako mendian
zugatz oriei biurturik
lur mamintsu barrenian...?*

*Zer jaukak lur sendo orrek,
zer adore berezgari...
makil ainesgarriena
sorterazteko amari...?*

GOROSTIEN

*Gorostien gerizpean
arnas barría datorkit,
au pozaren zoramena
datorkidana zerutik.*

*Zerua ta mendi gaiña,
goizez, besarkatu dira
eguzkiaren sorreran
argi eta maitasunera.*

*Gorosti makil onleia,
eusko mendiko loria,
ire indar ta kemenez
zaindu egik lurmendia.*

*Itxasoa dakust aurrez,
amai gabeko zelaia,
gaua; goizez, baketu dira
urtegia ta mendia.*

*Ekaitz gogorak jo ditu
etsaikeriz mendi ertzak,
oiñeztuz trumoi zakarrak
bildurtu dauz mendi gaiñak.*

*Zu, gorosti, tinko zagoz,
erpa sendoz sustraituta,
gogoa dozu bizia
eusko lurak indartuta.*

B ULTZAKA

*Dirdiraz dakust orleia
oi gorostidi maitia,
zugaz ametsetan daukat
nire zoramen guztia.*

*Nork egin zaitu ain eder..
Nun dago zure sormena.
Zu ain ederra zalarik
zein da zure egillea...?*

*Orleia dago zuregan
orri klskortu orretan,
ta argia dabil isletan
zidarrezko urratzetan.*

*Gorostolaren zoriak
zeru txiki bat dirudi,
argiaz jantzita dago
zeru ortzaren irudi.*

*Eguzkiaren izpiak
zoratu dabe mendia,
argitu da gorostola
urrezko aintzaz betia.*

*Aintza, goian, argiari,
aintza gorostidiari,
ederretan ederren dan
gorosti makillari.*

ASE NAIRIK

*Iturria, maite zaitu
gorostolako mendiak;
ur gardena, maite zaitu
egaz dabillen erliak.*

*Eguzki galdatan doa
ernai, mendigoizalia,
gorosti makil sendoaz
urratuz bide luzia.*

*Antzizka doa gaiñera
izerditan bekokia,
begiak, zoli, begira
ase nairik egarria.*

GAIÑA

*Gaiña. Atsedena. Bakea.
Iturri itxaropenaren
ur garden ez tia betor
egarri miña arintzen.*

*Atseden egarría dau
aldatz gora pekatuak,
gorputza, pozez, arintzen
iturriaren soiñuak.*

*Mutilla patxadaz, dago
Euskalerrira begira,
mendi, baso, baserri ta
eusko lantegietara.*

ZER DA UKA

*Gorostola maitegarri,
zure maitasun guztia
datorkit biotzeraiño
dana, dardaraz, betia.*

*Zer dauka zeru urdiñak,
zer dau gorosti orleiak,
ainbeste biotz daroaz
gorostolaren zelaiak.*

*Maitasuna dago orleian,
maitasuna iturrian,
mendigoizalia dago
ontasunaren barnian.*

EDERRAGO

*Zer ete dan ederrago
zoriontasun onetan,
neure artean nengoan
maiz, iraultzen gogoetan.*

*Zeruko urdin gardena,
dizdiz, zagoz izarretan,
urrea dariozula
egun-sentiko argitan.*

*Zeru goia urre gorriz
ta lurra dago orlegiz,
biak alkarri begira
maitasunaren egarritz.*

GOROSTITIK

*Gorostitik gorostira
txoria dabil kantari,
oztiña dauka lepoa
ta eztarrian txiruli.*

*Gora doazi kantuak
maite miñezko eztitan,
etxeko andre txoria
abian dago sorketan.*

*Maietzaren abestia
ederra da gorostolan,
tenor txori nagusia
emazteari kantetan.*

GOROSTIDI

*Mendi gaiña eder egon
zoragarritasunetan,
maitasunezko kantuak
entzuten ziran itzetan.*

*Neskatxa gorri jantzia
ur billa, goiz, iturrira,
an goian, egon maitia
itxaropenez begira.*

*Txiruliruli alaiak
sortzen zitun biotzean,
ametsa eta ezta
gora zabalduz aidean.*

EDERREN

*Zoragarri dago gaiña
beren urdin gardenetan,
izarra eta iturria,
dizdiz, dagoz eguzkitan.*

*Ederrena nor ete dan
begira dago mutilla,
maitasun bat aurkitzen dau
begirakunez zotilla.*

*Eder dakusdaz mendiak,
eder dakust goi ortzia,
baiña orotan ederren
larrosa maitegarria.*

GOROZTIAGA

*Gorostiaga zabalak
itxas orleia dirudi,
andenik ande EDERRA
mendietan da nagusi.*

*Lurraren mamin giarra
mendan eder dalarik,
gorostiak xurgatu dau
eztia lur bularretik.*

*Oparoa da mendia...
bizi gurin dario,
eta gorosti orleiak
asezkor xurgatzen dautso.*

GOROS

*Gorostolako makillak
dei dagitso mutillari,
bere ederra dario
barnetik gorostiari.*

*Gogor; sendo, lerden, zuzen,
egurren egur dirudi,
beraren baitan daroa
lurraren mama biziki.*

*Mendia, ernai, dago
gorostimendi barrietan,
saillak sail doazi geitzen
eusko lurren omenetan.*

GOROSTOLA GAIÑA

*Gorostola gain guztia,
goiz, edermiñetan dago,
zerua urretan datza,
gorostidia maitezko.*

*Ederra txoriei deika
luza ta zabal guztira,
abotsa aidean doa
urretxindor belarrira.*

*Egaldunak asi dira
egakaldi eztiatan,
arat onat ta dantzari
eguzkiaren printzetan.*

GOROSTIAN

*Maietza, lore-il ederra...
urdin gardenetan datza,
ta gorostidi orleiak,
goiz, zabaldu dan biotza.*

*Gorosti puntaren puntan
urretxindorra kantari,
zeru ta lurra entzuten
abeslari urreari.*

*Urretxindor erregiña,
maiteki, dago abian,
abestiak entzuten ta
umien zoramenetan.*

AMESKOR

*Gorostola orlegia,
noz, egin zara ain eder,
ameskor dozu bizia
txori abestiei esker:*

*Nundik nora datorkizuz
abeslari ain jatorrak...
bordarik borda al dabiz
zure billa kantariak...?*

*Au alde zoragarria...
Zeru bera dirudi
gorostolako mendiak
urretxiñolean kantari.*

SARIKETA GERTAERA

*Sariketa bat sortu zan
gorostolako zelaian,
Euskalerriko txorien
erestaldia seiretan.*

*Dana egon erarkor,
goia urdin, bea orlei,
ipar aizea etorren
uso antzez egalari.*

*Epailleak eldu ziran
Bilboko "Bide Nausitik"
kastorezko kapel nausiz
eta ametsez beterik.*

ERESTALDIA

*Kanpaia dindiliz egon
gorosti makil gainian
ta eguzkia begira
deia joteko otsian.*

*A maika milla kantarik
ba-diardue soiñutan,
gora, bera, biribilka
estari ta pikuetan.*

*Danak lora baten antzo
urre eresi zirudin,
txoriak Egilleari
agertuz milla esker-min.*

ERESTALDIA

*Izadia ixil ixil,
bakearen irudia,
ederrak emoten daben
maitasunezko bizia.*

*Gorostiak, banan banan,
buruak makurtzen dagoz,
soiñuaren ederragaz
aseturik pozkarioz.*

*Ederraren eder dakust
mendi gaiña zorionez,
arri, lur, bedar dardaraz
entzunaren zoramenaz.*

KANTARIAK

*Amaika milla aingeru
zirudien kantariak,
amaika milla zugatzek
gora zituen txoriak.*

*Txalo ta txalo ebilzan
zeru goia eta lurra,
ta txaloka gorostiak
abeslariei agurra.*

*Iturriko ur gardena,
an, egoan dizdizetan,
estarriak leguntzeko
zoramen ordu aretan.*

ZORIA

*Lurrak ezin dau agertu
artu daben pozaldia,
arriak ixilik dagerz
gozartzen eres ez-tia.*

*Gorostiak arro dagoz
urretxindorrei begira,
ezin aspertu entzuten
ain arrigarriak dira.*

*Orain sortu da bakea,
gorostolako loria,
zelai erdian agertu da
lirio zuri zuria.*

ERES-BATZA

*Ardi zuriak entzuten
zugatz puntetara adi,
zelai orlei ta ardi zuri,
urretxindorrak kantari.*

*Batzuk ziran urrezkoak
eguzkiaren printzetan,
abots zoli, abots lirain
estari kantarietan.*

*Asko ziran zidarrezko
aingeru abeslariak,
zelaia zerutu dabe
urretxindur kantariak.*

TXIR ULI

*Gorostoi orlei guztia
gora goraka jaiki da,
abestiz, pozez, garaitzaz
arrotu da, gaur, mendia.*

*Kantuak ixuri dira,
egazka dabiltz txoriak,
alkar maitatzen guztiak
poza dario mendiak.*

*Gorostolaren zerua,
gaur, ikusi dau mendiak,
abesbatzak abestu dauz
txiruli amesgarriak.*

SOIÑU

*Itzul-miñetan gogoa
lanari begira dago,
eresi abeslariak
aztu ezin oraindiño.*

*Gero ta sutsuago
datorkio oiartzuna,
len, maiteki, entzundako
eresiaren zoruna.*

*Emen, egin dagidan lo
izarren ñirñir azpian,
ederrago izango da
gaba izar urrepean.*

OIARTZUNA

*Arrats berantz doalarik,
oi! giza bamekO miña,
suak sasiaren antzo
erretan doa bIotza.*

*Eresiaren soiñua
ain gozo ta ezitia,
zelaietan zear doa
lorezko usain gozoa.*

*Arrats beraren lillura
ezin dau biotzak aantzzi,
ain zan gozo, ain zan eder
nire anietsaren kabi.*

GOROSTOLA MAITE

*Oi gorostola maite,
zer zorakortasun daukazu
zure goi, be zabalean
ain deikor ta zorientsu.*

*Nork alkartu eikeazan
urretxindorrik onenak
gorosti zugatz artean
artzeko abots liraiñak!!*

*Mendi-gain eder guztia
abestiaren ederrez
zoratuta geratu zan
betirako maite miñez.*

ZOR UND UTA DAGO

*Dana zorunduta dago
zugatz, orma ta iturri,
gorostola zabaldiak
zeru urdiña dirudi.*

*Zuri begira daukazuz
erleak egun-sentían,
geroz, egazka doazi
urrezko printzen artian.*

*Abes-batzaren garaia
ta lore ezti usaiña,
zabal dabiltzaz mendian
pikoak artu al aiña.*

EZTITAN

*Gorostolako mendian
dana egoan maitero,
zerua urdiñez urdin
ta lur azala gozaro.*

*Erle gorri langilleak
zearka dabiltz aidean,
mendirik mendi doazi
ezti lanera bidean.*

*Izadi orlei loratsu
begira dago langillei,
berez jatorkon ezti,
oparo, eskeiniz erleei.*

GOROSTOLAN ERLEAK

*Eguzkia bilin bola,
eguna aratza dager;
izar argi urratzetan
dana urre ta maiteder.*

*Lurra esnatuten doa
gabeko lo-zorrotatik,
nagi zarrak jaurti ditu
ezti guriña sor nairik.*

*Eguzki ta izadia
alkartu dira batean,
asmo gailena ezti
opatuz esku zurian.*

GOROSTOLAN LOREA

*Maitasuna ta lorea
alkartu dira eguzkiz
argiaren goiz urreak
dizdizka poztueraziz.*

*Zidarrezko argiera
biztu da zelai orleian,
bizia eta ederra
alkartu dira goizian.*

*Zer dator zeru goitik
maitasunezko garretan,
zer sortzen dau eguzkiak
zelai orleiko lorrean.*

SENDOTZEN

*Goi ortza oztiñez dago,
mendi gibelak orlegiz,
bien arte maitasuna
goiz, erne da gogo biziz.*

*Biziaren eder-miña
agertzen doa zelaian,
gorostolako landareak
lorak daukaz biotzean.*

*Zelai orlei maitian
sendotzen doa bizia,
gero ta orlegiago
dizdiratuz sor bidia.*

EDER DAGO

*Gorostola eder dago
atseden olaren antzo,
izera zuria dauka
bere gaiña estaltzeko.*

*Gau argiaren ederrak
zidar intzez estaldu dau,
lur dana dago dizdizka,
gallur, mendi eta arTu.*

*Gorostiak irriparrez
eguzkizko urre printzez,
zelaiak agurka dagoz
zorionaren pozagaz.*

GAÍÑA

*Garita zoraturik dago
ainbeste edertasunez,
argi, lorea, bakea
oro dago zoramenez.*

*Zentzunak artu alean
dator zorakortasuna,
dana, gogoz, irriparrez...
¡¡zeru lurreen
maitasuna...!!*

*Gora gora dago lurra
beren indar gartsuagaz,
ta gaiña erne-miñetan
eguzkiaren garragaz.*

IZARRAK

*Egun-sentiko izarrak
lurrera begira dagoz,
lur apala gora adi
adiguri pozkarioz.*

*Argiak esan lurrari,
maite zaitut lur apala...
lurrak dirautso izarrari
artu nire goiz agurra.*

*Lurra ta zeru izarrak,
pozik, dabiltz jolasean,
izarren urre bitsa
mosuka dabil lurrean.*

ZABALDIRA

*Ez ankarik, ez egorik
urre utsezko printzetan
atsedenez jezarri zan
gorosti makil gaiñetan.*

*Alkar izketa gozoa...
maiteak maiteñoari,
egun guztian laztanka,
bizia emon lurrari.*

*Ixil gozatasunean
urreak etorri dira
bizi míña narotuten
gorostiko zabaldira.*

LUR GUZTIA

*Lur guztiak, zur, egozan
urretxindor eragiñez,
nork eratu ete ebazan
ainbeste edertasunez...*

*Bakoitzak eukan abotsa
bere liraintasunagaz,
izar dizdizera legez
urrezko dardariagaz.*

*Batasunean egoan
guztien edertasuna,
danen artean sorturik
kantu zoragarriena.*

TXIR ULIKA

*Nork esanda ete ekien
zer zan abes-batz ederra...!
Nork emon ete eutsoen
edu artako ertia...!*

*Ertilari nagusia,
ixilik, egon zeruan,
ta urretxindor taldia
txirulika gorostolan.*

*Zeru goia eta lurrak
aintzazkoak zirudien,
lurraren astuntasuna
kantuek arindu eben.*

GOROSTOLA EDER

*Gorostola, eder zara
gorosti makil ederretan,
zure gain ortzia dago
urre, ñirñi,; eztaietan.*

*Zuri begira izarrak
zeru ederrean datzaz,
lurreko gabaren otza
estalduz oial urdiñaz.*

*Goia, ur din urdin, dager
zeru bakea opaka,
lurra gorantz adi dago
goiko Jaunari eskerka.*

IZADIA

*Goizian, goiz, jaiki nintzan
ederra xurgatu nairik,
urdiña, zabal, egoan
dana arnasaz beterik.*

*Itxaso, ortz ta mendia,
iruren izamenetan,
bakoitzak eskeintzen eban
bizia zoramenetan.*

*Zorabiozko zan dana.
Zeru ta itxas urdiña
maite garretan egozan
ostu nairik biotz-miña.*



"Basarri. iLvaropena. Ryan" Kristau-Ikasb' de ta Euskerearen Burrukan

VI.- MAXA MENDIARI KANTUA

Maxa Ederra!

Gaua MaTa' n.

Uda-goiena.

Ikuspegiak.

Pistiak eta artzaiñak.

Egun-sentia.

Zugatzak.

Eresa.

Edurra.

Ekaitza.

Egazkiña.

MAX

*Maxaren aurrean nago.
Itz egidazu mendia,
zorioneko ganguren
oro ederrez jantzia.*

*Goi aldeko argi ori
. jalki nire sormenera,
itzak sortu dagidazan
zure edermen erara.*

*Mendi gailen orretatik
betor nigan arnaskaia,
indarrez josi dagidan
nire barneko gogaia.*

DEIA

*Oi ene Max eder maite,
sutu eidazu biotza,
zure duin izan dedin
nire gogoaren itza.*

*Zure laguntza jarioz
jalki nai ditut bertsoak,
biotz zabal orretatik
betoz itz odolezkoak.*

*Orbiztu nire gogoa
duintasunez jantzirik,
betorkidaz itz argiak
maitasunez sugarturik.*

MAX EDER

*Ederra eta liraiña
datorkidaz zuregandik,
nork sortu zaitu ain eder
arkaitz ta aragiz jantzirik...?*

*Zure tankera egokiz
ederrena dirudizu,
mendi askoren altzuan
urre bitxia zara zu.*

*Zure baitan zagoz lerdan,
adeitsu danen artean,
inguru guztira adi
mendien zoramenean.*

MAX LIRAIN

*Begira begira zagoz
danetan zein dan ederren,
bai^^a zure arpegia
goiz argiak dau urretzen.*

*Berezko dozu gorputza
doaizko liraintasunez,
eguzkiak maite zaitu
urre onberatasunez.*

*Zure egizko egia
zure liraintasuna da,
lurra, bularra, burua,
dana dozu egokia.*

MAX BIKAIN

*Maxa, zure eder dana
artu al ba-nei enegan...
ederraren atsegiña
gogoz, gozartu dagidan...!*

*Zegaz bardinduko zaitut...
zeru goiko izarragaz...
itxasoko izarragaz?
ortziko goitasunagaz?*

*Zeuri begira daukazuz
gabaren erdi erdian
urrezko izar guztiak
arrimen zoragarrian.*

MILLA BIDER MAXA...

*Maxa, milla bider Maxa!
Zure itzaren ederra
zegaz bardindu ete nei
dana zara-ta ziderra...?*

*Euskal erraietako Max!
Zegaz bardindu zeikidaz
urrezko ba-dirudizu
zure barneko sorreraz...?*

*Zegaz bardinduko zaitut...
Mendien liraitasuna
zuregan artu ba-dozu
dana eusko lur eginda...?*

ZER DAUKAZU...?

*Maxa, zer daukazu zukan...?
Zer eskutuzko indarrek
eratu zaitu ain eder...
ala goi jakituriak...?*

*Berez, ain zara liraiña
Max mendi zoragarria,
dizdizka ederrez dago
zure orlegi guztia.*

*Zer dariozu itzetan...?
Zeruko gardentasuna...
eguzkiaren urrea
ala lurraren laztana...?*

ZER ZARAN...?

*Zu zer zaran nork esan lei...?
Egiak? Jakituriak...?
Munduko argibideak?
Irurok dira ederrak.*

*Egia, berez, zeu zara.
Zure ederra bakana da,
zure izatez diñozu:
"Ni naz euskeldunen
Maxa".*

*Jakituriak zer diño?
"Zapaldiriko lurretan
atsegiñena izan jat
Max ederra ben-benetan".*

*(Jose Migel
Barandiaranek)*

EDER-MIÑETAN

*Eder-miñetan zakusdaz
Euskalerriko mendia,
zure gaine Tik gain doa
Aberriaren aizia.*

*Orlegizko egoetan
bake itza daroazu
lurrealde guztietara
ta Aberriak maite zaitu.*

*Zure egalen gozoa
ezti bihurturik dago
ezer izan ete leike
zu baiño matiegarriago...?*

GAU URDIÑA MAXAN

*Ene Maxa zoragarri,
gau guztian egon zara
izar gorri urrepean
zeruetara begira.*

*Zer esan dautzu zeruak
ain urdin ta ain aratzak...
zein eder ikusi dozuz
Euskalerriko izarrak...!*

*Gizonen alkartasuna
ete egoan, an, goian,
urrezko dizdizetan
alkar maitatzen zeruan...?*

MAXATIK BEGIRA

*Millinoi izar zenkusan
zuri be gira zerutik,
mendi guztien artean
eurentzat aukeraturik.*

*Maxa ta ortzi urdiña
maitasun garretan dagoz,
mendiak izardiari
berba laztanak dirautsoz.*

*Izarrak Maxara adi,
ñirñirka, gabe guztian,
maitea opaka dagoz
urdiñaren babesian.*

MAXARA

*Argia dator Maxara
egoak zabal zabalik,
ortziko urdintasuna
maitasunez urreturik.*

*Eguzkiaren len printzak,
bigun bigun, eldu dira
zoramena dariela
mendiaren gaillurrera.*

*Maxak besoak zabalik,
senargaiaren antzera,
eguzki lazтана artu dau
maitasunaren pozera.*

MAX ARGIA

*Argiaren dizdizera
sendotzen doa indarrez
ta eguzki su gorriak
Max dana jantzi dau urrez.*

*Begira zein eder dagon
gure urrezko mendia...
Maxa zoraturik dago
begien arrigarria.*

*Nunnaitik begiraturik
jasa, ederrez, dario,
izadiak abestu dau
zure urrezko jario.*

ZER DA UKAZU...?

*Ezin naz asetu adi.
Ezin naikotu ederrez.
Zer daukazu Max mendia
orrenbesteko eskarrez...?*

*Urdiña eta argia
zerutik etorri dira...
ta Maxak esker onez
emon dautse laztan bana.*

*Iru gauza eder dagoz,
urdin, argi ta orleia,
alkar maitatzen zelaian,
zorionaren irudia.*

GA U IZARTSUA

*Izardi amesgarria
dizdizka egon ortzian,
guztiak ziran kantari
argi urretxiñoletan.*

*Gabago ta ederrago
egiten zan zeru goia,
izarrak ortza argituz...
goi urdiñaren maitea...!*

*Gero ta zorunago zan
zeruaren irudia,
izar dardariak aidez
ixuriz urre printzia.*

ILLARGI APALA

*Illargi apal apala,
doatsu, dabil otseintzan,
eguzkiaren argia
zabalduz izar argitan.*

*Lur oro, oparo, egon
ta Maxa maitekorrago...
izadia maite miñez
etorkidan barneraño.*

*Illargia, apal, apal,
Maxaren goi magalean,
izadiagaz izketan
maitasunezko zorian.*

MAXATIK

*Zidar, urre ta urdiña
danak batera, nenkusan,
Maxaren magal eztian
illargiaren izpitan.*

*Arrats-bera ezta zan.
Lurra maitasun miñetan
egon illargi diztiraz
izarrak agertukeran.*

*Zeru. mendi ta aizea,
guztiak bat egin ziran,
jakituriaren bidez
izadiaren goraltzan.*

GAU ZORAGARRIA

*Ene gau zoragarria...
zuri adi, antziz, dagoz
nire begi ta biotza
ederraren pozkarioz.*

*Gauago ta ederrago
agertzen zure zoria,
aritzetan, dizdiz, dago
izarren urre izpia.*

*Arizti eta urkidi,
atsegiñez, dagoz begira
gau giro gozoenean
Maxaren tontor gaiñera.*

ILLARGITAN

*Illargi osoa dager
Maxaren gain, aurrez aurre,
biribil eta mardula
eguzki bera lez urre.*

*A laitasuna dario
urdiñaren zabaldean,
aur politena dirudi
zeruetako ortzian.*

*Izarrak begira daukaz,
ain urrezkorik jantzi dan
berezko gorputz illunak
eguzkiaren txintetan.*

GABAREN GA UPEAN

*Ixil ixil dago lurra
sorkaldetik sarkaldera,
oro maite miñez dago
zerutik eta lurrera.*

*Ortzia edertzen doa
gau erditik goizaldera,
ta ederraren ederra
zabaldu da lur gaiñera.*

*Oi ene lur baltz illuna...!
Zerk edertu zaitu gabaz...
Zerk laztandu illunian
ainbesteko zorionez...?*

GOIZALDEKO ZIDARRA

*Gaba goitik berantz doa...
irudimen ta zentzunak
gero ta arrigarriago
dardaratzzen dauz izotzak.*

*Illargia indartzen doa
ortzi gauaren gaupean,
izarren urrea zidar
biurtuten da zelaian.*

*Argia ta dizdizera
bat egin dira lurragaz,
ta zeru bat sortu dabe
lurreko itz orleiagaz.*

ILLARGIA AIDEAN

*Illuna dan illargia
urretu da gau erdian,
inguru itzaltasunez,
pozik, dago goi ortzian.*

*Urdiña eta ederrak
artu dabe babesean,
illargia, irriparrez,
doatsu, dago beregan.*

*Gauaren gardentasunak
arrituta eukan lurra
ta begiaren niniak
iragan eban zakona.*

GOI URDIÑA

*Goi, be, dana ez tiz dago.
Zeru urdin orbangea,
bake oasi antzera,
ametsezko irudi da.*

*Urdiñaren magalpean
ederra dago zeruan,
nunnaitik izarrak dagerz
urrearen dizdizetan.*

*Gau zoragarri aretan
izar danak abeslari,
maite miñik gozoenak
emon-azoz biotzari.*

ARRATS-BERA

*Maxako arrats-berak
ha dau bere agur miña,
egun ederra ha doa
beren atsedeen tokira.*

*Eguzkia indergatzzen,
baso, mendi ta zelaiak
maitegarritzen doazi
izadiko neba-arrebak.*

*Illuntzaldiko agurra
maite miñez doa iges,
samurtzen doa mendia
eguzkia estalduez.*

UDA GOIENEAN

*Maxa uda goienez,
bizitz guenera doa,
zugatz, bedar ta landara
ba doaz atsedenera.*

*Izadia eltzen doa
margoz eta usain gozoz,
Maxako arpei alaian
dana dago pozkarioz.*

*Frutu emonaren poza
asmetan dau ama lurrak,
ida, bedar ta landara
dira lurraren eskarrak.*

IDA EBATEA

*Goizian goiezetik doaz
ait-emeak Max mendira,
ideak urretu dira
eguzkiaren erara.*

*Zorroztarri ta kodaiña
lepoan artuta doaz,
txistu jotzen ta kantari
barne gogo onenagaz.*

*Bat, bi ta segakadea,
iñoz, ez sasoi obarik,
ide saille, bera, doa
Maxa begira dalarik.*

ARPEGIA

*Max al pegi zabalean
ida sailla zan ugari,
idetza ederragorik
ba al dau sorterazi...?*

*Max mendiko egaletan
guraso eta gazteak,
irrintzi entzun ondoren
gartsu dabillez besoak.*

*Saillak sail jo dabe lurra
mendiaren magalean,
eta aldapa orleiak
dagerz edertasunean.*

IDE USAIÑA

*Maxaren gardentasuna
bizia opaka dago,
giro ortan ezin jakin
zer dan maitegarriago.*

*Eguzkiak urretu dauz.
Max magaleko ideak,
ta ide usain gozoak
betetu ditu bazterrak.*

*Ide ebate nekea
aztu da garo usaiñaz,
Maxan artzen dan ederra
alkartu da zorionaz.*

GAIÑEAN DAGO

*Maxaren gaiñean dago
abeslaria kantari,
izadiaren ederrez
biotza dau ameslari.*

*Idi busterri gorriak
aldatzik aldatz doazi,
itxauralaria, maiteki,
abestuz Max maitiari.*

*Gurdiak kurrinka doaz
soiñu polit ezhardiñetan,
Max mendiaren magala
dager urretxiñoletan.*

ARRATS BERA

*Ene arrats bera maite...
Zer dariozu eztitan...!
Nork jantzi zaitu ain eder
arrats bera dizdizetan... ?*

*Aldatzak gora datorkit
garozko usain gozoa:...
Lurra atsegiñez dago
lurriñez oparotsua.*

*Begira mendietara
eta zu, Maxa, erdian;
ain berezi ta liraiña
agertu ziñan lurrian.*

GURDI IDEAK

*Biderik bide doazi
zearka ta berantza
gurdi ide usaitsuak
baserriko kahirantza.*

*A laitasuna darie
gurdi oro irrintzika...
haseritarrei begira
Maxa, alai alai, dago.*

*Mendi idez urretua,
orain, orlegiz jantzi da,
alleluia alleluia...!
Maxa eder ta guztia.*

ARRATS BERA

*Arrats bera ez titsuan
txairo dago lur guztia,
maiteki, dirudiela
neskatxa urdin jantzia.*

*Edertasun ta lillura
bat egin dira mendian
maitasunezko garretan
zeru goien irudian.*

*Oro egon jostagarri
mendi tontor ta baserri,
zelai ta zugatz orleiak
hasetxea maitagarri...*

MAXATIK BEGIRA

*Max liraiñaren gaiñean
argiz hete jat gogoa,
alde danetatik dator
urrezko izpi gozoa.*

*Euskalergi dana dakust
arduraz lankizunetan,
alperkeriak ez dau nai
bizi eusko biotzetan.*

*Mendiaren goi ederra,
zure eskutu indarrak
ostu daust nire gogoa
ta gorputz negar malkoak.*

ARDI ZURIAK

*Ardi aldrak, zuri zuri,
Max magaletan dabiltzaz,
bake orlegi ederrak
lagundurik zorionaz.*

*Aize pinpiriña dabil
lana zuria igurtziz,
landa berdeko zelaian
zidarrezko argi biziz.*

*Jan ta lan danak batera
bildotsak datoz Maxara,
nekeak neke igaroz
ardi amaren pozera.*

MAXAKO ZELAIK

*Maxako zelaiak
argi ta garbi dagoz,
atsedenezko bakean
maitasuna sort-erazoz.*

*Egun-sentiko sorreran
zerua eta zelaia,
maiteki, bat egin dira
zoriontasun dirdaira.*

*Zelairik zelai doazi
erle gorriak aidetan,
ezti gorria xurgatuz
zelaietako loretan.*

ERBIAK

*Erbiak dagoz mendian
eiztarien pozgarri,
erbiak doaz sasitik
gizonendik igeskari.*

*Gizona, ixil, zain dago
erbia barriz zurrago,
gizonaren lakiotik
nundik nora, ies eingo.*

*Iñork ez dau nai beretzat
tirozko eriotzarik,
eta erbia jausi da
tiroz odola usturik.*

ARDI ZURIAK

*Zelaia dagoan eder
eguzkiaren printzetan,
berreun ardi zuri zuri
zelaian dabiltz olgetan.*

*Goi urdiñaren azpian
bedar orlegi gaiñetan,
berreun ardi zuri zuri
zelaian dabiltz olgetan.*

*Arizti ederra dago
zelaiaren magaletan,
berreun ardi zuri zuri
zelaian dabiltz olgetan.*

ITURRIRA DOAZ

*Mendi zearka doazi
ardi zuri illedia
ibil deunaren antzera
taka taka iturrira.*

*Au da zoriontasuna
sentitzen dana barnean
Maxako masti zarraren
ura edaten danean.*

*Txintxarri ots ta beekadak
konpas batean dabiltzaz...
gerizpea nai ardiak
arratsaldeko beroaz.*

MENDIAN

*Artalde zoragarria
mendi arrigarran zan,
danak eder Maxa ta ardi
zeru urdiñarenpean.*

*Mendiak bedarra opa
osasuntsu ta orlegi
ardiak, gogoz, eskertu
eguzkia zeruari.*

*Poza dago zeruetan
poza berebat zelaian,
artzain eta artzaiñora
kantari dabiltz mendian.*

ILL UNA DATOR

*Arratsaldea berantza...
Illuna dator zelaira...
urdin garbiko bakea
datorkit ene harnera.*

*Zelaia biguntasunez
goirantz, adi adi, dago,
mendiko gardentasuna
ba doa izardiraiño.*

*A gur zeru ta lurrak,
bakea izan luzaro,
mendi zoragarri ontan
bazka dagigun sarriro.*

PUNTAREN PUNTAN

*Maxaren puntaren puntan
zelaia dago orlegi,
eun ardi zuri zuriak
gogoz dagitze lanari.*

*Egunero eguzkia
egaz dabil goi aretan,
Euskalerriko mendiak
zainduz urre gorrietan.*

*Nik ba neukan maiteiño bat
mendi tontorren artean,
Maxa, zure irudia
txanbeliña da danetan.*

OI-MAX...!!

*Paristik Euskalerrira
nentorrela egazkiñez,
mendi bat ikusi neban
ederraren zoramenez.*

*Eder gallu asko dira
munduak landu ditunak,
danen artean lorea
sortu zinduzan aduak.*

*Oi Max, ene Max maitea...
lendabiziko menditan
zu, euskaldunena zara...
lirain ta eder danetan.*

ZER ADU...

*Zer adu daukazu zugan,
mendi gain zoragarria...!
zer aurkitzen dau ardiak
beretzat zoragarria...?*

*Ain zara lirain, ain zara
euskaldunen irudia...!
argi, lerdena, zentzunez
goitik heraiño josia!!*

*Euskaldunak maite zaitu
ama lur onberazkoa,
Max, zaindu Euskalerra
zure bizitz sustraizkoa.*

ERLEAK MAXAN

*Millaka egalariak
dabiltzaz zelai aldean;
zugatz adarren guriña
zamatuz lepo gaiñean.*

*Eguzki galdatan dabiltz
euren lanik onenean,
erlauntz aundia dirudi
MAXA guztiak aidean.*

*Langillerik bear ha-da,
erlea dabil loretan,
eztia batu ta batu
eguzkizko orduetan.*

LORERIK LORE

*Lorerik lore doazi
Euskalerriko erleak,
lorerik lore doazi
euskaldun kristau zintzoak.*

*Sagastiak maite eben
loreko zuritasuna,
erleak batuten eben
lorien gozotasuna.*

*Erle langille errimeak,
zintzo, landuten ez tia,
eusko langille kristauak
ziñez, gurtuten egia.*

IT UR

*Maxako itur gardena,
eguzkira adi zagoz,
panposa zara izatez
ur dizdira leiarrezkoz.*

*Amaika erle ba-dabil
zure aurreko baratzan,
eztia xurgatu nairik
zugatzetako loretan.*

*Pozez doaz zamatuta
ezti gaiez egoetan...
ur gardenak kendu dautse
egarria iturretan.*

AMA LUR

*MAX, ama lur oparoa,
zure errai orlegietan
arritik sortu da ura
izadiaren pozetan.*

*Arri ta zugatz artetik
erreka biurtzen doa,
egalak txipriztinduaz
Max mendiaren barnera.*

*Aritz larden panparroiak
begira dozuz aurrian,
zure esoaren bidez
gizentzen mendi garaian.*

GOIZIAN GOIZ

*Egun-sentian mendian
atsegin zan eguzkia,
iturriaren aurrian
nendukan amets guztia.*

*Dana eder agertu zan...
zabal zabal zeru ordin...
mendiak irriparreka
zoriontasun zirudin.*

*Aizea eta ederra
ta basoko orlegia
eguzkiaren printzekin
gozartu neban argia.*

MENDIKO INDARRAK

*Mendiko indar guztiak
esnatu ziran goizian,
gogotsu, alkar agurtzen
ama lurraren aurrian.*

*A rizti zoragarriak
Maxaren kutunak ziran,
ama lurra legez, tinko,
mendi maiteko zoritzan.*

*Maxaldeko pagadiak
sendoak baizen lodiak,
gogoz, maite dabe ama
biotz oneko semiak.*

ARIZTI

*A rizti zoragarria...!
Zegaz bardindu leiteke
zure edertasun ori
eguzkiagaz ez beste...?*

*Lurra, argia ta ura
artu dituzu sortzetik,
eztia erion lurrak
maite zaitu biotzetik.*

*Ama amultsua dozu...
Eguzkia urrezkoa...
zure sustraiak maite eben
biziaren erioa.*

MENDI GAIN

*Mendi gain, zorakor zagoz.
Nora nai begiraturik
lurak ederra dario
aldatz orlegietatik.*

*Euskaldun mendi tontorrek
euskeraz dabiltez izketan,
lurak ezagutu daben
mintzaira ederrenean.*

*Jakitun ta olerkari,
zure itza erabillen,
ortzia legez gardena,
curen bizia agertzen.*

GAIN GAIÑEAN

*Maxaren gaiñean dagoz
berreun milla erle gorri,
Paristik etorri dira
agur egiñaz alkarri.*

*Paristik etorri dira
egazkin ta tarrantetan,
ta pagoak artu ditu
bere orma zabaletan.*

*Maxa goiko pagadiak
berreun milla erlerekin
eztiz betetuta dagoz
usain gozozko lorekin.*

EGUN-SENTIA

*Egun-sentía sorkeTan
Maxa egoan baketan,
bake zuria zirudin
tontorreko arkaitzetan.*

*Arkaitzak argira adi
alaitasun eriotan,
pozezko egoitzatxo
asmetan zan atx gaiñetan.*

*Urdiña ta eguzkia
jatsi ziran Max gaiñera,
lurra eta argi printzak
eldu dira eztegora.*

BEGIRA DAGOZ

*Artzaiña ta artzaiñora
begira dagoz ortzira,
urdin dago izardia
gau azken dizdizetara.*

*Izarrak maite dau gaba
eguzkiak egun sena,
goizian agurtu dira
illuna eta eguna.*

*Atsedena asmetan da
ariztiko orrietan,
argiaren len dirdirak
jarri ditu zidarretan.*

EZKORTA

*Ezkortako ate zarra...
sendoa eta gogorra,
ardi ta bildotsentzat da
ama ate maitekorra.*

*Zenbat bider zaindu ditu
azkonar ta azeripetik,
zenbat bider askatu dauz
odolezko eriotik.*

*Gaur, pozez, goiz, zabaldu da
argia mendirakeran,
bazterrak alaitu dira
argi printzen goitik beran.*

LILLURATU DAU

*Argi, urdin, orlegia
bat egin dira zelaian,
ardiak sal tari doaz,
pozez, askatasunean.*

*Bedarren puntak moztuaz
gaillurreraiño doazi,
an goian, dago bedarra
gozotasunian nausi.*

*Zorioneko artzaintza...!
Zorioneko mendia...!
Max, zure edertasunak
lilluratu dau bizia.*

PA GOA

*Pagadi ta arizti
goraka datoz mendian,
sei kana t'erdi ba ditu
pago nausiak gerrian.*

*Arrituta dago lurra
semearen lodiagaz,
urreak balio ditu
bere mamin zuriagaz.*

*Gaur da bere jaiot jaia,
pago, aritz ta gorosti,
guztiak deituta dagoz
jai ospatzera maiteki.*

ZER DIRUDI... ?

*Goiza, urdin urdin, dator
jaiari jagokon eran,
ume, gazte ta nagusi
alkartasun jatorrean.*

*Pagadipeko zelaia
gertu dago gerizpean...
ui; arda, txakolin gorri
era danetatik aukeran.*

*Jendetza alaitasuna,
irrintzi bizi artean,
Bilbo dirudi mendiak
Maxaren gain babesean.*

ERES

*Pagadi eta Urkidi
Arizti eta Lizardi
era oneko abestiak
ekingo dautse kantari.*

*Lrilik dago mendia
arrigarriak entzuten,
dardaraz dago lur oro
kantu ezitia xurgatzen.*

*Txaloka dago jendia
mendiko eres batzari,
gure zugadi nausiak
omena egin Maxari.*

ERESTALDIA

*Uriako abez-batzak
an beian, geratu dira
gabaren gabe erdian
lo-gureak eratxita.*

*Mendi goiko pagadiak,
belarriak eratuta,
brontzezko eukan abotsa
aizeagaz orraztuta.*

*Lizardik eta Ariztik
izar abotsak eukezan,
eguzkiko dizdizeraz,
zoli zoli, printzatuta.*

GORAGO IGON

*Gorago igon ioranez
ta ederrago da mendia,
argi eta ikuspegiz
bikaiñago da maitia.*

*Nork egin zaitu ain eder
toreen arteko lorea,
nork egin zaitu ain lerdin
aritzen kabi maitea...*

*Zerk egin zaitu orlegi
bedar ala ide saillak?
Zerk jantzi zaitu ain lirain
pagoak ala aritzak...?*

ILLARGI TA LUR

*Illargia eta lurra
biak dira zer illunak,
biak dagoz dindilizka
indar eskutuz zainduak.*

*Illargia dator gabaz
lur baltza argitutera,
lurrak, pozik, onartzen dau
emazte baten erara.*

*Illargiak amaiketan,
ate danak zabaldua,
dubako printz urrekin
argitzen dau lur guztia.*

LURRA GABEAN

*Ozkarbi egon zerua...
Illargia kilin kalan,
berezko apaltasunez
agurka mendi ertzean.*

*Iñorengandik artuta
jantzi apalagaz dato,;
eguzkia legez, dizdiz,
gaiñik gain, tontorrik tontor.*

*Ez dauka adarkadarik
ta maitasunez jesarri da
Maxaren tontor gaiñean
agurtuz Euskalerra.*

KONTU KONTARI

*Illargia eta lurra
biak dira txit apalak,
iñoren argiaz dabil,
gabaz, argitzen bazterrak.*

*Mendi, ar^su eta ibai
gabeko ordu batetan,
maiteki, begira dagoz
ortzira antz dizdizetan.*

*Maxa ez da azkenengo
edertasun aratzetan,
Bizkaiko mendi ederra
bikaiña zara lurretan.*

ARRITU ZAITEZ

*Eguzkia eta lurra,
arritu zaitetz Joana,
adiskide aundi dira
gora ta bera begira.*

*Eguzkiak zeru goitik
printz gorritz jantzi dau lurra
ta Maxak eskeñi dautso
urrezko aritz eskurra.*

*Eguzkia jaun aundi da:
lurra amandre apala,
biok, pozik, sortu dabe
urrezko alkartasuna.*

GORA ADI

*Maxa zerura adi dago,
"emen zure mirabea" ,
lur edertasun guztia
zeru goitik jatxia da.*

*Maiaren eder zabala
Urko eta Etxebarrik,
gogotsu, zainduten dabe
biotzaren barrenetik.*

*Ain da eder, ain da galant
gure lurraren biotza,
ama lurri eusten dago
basoetako Usertza.*

TALA

*Tala-goi ederragorik
ba ete da mendietan...?
zure irudia niretzat
bakana da goieratan.*

*Arpegiz zara liraiña
baserri zuriz jantzia,
lepoz zara indartsua
bedar orleiz estalla.*

*Goian dago zure itza
eusko mendien garaitza,
talarik tala ibiliz
zu zara zaleen ardatza.*

URRETXINDORRA

*Tala garaian egoan
urretxindorra kantari,
Bizkaiko txori guztiak
zoramenenez adi adj.*

*Ametsezko tala artan
deika egoan txoria,
elez, margoz eta kantuz
arriturik izadia.*

*Pozaren pozez mendiak,
danak talara begira,
Oiz, Anboto, Urkiola
begiz doazi Maxara.*

ERES

*Tokirik egokiena
zein izan ete zeikean
Abes Batza ospatzeko,
galdez, chuzan aidean.*

*Erri, zelai ta mendiak
euken ortarako itza,
zioak, ondo, aztertu
ta agertu eben abotsa.*

*Leku ederren artean
bat zan tala egokia,
ta auterkiz aukeratu eben
eusko Max zoragarria.*

MAXARA DOAZ

*Alderdi guztietatik
egazkin bidez aidean
ba-dator jende ugari
Londondik ona bidean.*

*Geroz, beste asko datoz
Bruselas eta Paristik,
tarrant eta berezibillez
Maxa ezagutu nairik.*

*Eta txirrindulariak
gurpil bire ibilleran
Indurain nausi zalarik
agertu ziran goi talan.*

TALA ALDEA

*Ba doa tala aldea
jende alai, inguratzen,
bide zidorretan zear
irrintzia da nausitzen.*

*Ume, gazte ta nagusi
Maxak dakar, beregan,
Euskalerriko jendea
ba-doazi artistengan.*

*Mendi egal eta gaiñak
uri aundia dirudi,
jende izkuntz eder guztietan
euskal mintzaira nagusi.*

ABESLARIAK

*Pagadi ta ariztiak
agiri dira bitsean,
sorkaldeko urre printzak
dizdizari orrietan.*

*Urretxindor abeslariak
abotsen soiñu erara
jarri dira zugatzetan
eguzkiaren gisara.*

*Zuzendariak emon dauz
kantaren doiñu senak,
ta iru mille abeslarik
urratu dabez ezpanak.*

AUZODI MENDIA

*Auzodi mendia, ernai,
talara adi guztiak,
eresiaren ederra
artzen, zabal, belarriak.*

*Urretxindor eres-batza
papar lorak arrotuta,
gora ta gora doa
txalo otsak zoratuta.*

*Kantuzko alkartasuna
zabaltzen doa mendian,
mikrofono biurtu da
aizea goi zabaldian.*

ABESLARIAK

*Kanturik kantu, obeto,
entzuten dira soiñuak,
zerua, geio, betetzen
abeslarien goguak.*

*Mendidi eta ballarak
ederraren ederragaz
birloratuten doazi
kantu aspertu eziñaz.*

*Iru milla urretxindor
danak, ots baten, kantari,
zeruak, dardaraz, daukez
gogoz, entzuten eureri.*

MENDI APAIÑA

*Zuzendaria zuzentzen
abeslariak abesten,
abesti edertasunez
danak batera zorutzen.*

*Danentzat tala bat dago
eguzpikoko bitxia,
ludiko mendi artean
Euskalerriko loria.*

*Ta zu, Max, mendi liraiña,
urretxindor abi zara,
erti garra zabaltzeko
euskotar mendi apaiña.*

ZU, MAX...!

*Zu, Max, zoragarria,
itzik ba-ete da gero
zure edertasunaren
barri giro azaltzeko...?*

*Zure itun ta errekak
arkaitz azpian sorturik,
arri artean dantzari
doaz zorabiatuak.*

*Mendiaren goi ta beian
apaiña zara paparrez,
gaiñik gain zelai orleia
olermenaren ederrez.*

ARRATS BERA

*Arrats bera, on, dager:
Eguzkiaren indarra
goitik berantz doalarik,
gima maitetsua da.*

*Iru milla urretxindor,
bat hatean, asi dira
euskal soiñuak abesten
entzuleen gogo bizira.*

*Ixilik dago mendia,
ixil ixil, dago lurra,
mendiak arrituta
damotse zori agurra.*

INGURUA

*Ingurua, baten, dago
abestien zoramenez,
abots danen batasunak
ezti mailla jo dau urrez.*

*Zeru goia eta lurra,
goi urdin ta he orleia
txaloka gozartzen dagoz
abes batzaren ertia.*

*Erleak, aidez, doazi
ego gorriz agurtuaz,
karta Euskalerruari
Maxaren edertasunaz.*

ZURR UNBILLOA

*A sarretu da aldia
arrats beraren erdian,
txoriak aldraka iges
aiz. otzaren bildurpian.*

*Zurrunbilloa sortu da
ur guztiak naasituz,
itxasoa, dardar, dago
argia gau baltz biurtuz.*

*Tximistak eta dardarak
zabaltzen doaz ortzirantz,
gero ta lamin geiago
ugaritzen da mendirantz.*

BAKARDADEA

*Oi baserri urtetsua...!
Sarri, pozez, eguzkitan
babestu dozuz semeak
arrats bera samurretan.*

*Gaur itxasotik asarre,
mendiak dagoz negarrez,
ta suzko tximist indarrak
jo dau lurra zoritxarrez.*

*Mendi magalean zagoz
bakar ta ixilik,
aurrez ikusten dituzu
egalariak erdi-illik.*

ORTZAK

*Ortzak agertu dauz otzak.
Arratsaldeko lauretan
gau biurtu da eguna
aize otzaren miñetan.*

*Bildurrez dago lur oro.
A sarrez dago ontzia
bere gorroto guztiaz
zapaldu nairik mendia.*

*Illun, odei ta tximista
alkartu dira ortzian,
irurak alkar samintzen
gabeko inpernu gorrian.*

IZADIA LOTAN

*Izadia, lotan, datza
gau otzaren bildurpian,
kezka doaz ordu latzak
gau miñaren azpian.*

*Txakurrak, uluka, dabiltz,
gaba bereak egiten;
gauago ta gogorrago
izadia ikaratzea.*

*Zerk dardartu dau loa...?
Zerk minberatzen bizia...?
Zer ete dator ortzitik
zuTitzen mendi orleia...?*

TR UMOIAK

*Goizaldeko trumoiak
ez dira ale gozoak,
txinpartaz nastauta datoz
gau sekenaren otsak.*

*Oi gau otzaren ametsa...
egi biurtu gabea...
eskez dator gizona
trumoi dar clara artean.*

*Aurrera Jainko semea...
su berotara goazen,
indar nekepetu orrek
a^ginduz poztu daitezzen.*

OIÑEZTUETAN

*Etxeko ateak zabal
maitasunaren garretan,
zeru atea zirudina
baserriak gau aretan.*

*Eskale ta baserritar
bat egin ziran apaltzen,
nekea ta esker ona
zeru goiak bedeinkatzen.*

*Baserri maite aretan,
gabaz, sortu zan zoria,
eskale ta ongillea
gurtzen Jaungoiko maitea.*

APARIA

*Gizonetik gizonera
maite gima izan da,
eskalearen gosea
janariz ibituta.*

*Eskalearen bitartez
zerua bera sortu zan,
eusko basetxe maitian
negu baltzeko edurtzan.*

*Jainko bera artu eban
eusko baserri aintzatsuak,
illuna argi biurtuz
apariaren gozuak.*

LOTARA

*Ukullu barrena nai dau
eskaleak lotarako
Belengo Jesusen antzo
epeletan, lo eiteko.*

*Anai biotz eragiña
asmatu eban barnean,
nik anacia zelan itzi
saminpean dagonean...!*

*Zatoz, zorionez, lagun,
artu eizu oi zuria,
lo gozoa ein dagizun
atseden bakez betea.*

GIROAREN EDERRA

*Oi giroaren ederra
etxean asmetan dana...
on egiñaren gau poza
sartu da etxe barnera.*

*Danak dagoz zorionez,
lo gozoan an, atsedentzen,
anai arteko bizitza
zeruak dau bedeinkatzen.*

*Urkullu barrenean lo
bizitzaren goramenez,
oi zurietan atsedean
eskalearen omenez.*

ZURI ZURI

*Gaba luzea izan da...
Oiñeztu eta trumoiak
dardaratu dabe lurra
gau bakearen etsaiak.*

*Gaba, batean, joan da
suzko oiñeztarrietan,
baiña lurra ezin sutu
edur aundi zurietan.*

*Jausi dira jaustekoak
zulo danak zuriturik,
metro bat baiño geiagok
lur guztia zapaldurik.*

OTOIZT U

*Eskaleak, gizonkiro,
eskertzen dau etxe jauna,
oi zuriaren ederra,
iñola, aztu eziña.*

*Gizona beraren baitan,
zoriontsu, aurkitzen zan,
uste onagaz artzea
gau baltzaren edur-gintzan.*

*Baserritar jokabideak
sendotu eutson fedea,...
biotzez nai izan eban
otoiztu "Aita gurea"*

ESKERRAK

*Eskale kristau jatorra
eta basetxe sendia,
Jainkoak alkartu zitun...
zeruaren irudia.*

*Zelai zurira begira
Jainkoaz alkartu ziran,
otoi onena egiten
edur zurizko aldarán.*

*Esker miñak, jaun andreak,
zuen maitasuna gaitik,
Eskerrak Jaungoikoari
sinismenaren bidetik.*

ED URTZA

*Edurtza negargarria...
etxe, baso, zelai, mendi
metro bateko edurtzan
oro dago zuri, zuri.*

*Biderik ez dago iñon.
Eskale gizon jatorra,
nora zoaz era ortan
edurrez dana josita.*

*Oi!, gelditu zaite gugaz
edurrak urtu artean,
geroago joango zara
lumen agertzen danean.*

GELDITU ZAITE

*Edurtzerik edurtzera
ez zan ixildu trumoia,
egunez, zuri, jausten zan
gabeko ots dardaria.*

*Gelditu zaite gurekin
edurrak urtu artean,
bizia ez daizun galdu
edurren atzaparpean.*

*A diskidetz a barria
sortu eban edurtzeak,
on egiñak sortu zitun
zorioneko urratsak.*

EDUR ZURI

*Egunak joan ziran ta,
aldi barriak etorri,
itsas zuria zirudin
lur guztiak otzanki.*

*Baserria, ixil ixil,
edur zurien azpian,
biziaren ziñaldari
txakurrak, zaunka, atian.*

*A ittitte su ondoan ta
illohatxoak alboan...
egur beroa sutan ta
leoi zuria soloan.*

EDURRA DATOR

*Maxaren gaiñean dagoz
maxatar begiak zoli,
ikusten diren mendien
zuritasun siñezgarri.*

*Ontzi guztia, illun, da
basamortuko gau antzo,
metro ta erdi edurrez
lurra estalduta dago.*

*Zuri alai poza da,
baiña edurrak estalduta
lurraren zorI guztia
otz mindun biurtu da.*

NUN DAGOZ?

*Maxa, nun zagoz maitea.
Bizkai Gipuzku mugetan,
bart zuriz jantzi zaitue
metro eta erdietan.*

*Berezko apainduriz
ain ederra zaralarik,
erruki bage edurrak
samindu zaitu bizirik.*

*Ederretan eder zara
mendi askoren artean...
ederrago, jantzi ori
itxaso biurtukeran.*

ODEI ILLUNAK...

*Ortzian odei illunak
samintsu, dagoz goizian,
ulua bat entzuten da
arkaitz zerien azpian.*

*Erbiak bildurrez dagoz
atxarteko zuloetan,
ai! zer ete da ekaitza
arerio eskuetan...!*

*Arerioak belarria zur...
biziak iruntzi nairik
lur oro dardaraz dago
leoi nabarrak mindurik.*

EGAZKIÑA

*Egazkiña kokatu ta,
ain zuzen, Maxa-gaiñean,
ta ni bertan nengoan
edur zurien artean.*

*Bizitza egun bakana,
arrigarririk ba-dago,
lur danak zelai zirudian
geroago ta otzago.*

*Leoiak estaldu ziran
ar-zuloen barrenera,
epeltasunaren billa
euli epelak bai-lira.*

ZURI ZURIA

*Gorputzak otz sentitzen dau
edur zuri zurietan,
eder zuria ta otza
ez dira lagun gaiñetan.*

*Ederrik ba-da edurtzan
zuria da garailari,
izera zuri zuria
illunaren arrigarri.*

*Begiak ezin naikotu
zuriaren zabalera,
lurra ederra dalako
apaingarri zuriagaz.*

DIRDAI

*Gau baltz dardarati ordez
Maxa agertu zan goizez,
zuriaren zuriz dirdai,
mendi zaleen zoramenez.*

*Ipar eta egoalde,
sorkalde ta sarkalde,
lau alderdion erdian
Maxa da izadi jaube.*

*Bart gabaz, ondo, lo ein da
aingeruzko agertu da
orban barik, zuri zuri,
bakearen irudia.*

EGAZKIÑA EDURRETAN

*Eguzkia agertu da,
goiz, urrezko dirdaretan,
egazkiña, pozik, dago
edur zurien bitsetan.*

*Zuri zuri, dago dana,
eztanak ez dau indarrik,
gaur; eder zuritasunak
ba-dau nork begiraturik.*

*A rranoa dabil aidean,
lotsa barik doa egaz,
lenengo agertzen dana
irunzteko goseagaz.*

AMETS ZURIA

*Ametsak amets dirudi
eta egazkiñez noa
edurrak baiño gorago
izardia ikustera.*

*A gur Maxa zoragarri,
lur ederraren semea,
zure baimenagaz noa
aberria ikustera.*

*Minduta ikusten zaitut...
Minduta daukat biotza...
Edur otzezko zuri au
ez da gure eriotza.*

EGAZKIÑEZ

*Egazkiña, berez, doa
jakituriaren bidez,
egoak zabal ditula
aizeak besarkatuez.*

*Gero ta zerbait gorago
euskal mendien gaiñetik,
edur guztien otz miñak
bota ditu biotzetik.*

*Eguzki artean dabil
zeru zabalean nausi,
edurrak baiño gorago
gora begira izarrei.*

ZER ETE DAN...

*Mendi danen goitik gabiltz
Euskalerrira begira,
ama lurra bakez dago
edur zurien erara.*

*Arri lora zuri batek
zapaldu ete dau lurra...
goizez galdezka egoan
egazkiñaren motorra.*

*Izarren azpikaldian
edurrak baiño gorago,
egazkiña geldi, dago...
zer ete dan ederrago...!*

EUSKO MENDIAK

*Aralar eta Gorbea
odolez anaiak dira,
izkuntza bardiña dauke
eusko jatorri erara.*

*Anboto eta Oiz gaiña
aurrez aur, dagoz begira,
ta Bizkaieraz mintzatzen
euskaldunen gizakera.*

*Arrizkoa da izkuntza
zar, sendo ta jakintsua,
arkaitz zurien erara
ederrez, ondo, autua.*

EDURTZETAN

*Naparroa ta Araba
Gipuzkoa ta Bizkaia,
mendi arteak zaindu dau
zuen odol jatorria.*

*Odola berebizia
artu zenduen sortzetik,
argi, zentzunez betea
eusko itur gardenetik.*

*Beste doai urrezko bat
eusko gizontasuna da,
aitzarteko lore ederra
odoletik datorrena.*

TONTORRIK TONTOR

*Tontorren gaiñik gain doa
egazkin zuri zuria,
tontorretako edur antzo
adiskide maitatia.*

*Edurra eskertsu dago
bere nai eta grazia,
eusko lurrean emonaz
barneko borondatia.*

*Zuria edertzen doa
Euskalerriko lurrian,
eguzkia, dizdiz, dago
edurraren biotzian.*

IBILLALDIA

*Egazkiña gertu dago,
beti, biotz zabalagaz,
nora-nai eroateko
jendea poztasunagaz.*

*Ain dago eder zerua...
dana izarrez beterik...
ain dago eder edurtza
zuritasunez jantzirik...!!*

*Iparretik egoraiño,
sorkaldetik sarkaldera,
zer ikusgarriagorik
ez da errez aurkitzen.*

IBILLERA

*Urtera deja entzunda,
goizez, egazkin auzartak
egoak bota dauz aidera
eusko lur zear zabalak.*

*Eusko lurralde guztiak
edur giroz lotan datza,
danez goitik doa egaz
egazkiñaren ardatza.*

*Naparroatik Bizkaira,
Gipuzkoatik Arabara,
izango dau ibillera
edur-miñen ara-bera.*

EGAZ

*Ameslari beg iraturik
zabaldi eder ortara,
begira izarretara
zeru-lurreen ederrera.*

*Egaz doa egazkiña
ta bertan ameslaria,
zerua dakusalarik
urre printz dizdizaria.*

*Urdiña baiño gorago
millinoi izar dardari,
abestietan dabiltzaz
argien Egilleari.*

ZER UA

*Euskalerriko zerua
urrezko bitsetan dago,
garbi, urdin eta aratz
itza baiño apaiñago.*

*Gorputza ez da aspertzen
edermiñaren aurrean,
gogoa saltan, dabil
argiaren printzapean.*

*Euskal Probintzi anaiak
zazpitan eder ederrak,
kapela zuriaz dagoz
edermiñez apainduak.*

EDURPEAN

*Zazpi lurralde ederretan
ez da agertzen illunik,
zuri zuri, dago lurra
alderdi guztietatik.*

*Zazpi lurralde ederrak,
bat bat, eginda egozan,
zidar zurizko mantuaz
euren bizitz egoeran.*

*Zazpirak euren egia
argi ekusen edurtzan,
izatez euskaldun gara
itzez eta odoletan.*

MAXA ZURIRA

*Egazkin zuri ba-doa
berak maite daun zelaira,
edur zuriz aurkitzen dau
ain maite daben obia.*

*Goia, urdin urdin, dago
ta lur gain guztia zuri,
maite bi aurkitu dira,
aurrez aul; alkarri adj.*

*Dizdira ederragorik
ez da, errez, aurkitzerik,
eguzkiaren urreaz
oro dago printzaturik.*

BAKEZ

*Maxa, mendi liraiñean
egazkiña kokatu da,
eta itz bat datorkio
belarrira... maitasuna.*

*Ain eder da, izan bere,
Euskalerra dana bakez,
anaiak alkar maitatzen
bizitzaren zoramenenez.*

*Edurrak argitu begiz
Euskadiren lur bazterrak,
eguzkiak berotu beiz
maiteki, giza biotzak.*

ARRANOA

*Maitezko edur zuriak
ezin egon ederrago,
zeruak apaindu ditu
beren irudi antzeko.*

*Nungo tartetik urten dau
arrano egazkariak,
baltzezko jantzita dabil
zearkatuz goi zeruak.*

*Janari billa goserik,
galdu dau norabidea,
gaisoa aidean dabil
bular guztia aulduta.*

ODEIAK IGES

*Erretolotza menditik,
goiz, agertu da aizea,
oiñeztarri bagekoa,
zirika zirika, meia.*

*Iparretik etorri da
laiño guztiak urratzen,
esku utsik jakin eban
ortzi dana orraztuten.*

*Laiñoak mendibeltzurantz
joan dira bildurtuta,
len, arro, ebiltzezenak,
ba-doaz txit makurtuta.*

GOI ORTZIA

*Goi ortzia, urdin, dager;
izarrak itzaltzen doaz
ta egun-senti indarrez
argia dator pozagaz.*

*Goizalde zoragarria...
goizeko izar oria
urdiñean dabil aidez
edur zurira begira.*

*Urrea eta zuria
edurra ta eguzkia
lurrean alkartu dira
ezteguko irudira.*

GOI URDIÑA

*Goi urdiña aratz dago
zorientasun betean,
ederra berbera bizi da
goizez gardentasunean.*

*Lurra onenean datza
ezeren kutsu bagerik,
ez zuloTik, ez sasirik,
dana batean zuririk.*

*Izadia, ixil, dago
zuri ederra xurgatzen,
azeriak zuloetan,
bildur, dira kanporatzen.*

ZER TA LUR

*Zerua eta lur gaiña...
urdiña eta zuria...
alkarri begira dagoz
maitasunaren gisara.*

*Ain da eder eguzkia...
ain da eder- edurtia...
argia dizdiraz dago
maitatzen edur zuria.*

*Euskalerriko lur oro,
iparretik egoraiño,
eguzki printza artean
urre ametsetan dago.*

NORK

*Egaz, doa egazkiña
ta olerkaria bertan,
ederraren zoramena
artzen begi biotzetan.*

*Nork egin zaitu ain eder
ortziko urdintasuna,
nork asmatu dau argia
dizdiz, goitik datorrena...!*

*Eguzki eta edurra
alkartuten diranean,
bion zorientasuna
sartzen jat begi ninian.*

SURITAN ZURI

*Gorengo malletan dagoz
edur zuriak mendian,
izadi guztia dager
bake zoriarenpian.*

*Une berezienean
ba-dator "egazkin zuri"
Maxaren gallur zurira,
ederra artzen maiteki.*

*Izadi danak dirudi
izar zuri bat oinpean,
surik bageko izarra
edurren agindupean.*

EDER -MIÑETAN

*Max zuriaren gaiñean
zorientasuna dago,
guztia eder-miñetan
ta lurra maitekorrago.*

*Euskalerrria bat ein da
edurtza zuri zuriaz,
utsik bako zuri ortan
betor bizia zoriaz.*

*Izkuntza eder bat dago
edurretan sortu zana,
mundua arritu dauna
bakan eta eder dana.*

LUR ZURIA

*Maxako lur orlegia
ederrez zuri jantzi da,
egun-sentiaren poza
zabaldu da lur osora.*

*Eder goia, eder beia,
bien tarte eguzkia,
urre ederra dario
maitatuz edur zuria.*

*Oi Max, ene lur maitia...!
zure edurren gain dago
eguzkia, urrez, dizdiz,
ederretan ederrago.*

EDERRA A URRERA

*Edurrak, aurrera, darrai...
otz eta edur barriak,
zital, dabiltz odeietan
amorruz dardaratiak.*

*Pistiak, estu, dabiltzaz
izotzaren gogorkeriz,
bizi nai eta il bear
gosearen indarkeriz.*

*Gabaz, irrintz estuetan
txabolarantz doazi,
bildotsak iruntzi nairik
ardi amen samingarri.*

IL EDO BIZI

*Txabolarik txabol dabiltz
artzaiñak lan gogorretan,
pisti etsaien bildurrez
ardi-zain borda zarretan.*

*Gaba, otza ta gosea
pistientzat ar-zuloan,
eriotzak beartzen dauz
lapurretara txabolan.*

*Gau erdia da. Il otza.
Etsaiak datoz lanera,
artzaiñak dinbi ta danba
bost bota ditu lurrera.*

AZERIAK

*Ben benetako zigorra
izan zan, atzo, gabean,
ainbeste azeri dagoz
odolduta lur gainean.*

*Azeriak alkartuta
etor ziran txabolara,
ardi zuriz asetuta
ezteguak ospatzera.*

*Baiña gaisoak ez eben
izurri makala croan,
begira zer agiri dan
txabolaren inguruan.*

TXABOL INGURUAN

*Ardiak, berotan, datza
tiro otsen bildurpean,
sei azeri sendo dagoz
il-otzik edur artean.*

*Ate ondoko ardiak
ez dabe ikus nai illik,
artzaiña dabil ixilik,
enterruetan bakarrik.*

*Txabolako ardi amak
ume arduraz dabiltzaz,
euren alaba barriak
indartuz esne zuriaz.*

ERNAI

*Mendi dana dago ernai,
ilketaz dardaratuta...
iñor ez da ausartuten
ilkizunak egitera.*

*An, urriñeko lezetan
uluak entzuten dira,
edur zurik estaldurik,
oro negar eriora.*

*Anaiak ilda negarrez,
artz eta azeriak miñez,
umiak daukez galdezka:
zer jaso da zoritxarrez...?*

ETSAIKERIA

*Txabolak eta mendia,
gallurrak eta leizea,
oro larri, larri, dago
erioz ikaratuta.*

*Gorrotoz dagoz barnean
erio usaiña artzen,
azeri indarra dabil
gorroto miñak gogortzen.*

*Ixilik, baiña, okerki,
euren asmoak darabillez,
gau baltzezko egun baten
oro bestuz zoritxarrez.*

ESTALDUTA

*Egunak, aurrera, doaz
ta edurra ta gosea
gogoa; indartzen doazi
zoritxarraren tajura.*

*Egunezko edur latzak
gaberako itzalgarri,
trumoia ta oiñeztua
gabaz, dira bildugarri.*

*Oi!, neguaren gogorak
bildurtu ditu bazterrak,
itsurik dago lur dana
estalduta zoritxarrak.*

PISTIAK ASARRE

*Urdail gosez piztu dira
azkonar, artz ta azeri,
danen artean nai neuke
zer diran adierazi.*

*Bazterrik bazter dabiltaaz
bildotsak, nun, ete datzan,
erailketa mingarria
bardinduteko ustetan.*

*Gorrotoa, bizi, dauka
meatxuzko gogoetan,
orduari begiraturik
aserrezko guraritan.*

BURRUKA ORDUA

*Iskanbilla ordua da.
Goizaldeko ordu-biak...
zur; dabiltezaz azeriak
t' curen lagun azkonarrak.*

*Goitik bera azkonarrak...
betik gora azeriak,
gertu dago burrukea
orduaren zai etsaiak.*

*Gau aroa, illun, dago,
lur guztia, zuri zuri,
txabol zarraren giman
bosteun ardi guri-guri.*

B U R R U K A

*Ordu-biak puntu puntu,
azeriak asi dira
erpeka, gogor; atean
gorrotoz amorratuta.*

*Ta bat batean artzaiñak
atea zabaldukeran,
tiro ta tiro dabiltezaz
borda ondoko zelaian.*

*Bat, bi, amaika azeri
etzunda dagoz lurrean,
geio ez dira jaikiko
usteldu arte aidean.*

ILKETA

*Ingurumari larria...
ilketaren oiartzuna
eldu da mendi guztira
etsai akerren artera.*

*Lengo ausardikeriak
moteldu cifra zuloan,
ixilik dagoz bazterrak
edurtearen menpean.*

*Edurrak, aurrera, doazi
ta pistiak, gosez, larri,
ai! zoritxarraren miña
sartu jako pistiari.*

ARDIEN POZA

*Txabol zarreko ardiak
kantu gogorretan dabiltz,
artzain maitiari eskerrak
zorionaren poz biziz.*

*Azeri indarrak auldu
ta kendu dautse indarra,
ardiak, pozik, dakuse
etsaiaren ezbearra.*

*Poza dario ezkortan
ardien kantu zoliak,
hata-bestera darabiltz
barruko poz eragiñak.*

AZERI TA PISTI

*Azeri ta pisti zarrak
geratu diran banakak,
estu ta larri dahiltzaz
gosez ta aul gizajoak.*

*Gosearen gosez, larri,
ta urten egin hear;
beti, ardi usaiñera,
ixil ixil, bide zear.*

*Au, egiz, ordu larria,
gosea kendu nai eta...
dinhi ta danba artzaiñak
ezarri dautse balea.*

AZERI INDARTSUA

*Lur gaiñean geratu zan
azeri indartsuena,
lau ankak, zabal zabalik,
ta burua lur jota.*

*Azerikerí guztiak
austuta itzi zituan,
odol gorriz, ondo, gorri
adurraren izozpean.*

*Gau baltza azerientzat
edurraren altzo zuria,
bizia zaindu nai eta
eldu da eriotzia.*

EDURTZA

*Edurtzak sendotzen doaz.
Denporalak ez dau gura
atzerarik egiterik...
biotz gogorrez jarri da.*

*Mendi inguru guztiak
otzez izoztuten doaz,
gosea ta miseria
naustu dira inguruaz.*

*Zugatzeetan dindilizka
urrezko kandelak dagoz
zugatz adarrak miñetan
edur otzaren jarioz.*

GUDARANTZ

*Azken burrukea dator
gose miñak eraginda.
ezin geiago iraun da
guda dator edurtzara.*

*Artzak eta azkonarrak
politik jokoan doaz,
alkarregaz indartuta
zerbait lortzeko asmoaz.*

*Makal aldietan lagun,
bazkal orduetan etsai,
munduaren jokerea
pistiak be onartu nai.*

G UDARANTZ

*Goseak dardaratu dauz
azeri leza zuloak,
sei egun ezer jan barik...
jaiki gora aiskideak.*

*Mendi egal danetatik
aurrera... oin ta bularrak,
il edo bizi guazen
menpetuz ardi azurrak.*

*An, goian dago txabola
ta bertan ardi gozoak,
geuriak dira geuriak
lanazko ardi zuriak.*

GUDAKETAN

*Azeri ta pisti oro
gertu dagoz eskutuan,
jo ta keia, bat batean,
emoteko asmoetan.*

*Abots bat entzun zan
garratz...*

*azeri ta azeritarrei
gudara deika mendian...
zagoze guztiok ernai.*

*Ixilik, dago zerua,
ixilik dago edurra,
ixilik dago guztia
bildurraren dardarara.*

AZERI GUDA

*Azeri arra jaiki da,
il edota bizi deika,
odolik ba da guregan
urten guziok gudara.*

*Ospeak eskatzen dausku
gosearenn aldi onetan,
bordarik borda joan ta
indartutea ortzetan.*

*Jaiki, jaiki, azeriak,
leza zulo danetatik,
geuria da ta garaitza
edur guztien gaiñetik.*

GUDA OTSA

*Mendi egal guztietan
guda soiñua entzun da,
era guztietako pistiak
ba doaz guda otsera.*

*Gudarozteko nausi lez
azeri arra gidari,
txabolak jausiko dira
men egiñez indarrari.*

*Ixilik doaz gorantza
mendiak, ondo, zainduta,
gero ta oldartsuago,
geuria da-ta garaitza.*

BURRUKA GORRIA

*Txaboletan ardiak lo
neke atsedean gozotan,
azeri pistien poza
arro, dabil asmoetan.*

*Txaboletatik, ur; dagoz...
arnas otsik ez da asmetan,
ardien errukarria
azeriaren ustetan.*

*Batera eldu nai dabe
ezkorta guztietara,
mendiko guda gogorrak
ots egin daian ludira.*

GUDA GORRIA

*Txabolen, aurrez aul; dagoz
eundezka pisti zakarrak,
iruntziko leukezela
auntz ta ardi guztiak.*

*Urten bai urten artzaiñak
gogorik ba-daukazue...!
Azeri deadarra zan
gorrotoz beterikue...*

*Ateak zabaldu dira...
eta gizonak, zur, dagoz,
txabol aurre inguruak
ez dagoz orio gozoz...*

ORDU SAMIÑA

*Eldu da ordu samiña
gabeko orduetan,
azeriz inguratuta
ardiak mendi gaiñetan.*

*Artzaiñak, zurki, egozen
ardizaintzen txaboletan,
bildurra biur zan oldar
ta adore biotzetan.*

*Odolak diño, aurrera...
geuria da ta geuria
gure ardien bizia
lanetik sort-erazia.*

ARROTU ZIRAN

*Ez egon otz ikararik
gabeko edur artean,
azeri, azkonar, artzak
su eta gar ebiltzezan.*

*Etorri, arroak, etorri
guda saioa egitera,
gaur, negurtu bear dira
trebetasun ta indarra.*

*Ez egon atzerarik ez,
il edo bizi egitan,
pistiak arrotu ziran
gogor, edur zurietan.*

*Illuna, gaba, edurra,
ta azeri amorrua
artzaiñekin aurrez aurre,
biztu da gudaren sua.*

*Azeri bildurgarria,
txabolak, inguratuaz,
ardiak iruntzi nairik
ateei aginka dabiltaaz.*

*Etsaigoa gogorra da.
Txabol ateak dardaraz,
noz, jausi ete leikezan
azerien gorrotoaz.*

ATEAK

*Txabol zarreko ateak
dardaraz agiri dira
eta ardi-zaiñak, herian,
azerieri begira.*

*Bildurrak ez dau balio,
ta une aretan bertan,
asi bear dau burrukak
abere ta artzaiñetan.*

*Illunak ez daki zer dan
arpegiaren zitala,
ta ez odolaren garra
gorrotoa dariola.*

ELDU DA ORDUA

*Txabola zar guztietan
eta une berberatan
zabaldu ziran ateak
gorrotozko ezpatetan.*

*Azerien gorrotoa
zitala zan begietan,
agoa eta aginak
iruntzi naiko garretan.*

*Ez ekien guda zer zan,
buru ta agin bear dira
ardiak menperatzeko
gosearen ariora.*

DINBI TA DANBA

*Zabaldu txabola oro...
zuen ate zaindariak,
orra, zenbat etsai dagon
pisti ikaragarriak.*

*Ots baten, ateak zabal
eta metrail iskilluak
asi dira, dinbi danba,
lurreratzen azeriak.*

*Aurrera doa ilketa
ta pistiak itsuturik,
euren gorroto bizian
ez dabe ikusten illik.*

*Ardiak, ixil ixilik.
Zer ete dabil edurtzan,
galdez dagoz euren baitan,
izugarritzko iraultzan.*

*Aurrera doa burruka.
Gaba asi da negarrez,
odol gorritz ikusirik
edur zuria samiñez.*

*Gero ta gitxiago
ta odola biziago
darabille azeriak
ta gorrotoz gogorrago.*

MIN MIN

*Gero ta miñago doa
gudaren ilketa latza,
zazpi zortzi pisti zar,
bakarrik, geratzen dira.*

*Edurtzarik aundiena
gorritu da odolagaz,
ta azkeneraiño darrai
etsaiak gorrotoagaz.*

*Artzaiñak, neketsu, dabiltz
baiña, pozez, indarturik,
mendia garbituz doa
azerien izurritik.*

AZKEN ISKANBILLA

*Bitzuok dabiltz gogotsu
azeri ta artzaiñak,
azkenengo iskanbillak
entzuten ditu mendiak.*

*Jausi dira jaustekoak
azkonar; artz ta azeri,
abere bildurgarririk,
geiago, ez da agiri.*

*Odeiak, samintsu, dagoz
begiak zabaldu nairik,
gabaz, Maxan zer jazo dan
jakin gura leukelarik.*

*Lurra bere jira-binan,
ba doa eguzkirantza
eta goizeko izarra
agertzen da lurrerantza.*

*Len izpiak bildur dira
agertzen mendi gaiñera,
gabaz, ainbeste karrazi
eldu bait ziran ortzira.*

*Goia, urdin urdin, egon.
Mendia, dana, lotsatuta,
bake itza emon nai ta,
dana dago odolduta.*

ERIO TZ ERPETAN

*Geroago ta argiago,
eguzkia, dizdiz, Maxan,
zuloetara begira
azeririk ba ete dan.*

*Zulo danak, utsik, dagoz,
txaboletara jun ziran,
ardi odola xurgatzen
goizeko ordubietan.*

*Aren gorroto zakarra
euren eriotz biur zan,
bat bera etzan geratu
eriotzaren erpetan.*

MIÑEZ

*Edurra otz dago, miñez,
zeruetara begira,
bakea, betor; eskatzen
ardien txaboletara.*

*Amaitu dira burrukak,
metraíl otsak joan dira,
betirako, inpernura,
aize gorriak artzera.*

*Eguzkia ta edurra
besarkatu dira goizez,
zin bat egin dabe biak
mendi ta ardi omenez.*

BAKARDADEA

*Oi bakarde samiña...!
Oi azerien itz miña...!
Lur gaiñean ilda dago
gogorkerien zorgiña.*

*Edurtea, lotsaz, dago
odolaren odol gorritz,
ainbeste eriotz miñek
ilduratu dabe zauriz.*

*Alderdi guztietatik,
dana bizia galduta,
odola besterik ez da
edur dana gorrituta.*

GAU MIÑA

*Gau miña, larririk ba-da...
Azeri maltzur gogorrak
igon eben aldatz gora
odolduten ardi amak.*

*Baiña, gaizki, urten eutsen...
ardi ta bildotsen orde,
eurak izango il-gaiak
asmo aren zoritxarrez.*

*Asmo aren txarkeriaz
lur oro dardaratu zan,
ta jausi zan odolagaz
eguzkia gorritu zan.*

DARDAR

*Ardiak dardaraz dagoz
eta bildotsak bildurrez,
zer jaso ete dan gabaz,
gogoz, onartu eziñez.*

*A inbeste agin zaratak
inpernua zirudian,
aren birao guztiak
ausirik orma ertzian.*

*Ta zuk, txabol jagolea,
tinko, jarraitu zenduan,
etsalgo gogor aretan
Maxako edur gaiñean.*

POZ BIURTU

*Ardiak, bildotsak ta auntz,
lo zorrotik urtekeran,
euren artean oroitzen dabe
jazo dana goizaldian.*

*Gabeko bildur dana
poz biurtu da goizian,
ardi, bildots ta auntz oro
bizirik dagoz mendian.*

*Otoi eiten ba-lekie,
artzaiñak gurtuko leukez,
luzarorako zor dautse
bizi itza zoramenez.*

L URMEN

*Edurrak urtzen doazi...
urdin dago itxasoa...
ta lurmena agertu da
oriei zoragarrikoa.*

*Or; emenka, lur guztia
arriturik dago goizez,
edurren agurtukeran
ikusten dabenez lurrez.*

*Izugarrizkoa bai da
txaboletan jazo dana,
pistien gudaroztea
jausi da mendi gaiñera.*

PORROT

*Eraso samingarriak
sortu zituen etsaiak,
garaitzak uste izanik
eurentzat aldezlariak.*

*Begira, orain, lurrera,
ulez larrituta dago,
ez dauka bat be bizirik
urraldiak oroitzeko.*

*Azeri gorputz illotzez
beterik dago lur oro,
gudaren azken larriak
porrot usaiña dario.*

MIN BIZIZ

*Zelairik zelai doazi
artzaiñak mendi guztian,
azeri illak batuten
gurdien irrintz artean.*

*Bat, bi, iru ta lau gurdi
gaiñezka doaz azeriz,
guztiak apal apalik,
eriotzaren min biziz.*

*Nun dira lengo orroak...
nun dira arrokeriak...
erioak zuntzitu dauz
bigurrikeri gaiztoak.*

IL-KANTU

*Azeri leizera doaz
pisti gurdiak illedan,
ilkizunak ospatzera
kandela argi artean.*

*Kantuak dabiltz aidean,
errukia biotzean,
gorroto itzik ez dago
eriotza ondorean.*

*Pistiak, ixil ixilik,
il-otzik dagoz gaisoak,
artzaiñen omenak artzen
il-kantu abotsezkoak.*

URTZEN

*Eguzkia, bipil, dator;
erronkari, ortzi goitik,
mendidi guztiak urrez
egun-sentiz apaindurik.*

*Zelaien artean dago
iturria ur gardenez,
erleak doaz bertara
egarria kentzen pozez.*

*Orain ez dago bildurrik
azeri ta pizti gaitzez,
Maxa dana garbi dago
artzai sendoei eskarrez.*

GOITIK BEGIRA

*Goitik berantza begira
zer dakusue begiak...?
Ara, nun, diran zelaiak
oro edur zuriturik.*

*Zelaien artean dago
iturria ur gardenez,
erleak doaz bertara
egarria kentzen pozez.*

*Orain ez dago bildurrik
azeri ta pisti gaitzez,
Maxa dana, garbi, dago
artzai sendoei eskarrez.*

MAXATIK BEGIRA

*An beian dakust erria
edur-pean lo zorrotan,
tximiniak, ketan, dagoz
odoldun teillatuetan.*

*A ittitte dabil gardetan
eta amama goruetan,
antxe, dago zoriona
maitasunezko lanetan.*

*Katua ta mutiltxoa,
biak jolasean dabiltz,
edurtzea teillatuan
ta arek barre, poz irriz.*

MAXAREN MAGALEAN

*Edurtzaren puntan dago
bertsolaria kantari,
edur pean ikusten dauz
amaika euskal baserri.*

*Etxe aintzatsu orretan
sortu zan izkuntz gailena,
edurra legez zuria
ta eguzki urreduna.*

*Maite ditut baserriak...
Maite dot zure izkuntza,
gizonen jakituria
arritu dozun giz-itza.*

URTU DIRA

*Edur danak urtu dira
eguzkiaz joan dira
muño orleietan zear
ibai zabal luzetara.*

*Ibaiak sendotu dira
edurraren ur otzagaz,
ta besarkatuta
itxas urdiñera doaz.*

*Agur goi edur zuriak,
esker-miñetan zoazez,
onduta geratu dira
lur sustraiak zorionez.*

MENDIA

*Oi mendiaren ederra...!
laiño baltzak igeskeran...
oi egun-senti illuna
eguzkia sortukeran!*

*Ekaitzak urrindu ziran,
agur trumoi ta tximistak,
izadia asetu da
urez lurraren sustraitik.*

*Garbi garbi, geratu da
lur oro zikiñetatik,
loraz jantziko da laster
alderdi guztietatik.*

BASERRI

*Gure basetxe kutunak
edurpean egon ziran,
lau aizek inguratuta
orzaren dardarapetan.*

*Trumoa iparraldetik,
tximistak egoaldetik
dardarea sorkaldetik
ta ekaitza sarkaldetik.*

*Euskoen bizitz ardatza,
larri, egon zan edurtzan,
gaur, irriparrezka, dagoz
eguzki urre printzetan.*

BASETXEA

*Basetxe zuria dager
lau aitz aundiren erdian,
sorkalderantz begira
eguzki printze artian.*

*Lurra esorik itzi dau
lengo edurte zuriak,
munerik mune ba-datoz
udabarriko bitxiak.*

*Txakur zolia atean
lapur guztien etsaia,
zainduko leuke zainduko
txorien egazkadea.*

OTSOAK

*Otsoak, arro, ebiltzan
curen ¡bil liraiñetan,
mendien jaun eta jabe
amets ustel itzaletan.*

*Mendiak maite zituen
ta bildotsak areago,
gabaz amestuten eben
giozoko janari oro.*

*Otsoak, lirain, mendian,
txabolaldera begira,
bildotsez asetu nairik
euren urdailen gosea.*

OTSO TA AZERI

*Otso ta azeriak,
nun, dira zuen asmoak...
atzó, arroki, mendian
jan zenduezan bildotsak.*

*Ardien izu-ikara
ziñen lengo batean
odolez ase gurarik
zuen garra biotzean.*

*Nun dira leoi arreak!
Nun dira gaiztakeriak!
Erioz amaitu ziran
zuen gosezko ilketak.*

BAKEA

*Leo-arre ta azeri
otso ta artzain trebea...
amaitu dira ilketak
eta eldu da bakea.*

*Ez da lapurrik ikusten
mendiko zelai orleian,
gaizkilleak sartu ziran
betirako illobian.*

*Mendi gaiña, garbi, dago,
ixilik eta baketsu,
izurriak amaikeran
bakea dago loratsu.*

ARDI TXABOLA

*Mendian dago txabola,
ardi bildotsen kabia,
aintzazko bakardadea...
maitasun itzez betia.*

*Artzaiñak eta ardiak
kantuz dabiltzaz goizian,
etsai bageko giroa
maitegarri da zelaian.*

*Sorkaldetik, pozik, dator
eguzkia txabolara,
ardi guztiak agurka
kantu jarioz ontzira.*

AMAITU ZIRAN

*A maitu ziran tximistak,
Ixildu ziran trumoiak...
Mendietako edurrak
agurtu ditue lurrak.*

*Edur eta pisti ordezt
ortzia urdiñik dago,
argiaren dizdizeraz
lurra edertzen oparo.*

*Argiak maite dau lurra
ta lurra esker-miñetan,
zerura begira dago
maite giro ederretan.*

IKUSPEGI

*Oi ikuspegi ederra...!
Lendabiziko zoruna,
gain; zuregandik artu dot
ene lur maite kutuna.*

*Argia dabil aidean
keriza danak urrintzen,
itzalaren ordezt dator
bizi barria edertzen.*

*Mendiak eta arkaitzak
zabal ditue egoak,
argiaren eder dana
beregandu daian lurrak.*

ZABALDIA

*Zabaldia, pozik, dager...
Bakea, urrea, itza
eder guztia dario
amairik bako bizitza.*

*Zelaiak orlegi dagoz,
bedarrak gora-goraka,
ikusmiraren ederrak
begi zoramenez nauka.*

*Sor-miñetan dago lurra
eguzkiak aginduta,
barre gozoa dario
lur guztiak urretuta.*

MENDI

*Arri, troka, arru, mendi,
arrimenetan, dagerzkuz
txoriak arriak arri
pozarren ezin asetuz.*

*Au mendiaren egala...
zoriontsua egitan,
lurra eta eguzkia
alkarturik bizkarretan.*

*Bizia dakarre biak
beartsua poztu nairik,
zorioneko laguntza
betor eguzki menditik.*

ATSEGIN DARIO

*Edurrak iges eginda,
mendia dakust garbirik,
atsegin dario lurrak
biotzaren barrenetik.*

*Aize garbi piña dabil
gozaro, bedar gaiñetan,
osakai osasuntsuak
opalduz euren egaletan.*

*Betor osasun garbia
zelaiaren orle gitik,
erritarrak adi dagoz
bizia indartu nairik.*

TXAR OL

*Txabol zarreko atea
zabaldu dira poz pozik,
bakea dago zelaian
eder-miñak zoraturik.*

*Poz atsegiñez doazi
ardiak eta bildotsak
zelaiak zear kantari...
ametsezko soiñu otsak.*

*Askatasun eguzkia
sentitzen dabe barnean,
zelai dana ikusirik,
loratsu, bake artean.*

ZELAIA

*Zelaia orlegi dago
ta bertan ardi zuriak,
atsegiñez dauka lurra
eguzkiaren izpiak.*

*Ardiak gozo-gozorik
tira ta tira dabiltzaz,
bedarra ao zapaian
gozarturik eztiagaz.*

*A skatasunean dabiltz
euren nai guztietara,
lengo etsai zatar oro
joan bai ziran lurpera.*

ARDIAK

*Jaun ta gozaro dabiltzaz
aista guztiak zelaian,
ta lurrak, opaka, dauka
eztia bedar lorian.*

*Bildurrik bage dabiltzaz
munduko mendi maitian,
artzain eta artzaiñora
dabiltz
kantuz Maxaren gaiñian.*

*Eztia darion lurra,
gozoa da bedarretan...
eguzki eta zelaia
bake urrezko printzetan.*

LA URE UN

*Laureun ardi zuri, goizez,
zabaldira doazi, pozik
lagunak bai-litzaz legez
eder ametsez beterik.*

*Zorabiotan saltoka
dabiltzaz biotz ziriñak,
tontorrik tontor naiago
jorratu anka ariñak.*

*Eguzkiaren dirdirak
poza sartzen biotzera,
ta askatasunaren leia
eldu jako odolera.*

GAIÑA

*Gain eder baten nago.
Zabalditik zabaldira,
egaz, doakit begia
ederrenak ikustera.*

*Euskalerra aintzatsua,
zure sustraietan dagoz
egi ta zuzentasuna
zure itzaren jarioz.*

*Maite ditut mendi goiak
arranoaren antzera,
egaz doakit gogoa
aberria ikustera.*

ERRI- ZALETASUNERANTZ

*Oi, zein eder dan Euskadi
errizaletasunean,
lanean dabiltz gizonak
erriaren omenean.*

*Menditik begira nago
erri arazoetara,
erraldoizko gizon zurrak
lertzen dira orretara.*

*Egaz doa adimena
erri-zaleen etxetarantz,
egia zabaldu nairik doaz
erri-zaletasunerantz.*

ZABALDITIK

*Zabalditik zabaldira
doakit nere gogoan,
euskal abestiak datoz
erritik mendi gaiñera.*

*Mendiak alaitu dira
oiartzunen eztiagaz,
erri kutsua daroe
odolen maitasunagaz.*

*Amak maite dauz semeak
eta eguzkiak lurra,
amaren askatasuna
betor eguzkiz batera.*

GA U EDERRA

*Illuntzearen ederra...
Egiz, maite dot mendia,
urdin zabal artean
ikusirik hakardia.*

*Ederra da mendi gaiña
argiaren izpitan,
dizdizka dagoz bedarrak
zidarrezko margoetan.*

*Urrindik dator bakea
illargiaren altzoan,
oro, ixil ixil, dago
maitasunezko giroan.*

ILLARGIA

*Illargi zoragarria...!
Gorputz arre zara, berez,
eta ain eder zakusdaz
argiturik zorionez.*

*Ortzia maitekor dago
ta zu, beraren erdian,
nork jantzi zaitu urrezko
gabeko ezteguetan...!*

*Lurrerantz adi zagoz
zure argi dizdizeraz,
maitetsu, dago lur oro
illargiaren munagaz.*

GAUTU DAU

*Gautu dau mendi goietan,
basetxeak dagoz bertan,
or emenka, banaturik
zelaiaren egaletan.*

*Otz kirria atsegin da
beroaren ondorenez,
izarrak agertzen doaz
zeru guztia goi urrez.*

*Illargia da erregin,
oro urrez ta biribil,
berez, gauza gitxi dana
goian agertzen da bipil.*

ILLARGI BETEA

*Illargia urrez dago
gorenako ederrean,
aize ta urak astintzen
itxasoaren barnean.*

*Illargia kezka dabil
zorabiozko bidetan,
buru garunak arintzen
putskerizko egurretan.*

*Aize erara darabil
illargiak giz burua...
auts ustela, zer daukazu
zoratzeko giz argia...!*

GOI ARGIA

*Illargi betean gagoz,
goi ta be, oro dago
urdin ta gardentasunez
ederrez zorabiozko.*

*Maite dodan basetxea,
ixilik, dago zelaian,
lau aitz aundiren erdian,
apalik, bakardadian.*

*Argiz argituta dagoz
gure basetxe zuriak,
leioan dagon neskatzak
maite dauz zelai orleiak.*

ZERU OZTIÑA

*Oi zeruaren oztiña...!
Bakarrik dabil izketan...
goitik berantz datorrela
ederrezko eriotan.*

*Basetxeak zabaldu dauz
ateak eta leioak,
usain gozoa artzen dau
etxe zoragarritzkoak.*

*Umeak kantuan dabiltzaz,
ederraren zoramenez,
illargia, pozik, dago
ume kantua entzunez.*

ILLARGITAN

*Baserria illargitan
lora bat da mendi goian,
oro dago eder, dizdiz,
auzoen goralpenean.*

*Zelaiak bedar orlegiz
eta baratz, danak lorez
bizi jariotan dagoz
baserriaren omenez.*

*Abere eta lagunak
lo aldi gozoenean
atsedena artzen dabe
illargiaren menpean.*

ILLARGIA

*Zabaldia dan ederra...
illargizko gau argian,
neuregandu al ba negi
buru eta biotzian...!*

*Izadiaren dardara
olerkiz jalkiko neuke
lurraren ertz danetara,
on utsez asetu arte.*

*Gaba eta illargia
batu dira basetxean,
alkarren maitale dira
gozatze bakedunean.*

*Zelaian dagon argia
eguzki urretik dator...
zoragarri da benetan
ta maitasunez biozkor.*

*Osasuna zabaltzen dau
goi urdiñetik lurrera,
izadi guztia dauka
esker-miñetan begira.*

*Orlegia ederrago
biurtzen da eguzkiaz,
dizdizera utsez dager
ederraren ederragaz.*

OLERKARIA

*Zelaian dago begira.
Argia dakus danetik
ta edertasun erdian
dago zorabiatuik.*

*Nor ete dago goi ortan,
oroz goitik jakintsua...
gauz onek sortzeko...
berarizko argitsua...*

*Nun zagoz jakituria...!
maitasunaren bitartez
izadia arrituik
Jaungoikozko goi indarrez...*

*Zelaia zabal en zabal...
au da gauz ikusgarria,
ortzian izar bat dago
oro su-garrez betia.*

*Maite eriotan dago...
zelaiak orleiz jantzirik,
zabaldi zoragarria
adi dauka arriturik.*

*jakintza dago zelaian,
jakituria orleian,
oroz goitik maitasuna
zelai lore ederrian.*

ARKAITZ

*Zelai gurenean dager
ametzeko aitz zuria,
eusko enda sendoaren
irudi arrigarria.*

*Aitzaren inguru dabiltz
an, goiko urdin artean,
eguzkia xurgaturik
egalariak aidean.*

*Poza darie pistiei,
argia eguzkiari,
basa fauna dago bertan,
maite miñez ameslari.*

JAUSI ZIRAN

*Leoi arre ta azeri
mendietako etsaiak,
dardaraz, euken lur dana
etsaigo samingarriak.*

*Burruka egun aretan
Jausi ziran azeriak,
arek ziran otsoentzat
triskantzak izugarriak.*

*Mendi oro gorrituta
geratu zan odolpean,
geiago ez zan entzungo
alaraurik txaboletan.*

BEDAR

*Mendiaren lur guztia
ondatuta geratu zan,
odola ibai antzera
sartu zan lur barrenean.*

*Esorik egoan lurra,
bizitza eme-miñetan,
ta eguzkia begira
lagunduz zelaietan.*

*Gora ta gorago dator
zelai guztia orlegiz,
bedarrak azten doazi
odol, eurien garaziz.*

BEDARTZ EDER

*Doi berezi bat artu dau
mendiak ekaitz ostean,
bake erioak dakar
bedartz ederra zelaian.*

*Ardi gurien ulea
dizdiz, dager mendi goian,
eguzkiak maite ditu
bildots zuriak zelaian.*

*Ardi eta bildots oro
zoratsu, dabiltz larrean,
bedar gozoei tiraka
artzain onen begipean.*

EUZKIAN

*Eguzkietara doaz
ardi-bildotsak goizero:
janari ez-tia dakar
zelai orleiak oparo.*

*Oi mendi gaiñak euzkitan,
apatz dira ardientzat,
ez-tia dario lurrak
bildots zurientzat.*

*Ardiak eta bildotsak,
biak, pozez, arrats-beran,
otso arriskurik ez da
mendi garaiko txabolan.*



Euskerazaintza, Euskerearen argia

VII.- JAKINTZAZ BETERIK ZAGOZ; EUSKERA! (EUSKALDUNAK)

*Izkuntza bakana zara.
Ez daukazu kidekorik,
munduko izkuntza artean
izaro bat zaralarik.*

*Beti, arritu dituzu
izkuntzalari argiak,
zure jakintz ta ederraz;
ain dira bardin bagiak.*

*Jakintzaz beterik zagoz...
alderdi guztietatik...
izar gorien artean
urrezko argiz josirik.*

EUSKERA

*Arkaitz ta mendi artean
sortu zan zure bizia,
arkaitzak legez berezia,
mendi antzera liraiña.*

*Izadiak emon eutzun
izkuntza sortzeko garra,
lurra ta jakituriaz
eratu zan euskotarra.*

*Ordu-ezkero bat dira...
lur; izkuntz ta euskotarra
sortzetik alkartu ziran
izkuntza ta eusko lurra.*

*Andre-gizon zentzundunak
zentzunez ibili ziran
euren aberria lantzen
eusko bizitza sorreran.*

*Gizatasunak ta lurrak
argitu eutsen burua,
eta arek sortu eben
izkuntz zoragarritzakua.*

*Euskaldunaren izkuntzak
ta eusko lurraren itzak
sortu zituen lur ontan
euskalerriko oiñatzak.*

EUSKERA

*Lui, gizadi ta izkuntza
berezko oiñarriak dira,
iñork ukatu eziñak
erri baten irudira.*

*Euskotarrak sort eben
eusko irudi antzera,
bardin hageko izkuntza
euren jauhetasunera.*

*Iñork ezin zapaldu lei
berezko eder bitxirik,
gora euskera bitxia
bizitz ederrez beterik.*

EUSKERA JA KINTSU

*Euskera izkuntz bakana,
zure edertasun ori
nundik nora ager jatzun
loradi baten irudi?*

*Izarrak izan al ziran
zugana eldu zirenak,
zeru goiko argiagaz
zu urretzen ebiltzenak...?*

*Eguzki bera ete zan,
zeru goiak bialduta,
eusko gizona lur ontan
itzez argitu ebana...?*

*Urtzi berbera ete zan
A ita onaren maitasunez
izkuntz zoragarriena
sortu nairik eusko lurrez...?*

*Birau baltz-zakarrik ez dau
euskal izkuntza garbiak;
egiz, zerutar dirudi
eusko gailenen eliak.*

*Egiz, onezko aduak
ete dabiltz lur onetan...!
buru biotzak zuzentzen
urrezko itz gardenetan...?*

IZKUNTZA

*Izkuntza arrigarriena
sortu eben arbasoak,
baso-mendiak al-ziran
zuen eskola maisuak...?*

*Sortzailleak itzi eban
beren ederra lurrean
jakituriz itzatzita
arkaitz zuritasunean.*

*Euskotar zentzudun onak,
erleak ezitia legez,
ederra xurgatu zendua
izkuntz eder baten aldez.*

IZKUNTZ EDER

*Arbaso agurgarriak,
zentzuna zan oroz goitik
izar ederra zuengan
eusko arnasaz beterik.*

*Doiak, almenak ta itzak
alkartu ziran batera,
ta euskotar gidaria
eme egon zan itzera.*

*Zerua, lurra, gizona
Santimamiñen egozan,
irurak alkar-izketan
izkuntza ederrenean.*

EUSKAL IZKUNTZ

*Zer adierazten dozu
euskal izkuntz ederra...
zure egilleari buruz...?
Zer zan aren deadarra...!*

*Zu ain jakintsua zara...
Itxaso bera dirudi
zure zentzun ertz bageak
zerua lez bizi bizi.*

*Arrano egoak dozuz
baso artetik urtenda,
on ederra zabaltzeko
gizonetik gizadira.*

OSORO

*Nork zaindu zaitu ain eder?
Nor da zure maitalea...?
Millaak urteko izkuntza,
osoro, zara urrea.*

*Zure adiskide kutunak
baserritar ta apaizak,
soloan eta aldarán
zaindu zaitue geienak.*

*Soloak eta mendiak
izan dira zure babes,
elizak indartu zaitu
izkuntzaren eder-miñez.*

EUSKO IZKUNTZ

*Izkuntza ain jakintsuak
gauz ederrak darakizki,
zentzun eta argitasuna
izanik sortze iturri.*

*Mendien edertasunak
ta soloen lan zeatzak
buruen argitasuna
agertzen dabe lorraztzat.*

*Solo ede,; landa zabal
jorra zitun euskaldunak,
izkuntza danetan goren
eusko zorakortasunak.*

ELE EDER

*Itza egoan deadarrez
beren barruti saillean,
nundik nora zan euskaldun
eskubidezko lurrean.*

*Itza zan agiri bikaiña
gure arbaso landetan,
itza ta odola ziran
eusko izarrak zaiñetan.*

*Gogoz ta gogor chillan
eusko sena lur onetan,
izerdiz sendatu eban
erri bizia lur ontan.*

IZKETAN

*Euskal ederra agiri da
izkuntzaz eta egitez,
zelai orlegiak diño:
ni euskalduna naz sortzez.*

*Ederra dager gaiñetan
eguzki izpitan parrez,
mendi orlegiak diño:
ni euskalduna naz sortzez.*

*Itxasora aditu ta
urgaiña dago zidarrez,
iz zabal urdiñak diño:
ni euskalduna naz sortzez.*

MAITATU ITZA

*Mendi, arru ta zelaiak,
ixas zabalez hatera,
izkuntza bat darabille
oroigarritzko Euskera.*

*Izarrak, alaiki, dagoz
lur ontara aditurik,
euren antzeko dizdira
euskoetan ikusirik.*

*Egia ete da lurra,
itza zainduko dozula...!!
egiz, euskaldun semea
maitatu zure odola.*

EUSKO SEME

*Eusko seme ta alaba,
begira eusko lurrari,
munduko izkuntza ederra
sortu izan ebanari.*

*Ederrak eder direla,
bat da guretzat kutuna
jatorriz artu genduan
izkuntz ta gizontasuna.*

*Gure lurreko biziak
koro bat dau gaillurrean,
biziaren goi bizia
Aita Onaren etxean.*

LANDU DA GIGUN

*Edertu daigun izkuntza
gure arbasoen eran,
ez galdu zure izana
ustelkerizko eratan.*

*Ederregia da itza
galzorientan izteko,
lurra minduko litzake
izkuntzaren kalterako.*

*Gurasoen eredua
eguzki berbera legez
argi egiten daukagu
millaak urteren indarrez.*

BEREZ JAIOA

*Begiz ezin dot ikusi.
Fedez ezin dot ulertu
izkuntzaren zapalketa
ainbeste gorrotoz itsu.*

*Zer egin dozu Euskera,
berezko legez jaioa...
zeure lur maitegarrian
alkar aitzeko bidea...!*

*Berez, sort zīñan lur ontan
goi bakezko esparruan,
ez zeunkan iñoren aurka
auparik zure asmoan.*

EUSKALDUNA

*Ixilik, maite zenduan
berezko zorion lurra,
zure indarrez landurik
mendiko ota ta lurra.*

*Basoak zelai biurtu
ta izkuntzaz lilluratu
izan zan zure gogoa
ta antxe, bizia gozartu.*

*Ondamurik ez zendukan
zeuk sorturiko errian,
gizon ta lur batu zīñen
zorionaren bidian.*

SINISMENEZ

*Bakez eta siñismenez
bizi zan Euskalerra,
egi ta fede izanik
beren elburu mendia.*

*Izkuntz kristautasuna
euskoen gidari dira,
Jainkozko irakatsia
sartu dau bere bizira.*

*Betiko egia nai dau;
gizonen poz guztia
osotu leiken jakintza,
maitasunez igurtzia.*

KRISTA U IKASBIDEA

*Milla bederatzireun ta
berrogeta seigarrena,
urte gogoangarria
"Kristau Ikasbidearena" .*

*Irarkolan barritu zan
Jainkozko idaztiño ori;
ta au arrigarria!!,
etsaiak billa doazi.*

*Siñisgeak ete dira
bilakari dabiltzenak...?
Jaungoikoaren izena
kendu nai ete gizonak...?*

EUSKERAREN JAZAR...

*Burruka billa doaz.
Nor ete arduraduna
kristauen ikasbidea
adierazi nai dabena...!*

*A sarrea noren aurka
ete doa pistolagaz...!
egiz, errukarri dira
lan orren ardureagaz.*

*Benetan gauza aundia
Jainko ítza zabaltzea,
baiña gauz bildurgarria
euskeraz irakastia.*

*Erirrik erri doaz
pistolazko prakadunak,
agintzailleen aginduaz
billatu nairik lorratzak.*

*Siñisgabeak al dira
eusko kristauen etsaiak?
Jainkozko jakituria
kendu nai ete gizonak?*

*Ausardikeria aundia
ez ete da gizonentzat...!
Jainkozko jakituria
iltea euskaldunentzat...*

EUSKERAREN JAZAR...

*Alegiñetan dabiltzaz
pistolaren laguntzagaz
euskaldun erririk erri
Bizkaia jorratuagaz.*

*Aldatz gora, aldatz bera,
ernai, dabiltzaz gizonak,
erbiak billatu nairik
arakatuz mendi ertzak.*

*Benetan zoragarria,
egun areen irudia,
pistolaz ezin aurkitu ta
argi utsezko egia.*

ODEIAK BITARTE

*Ernai, dabiltzaz etsaiak.
Erbi tokirantz doazi
kristau ikasbide billa
gogo biziz ardurati.*

*Markiñara joan ziran
Mogelen izkuntz tokira
erbia, an, ete egoan
pistolaz argitutera.*

*Baiña erri artan bertan,
odei baltz bat agertu zan,
ta bideak itsuturik
ezin iñor aurkitu zan.*

BILLA

*Euskera aurkako guda
ez da edozelakoa,
Jainko Itzaz alkartuta
egon arren izkuntzea.*

*Bidea usaindu eben,
ur, egoan erbia,
Oi! ene apaiz gaisoa,
or, dozu, aurrez, etsaia.*

*Pistoladun ta apaiz arte
odeia dator barriro
ta etsaien burrukea
lurperatu zan zearo.*

ZER OBEN EGIN DABE...

*Burrukak burruka dira
gaiztakeri guztiagaz.
Euskera, zer egin dozu
zure edertasunagaz...?*

*Izkuntzalari aundiak
arritu dozuz munduan...
ele onen jakituriz
euskaldunen parnasoan.*

*Kristauen ikasbidea
daroen orri zuriak,
zer oben egin dabe
argituz Jainko bidiak... ?*

EUSKERA TA EUSKALDUNA

*Erria eta izkuntza,
lurrez, bat izan dira,
euskeraz, emen, sortu zan
millaak urteen aigira.*

*Euskera ta euskalduna
biak dira arrigarri,
argi eta biotz-dunak
erriaren zoragarri.*

*Euzkotar egi zalea,
ongille lez onartua,
beti, izan da munduan,
maitasunez txalotua.*

IZKUNTZA AIPAGARRIA

*Izkuntza aipagarria
mendietan sortu ziran,
jauregirik ez egoan
aldi bakardi aretan.*

*Zer egoan ain argitan...!
nor zan, berez, lelnal" gla...
baso mendian sortzeko
izkuntza ain berezia...!*

*A rri, lur eta arkaitzak
zorabiozkoak ziran,
giz-buru eta irudimen
urretuteko izkuntzan.*

EUSKALERRIA

*Erri bat ba-da lurrian
gizontasun ta Izkuntzaz
bere senlan bakarra
gizatasunezko itzaz.*

*Zelan sortu izan dozu
ainbesteko edermena
argi ta zentzun darion
erritalde ain bikaiña...?*

*Adu jatorren batzuek
ete dira mendietan,
zure zentzun dana zaintzen
urre bide ziurretan...?*

EGI- ZALETASUNA

*Egi-zaletasuna dau
oroz goitik, adimenez
eta giza maitasuna
biotz barneko odolez.*

*Gizona ez da abere uts
euskaldunen alorrean,
gizonak ha-dauka zerbait
lurreko gorputz barnean.*

*Lurrezkoa da gorputzez,
baiña gogoz jainkotiarra.
gizatasunez bat einda
euskotan lora ederra.*

EGI-ZALETAS UNA

*Egi-zaleatasuna dau
euskaldunak bere-baitan,
egia da bere lurra
mendi eta zelaietan.*

*Basetxe eta eleizak
emoten eutsen argia,
eguzkiaren erara
zabalduz egi izpia.*

*Ta eusko leialtasunak
onartu eban bidia,
gizontasuna darion
urrezko jakituria.*

E USKOA

*Euskua ez dau bildurtu
egiaren erantzunak,
euskua ez dau samindu
egiaren goi indarrak.*

*Egiak askatu eban
euskaldunaren gogoa,
zuzentasunak poztu dau
erri onen arimea.*

*Egia ta euskalduna
bat egin dira lur onetan,
argizale da euskua
bizitza eskubidetan.*

ZUZENTASUN GARRA

*Egizko mendiak dira
Aitorren baratz ederrak,
usain ederrezko lorez
goitik bera apainduak.*

*Lanak eta izerdiak
zuzendu dauz baso ertzak,
atxurra da jarraileri
leunduz aldapa barriak.*

*Lanean alkartu ziran
euskotarra eta lurra,
batak besteri ezarriaz
zuzentasunaren garra.*

EGI IZPIA

*Berezkoa da legea...
Berezkoa maitasuna...
egi eder onek barik
ezin bizi euskalduna.*

*Egi izpia dama
euskotarrak nunnaitara,
gizontasunez batera
egi zuria sortzera.*

*Egia ta maitasuna
usain gozozko loreak,
gizarte eder onetan
maite ditu gure lurak.*

EUSKOA

*Euskoa zerk gizondu dau?
Erri pozak? Sinismenak?
Nun dagOZ zure sustraiak
ain zure diran bitxiak...?*

*Munduan zear edonun,
onartua da euskoa...
Zer dauka zure odolak...?
Zerk egin dau berezia...?*

*Euskaldunaren gogoa
ain zabal ta egokia...
nundik dator eder ori
zure itza apaintzera...?*

EUSKO GIZONTASUNA

*Euskaldun gizontasuna,
mundua arritu dozu
zure argiz eta itzez...
lur izarra dirudizu.*

*Nundik jatortzu sen ori...?
Gure mendiak al dira
euren edertasunagaz
zure giz sort iturria...?*

*Egiz, or, mendi gaiñetan
ete dabil goi arnasa
Euskalerria gidatzen,
beti, arduraz betia...?*

EUSKO ZENTZUNA

*Euskaldunen jas jatorra
odoletik ete dator
mendiak zear ibiliz
gainik gain, tontorrik tontor...?*

*Arkaitzak curen giarraz
sendotu ete ditue
euskoen bufar zabalak
ta eusko odol gorrie...?*

*Orlegitik ete dator
itxaropenez jantzita,
mundua argitu daben
eusko argizko dizdira...?*

EUSKO GIZATASUNA

*Euskoen gizatasuna
lur ontan jaio zīñan,
egiz ta aintzaz betea
gizona izamenean.*

*Zerutik etorri al zan
izar argiz batera
erri au goraldtu daben
goi gizatasun berbera...?*

*Lur onek egiunea
egin ete dau zeruaz...
ain gizontsu izateko
zurtasunaren graziaz...?*

ERRITAR GIZATAS UNA

*Erritar gizatasuna
nor errukitu zan zugaz...
ala billa joan zihan
zure almen guztiagaz...?*

*Ementxe, aurkitu zendun
lur beronen babesean
zerutar izar argia
zuzentzaren izenean.*

*Jainkoa zugaz egoan,
egi, argia, bera zan,
ta zuk egia nai zendun
euskaldunentzat lurrean.*

EUSKO GIDARIA

*Goi argiak argitu dauz
sarri, euskaldunen bideak
poz indarra dariela
zuzentasunezko itzak.*

*Euskoa sinisduna zan
Kristoren egi bidetan,
Euskoak ona nai eban
gizonarentzat lurrean.*

*Euskaldunak zeru ta lur
alkartzen ditu bizian,
oi, aurkitu dau zuzentza
giza bizitza aurrian.*



Eusko basetvea bakean

**VIII.- ARGIA ETA LURRA
ALKAR MAITALE KUTUNAK**

**EURIA ZARA-ZARA
EGARRIA ASETUTA**

UDA-BARRIKO GIROAN

**MARGO ORLEGIA
ZELAIETAN**

ARGI TA LUR

*Eguzkia eta lurra
alkar maitale kutunak,
izarra dago, an, goian,
urrezkoz arturik suak.*

*Lur apal eta illuna,
dantzari dabil aidean
eguzkiaren inguru,
zorionak emon naian.*

*Eguzkia eta lurra
jakituriz dagoz goian,
anaikiro biak dagoz
dindiliz, ortzi azpian.*

EGUZKIA

*Argi itz zoragarria...
ez zara berez sortua,
zu, argiegia zara
illunez artzeko sua.*

*Ludi guztira begira
zabaltzen dozu argia,
maitasun urrezkoz doa
zure dizdira mundura.*

*Zabal zara eta eder
ongille bizigarria;
lurtar gizadi guztia
adi daukazu begira.*

MIRARIZKOAK EZ DIRA

*Mirarizkoak ez dira
izar artekotasunak...
argiak, argi, darakuz
ortzi goiko ondasunak.*

*Argietan, bertan, dago
argi guztien jabea,
indarra ta maitasuna
oroz goitik dituen.*

*Izartegia eder da,
ta bertan, eguzkia,
urrezko almen ederrez
lurra zaintzeko jarria.*

SUTAN

*Eguzkia sutan dago,
beti iñoren esanez,
argi, beroa opaka,
lur illunaren omenez.*

*Eguzkia on egiten
urtzen doa, geldi geldi,
izar gorrizko argia
opaldurik gizonari.*

*Goizian, goiz, agertzen da
urdiñezko sapaipen,
lur-itxasoak maitatuz
urrezko printzen artean.*

IRU NEBA-ARREBA

*Eguzkia, ura, lurra,
iru neta-arreba dira,
Egille berak sortu zitun
jakiturizko erara.*

*Goietan izarra dago
be alde oro edertzen,
urre bola ederra da
lurraren erraiak askatzen.*

*Nik ba-daukat maiteño bat
diño izarrak, an, goitik:
oi ene luz-, baltz, ituna,
artu nagizu gogotik.*

ARGIA

*Argiak bere ederra
sortzen dau egun-sentian,
zelaian, dizdiz, egiñik
orlegizko orrietan.*

*Argia maite dau lurrak
gabaren ondorenean,
zatoz, onuski, izarra
jolasten nire landetan.*

*Eguzkia eta lurra
eztitan dagoz zelaian,
erleak aidez doazi
ezti zarraz magalean.*

ZELAIK EGARRI

*Zelaia egarritu da
beren orlei garazian,
ta itxasoa gaiñez dago
ur oztiñen leiaketan.*

*Aizea eta trumoiak
oñeztuekin batean,
asarrre dira goietan
illargiaren menpean.*

*Gaueko ontzi illuna
baretu da goizaldean,
illargiak agindu dau
zentzuna odei artean.*

EURIA

*Gaba egundu baiño len
euria da, zara zara,
ta izadi oro, pozez,
egarría asetuta.*

*Eguzkia dator gero
arratsalde heranduan,
euri ederrak eginda
lubarri zoriontsuan.*

*Lurrak zoriondu dira
mendi, zelai ta erbera,
irriparrea darie
Gorbeatik itxasora.*

EURI ONDORIOA

*Mendi arruetan bar na
erreka estuak datoz
euri ederr^oen ondoren
aldatz latzen pozkarioz.*

*Eskar utsezko euria
nasketan alkartuta,
aren ames dantzaria
saltoka dator ibaira.*

*Mendia begira dago,
beren errar zear doan
ur-zurrun saltarrarl
arrats-bera eztizkoan.*

BUSTI BUSTI

*Amets danez goitik dago
atzo arratz ta gau oro
odeiak jaurtiki eben
curia ain maitekiro.*

*Mendi gain eta arTuak,
irriparrez, urtzen dagoz;
dana ikusten dabela
maitasun pozkarioz.*

*Aritzak eta gastaiña,
Euskalerriko zugatzak
giarratuten doazi
lur esoari eskerrak.*

BUSTIA

*Euria, lurreen ametsa,
garaziz, etorri zanean,
izadi dana poztu zan
zeru goiaren aurrean.*

*Arrezkero, ba-dirudi
eskerka dagola lurra,
mendi, troka, arru, ibar-
ta goiko arkaitz zuria.*

*Anaitasun ederra dau
lur- guztiak bere-baitan,
erabat maitatzen dira
zorioneko itzetan.*

IRU IZAKI

*Eguzki, bustia ta lurra,
iru izaki jatorrak,
alkarri begira dagoz
euri ederren lagunak.*

*Euria dabil izketan
lurra bedeinkatu nairik,
sorkaldetik sarkaldera
lur guztia maitaturik.*

*Eguzkia dator goitik
urrezko begiz begira,
lurraren goi-beko ertzak
omenduz bere argira.*

TRUMOI ETA TXIMISTAK

*Eskar oneko odeiak
igaro ziran zeruan,
trumoi ta tximista zarataz,
izarrak bildurtuz goian.*

*Ura, bakez, etorri zan
turraren erraietara,
t' ama lur; pozik, egoan
zeruetara bagira.*

*Odei tartean, ortz garbi
agiri ziran zeruak,
eguzkia dator urrez
apaintzen ibar zabalak.*

OPARO DAGO

*Oparo dago lur oro,
egoak zabal zabalik,
udabarria eldu da
eguzkiak agindurik.*

*Goi ortzian eguzkia,
lurrean esotasuna,
alkarri laz tanka dagoz
ar^a ia ta osasuna.*

*Eguzkiaren indarra
ez dago, geldi, ortzian,
lurreraño bota ditu
urre izpiak goizian.*

*Udabarri da zelaian
ta jaia ospatzen doaz,
dana dago zidarretan
goizaldeko iruntzagaz.*

*Izarrak estaldu dira
goizaren goiz urdiñean,
ta eguzkia da nausi
baso-lur biribillean.*

*Lurra babestera dator
maitasunezko urreaz,
agindurik nausiena
buruturik beroagaz.*

ORLEGIA

*Zelaiaren orlegia
eguzkitan, dizdiz dago,
zidarrezko ur tantoak
bedar kukuluetan so.*

*Oi!, bakearen gozoa...!
Zelai oro maitasunez...
zeru berbera dirudi
orleiaaren zoramenez.*

*Nor ete da ertilari
ainbeste eder sortzeko...
nor zara jakituria
satza orlei biurtzeko.*

*Udabarrian zelaia
izadiko lorea da,
ez da zuri, ez da gorri,
itxaropen margoakoa da.*

*Danak daukaz itxaroten
txori ta baserritarrak,
bedarrak eta loreak
zabalduz bizitz ateak.*

*Bei zuri ta bei gorriak
elduko dira zelaira,
pozez, saltoka dabiltzaz
euren gurarietara.*

ZELAIA

*Ametskor dago zelaia,
beren urrezko bitsetan,
esoa ta eguzkia
lanean dabiltz loretan.*

*Goizeko pepit morgilla
eguerdian lore-eder-,
lurra usaiñez bete da
aize pinpiriñari esker:*

*Besoak zabalik dago
arizti-goiko zelaia,
iriparrea dario
eguzkitara begira.*

LORE

*Bedarrak azia maite
ta azian dago lorea,
zelai oro loratu da
hikaintasunez betea.*

*Lorerik lore doazi
egazkari pinpiriñak,
langille trebeak legez
zorroz beterik lepoak.*

*Eztia dago loretan
izateak itzatzirik,
gozo ta osakai legez
gizonentzako sorturik.*

ARIZTI-GOIKO

*Arizti-goiko zelaiak,
goiz, zabaldu dauz atea,
eguzkia agurtuaz
zabalen-zabal latekak.*

*Baserritarrak daroaz
murgoitlko txaran gora
bei, zaldi, txekor ta idi
arizti-goiko zelaira.*

*Zelai orlegi zabalak,
gaur; bai dauka eztegua,
zaldiak irrintziz dabiltz
ta zekorrak iputika.*

*Udabarrien baratzak
jakitura dagerzku,
udabarrian baratzak
maitasuna darakusku.*

*Ezbardintasuna dakar
baratza zoragarriak,
zuri ta gorrizko mar-goz
apaindurik ertz guztiak.*

*Begia zoli dago, an,
ederrena zer ete dan,
landara, lore, argia
sormen berebizietan.*

URA

*Arizti-goitik berantza
edurretan dator ura,
saltoka ta zuri zuri
baratzaren goi burura.*

*Baratzak zabaldu ditu
gastain olezko ateak,
ta ura uxarka doa,
maiteki, artuz bideak.*

*Iturriak an, oi; emen,
zoragarritzko baratzan,
tximist orratz dirudie
zidarrezko jariotan.*

*Iturri, bideak, lorak
biziz jantzi da baratza,
bedar orleiak bitarte
danak dirudie ametsa.*

*Lore artetik doazi
neskatxa zuriz jantziak,
eguzki artean, dizdiz,
daroez gorputz zuriak.*

*Lora danei begiratu,
zein ete dan ederrena,
ta itzak ezin banatu
baratzeko zoramena.*

EDERMENA

*Baratzan dagoz lau bitxi,
lau iturri zoragarri,
baratzaren kantoietan
egarrien asegarri.*

*Zugatz danak dagoz adi
euren sustrai ingurura;
urak eguzkitan, dizdiz,
baratzaren pozetara.*

*Ura, lorea, zugatza,
sendi bat biurtu dira,
gora ta gora abestuz
baratzaren edermena.*

BARATZA ERDIAN

*Baratza erdian zagoz
aritz zar, sendo, zindoa,
zure sormenaren barri
ez da errez jakitea.*

*Antxiñako arbasoak
millak urteren buruan,
ortxe, maite zinduezan
urre zurizko loratzean.*

*Zu zara euskal lurra,
Kurutza zure goiburu;
gora ta gora aritza
Kurutza dalarik buru.*

ARITZ ETA KUR UTZ

*Aritza ta Kurutza
alkartu dauz euskaldunak,
bizitzaren goiburu lez
jorrazeko lur bideak.*

*Lurra eta goi bizitza
maite ditu euskotarrak,
jgarle dala dirudi
euskaldunaren buruak.*

*Lurra ederra dalarik,
geiago, nai dau oraindik,
lur au maite dau, biotzez,
ta zerua oroz goitik.*

IXILIK DAGO

*Aritza, ixilik, dago
zeintzuk dira zure naiak...
geien, maite dituenak
zure urrezko biotzak...?*

*Guraso, emazte, seme,
oro dira maitegarri...
danentzat dozu odola,
betí, deika itzagarri.*

*Oroz goitik bat daukagu
kristauak Jauntzat lurrean,
seme-alaben poz dana
betiko zorionean.*

URRETXINDORRA

*Aritz ta urretxindorra
baratz erdian dagoz,
aritz a orlegi dager
urretxindorra gorrizkoz.*

*Ederra zara aritza
euskaldun biotzarentzat,
urretxindor alaia zara
zure maite-minduentzat.*

*Lurra zoratu da kantuz,
izadi oro dardaraz,
baratza zuri-gorria,
gaur, jantzi da zeru loraz.*

ARGIRANTZ

*Mendirik mendi doakit
nire gogoa argirantz,
egun-sentia ba-dator
egalaria lurrerantz.*

*Eguna zabaltzen doa
udabarriko zelaira,
zugatzak erne-miñetan,
laster, datoz loretara.*

*Oi! zein eder dan zelaia...!
udabarriko goizaldean...
ederragoa da lorea
eguzkiaren printzetan.*

OSORIK

*Udabarria osorik,
biziz ta lorez jantzi da,
ta mendiak mendiari,
agur, dirautso anaia.*

*Mendi bizkarrak, aurrez
aur,*

*ikusten lubarria;
neskatxa lorez jantzita
goitik beraino gorria.*

*Ez da martiri odola
lore orrien margoa,
amaren jantzi eder da
sabel barruan sortua.*

BAKEZKO ITZAK

*Udabarri ta mendia
agurtu dira goizian,
goiko ortz garbi garbian
izarrez, ñirñir, zorian.*

*Zerua orbange dago
urdintasun aratzean,
goiz bakea dirdiratuz
zelai orlei zabalean.*

*Ortzi urdin ta arkaitza,
pozik, dabiltaaz izketan,
bakezko itzak esaten
eguzkiaren printzetan.*

ZABALA

*Eguna zabalik dago
sorkaldetik sarkaldera,
mendi gaiña zabalago
aiz alde guztietara.*

*Udabarrero aizeak
ikutu daust hirietan,
osasuna ta bizia
dakarkidaz egaletan.*

*Zenbat ta oiña gorago
gorputza dot ariñago,
gaurko goizaren ederra
eldu da biotzeraiño.*

EDERRAGO

*Udabarriko zerua
atsegiña da mendian;
bola au osoturik dago
arkaitz, lur ta ur bizian.*

*Argitasunak, berez, dau
pilosopizko laguntza,
argiak dakarren pozak
maite dan giza bizitza.*

*Mendian aurkituten da
nire mintza zoriontsu,
ain eder dira mendiak
zugatz danekin loratsu.*

JAKITURIZ

*Pilosopia dau lurrak,
dana dago jakituriz,
bola osoturik dago
arkaitz, lur eta ur biziz.*

*Bolea, aidean, dabil
pilosopiaz jantzirik,
millinoi izaki dabiltz,
iñoz, asarretu barik.*

*Jakiturien jakintza,
oi; dabil izar artean,
euren artean lur maitea
eguzkiaren menpean.*

ENE BASERRI

*Ene baserri maitea,
nork sortu zaitu, or; goian...
ain zuri ta ain eder
mendiaren guenian...*

*Zer argitasun illezkor
izan eban goi-zaleak,
eguzki gain ortan
arritzeko zoramenak...?*

*Egiz, mendi zabalean
urrago ete dago
gizonaren zoriona
troka barrenan baiño?*

MENDI G UREN BASETXE

*Mendiguren basetxean
jaio zan "urretxindorra" ,
ataurreko aritzean
sorturik bere altxorra.*

*Udabarri goizian zan,
eguzki sorkera bertan,
aiskideaz, pozik, egon
ahi kutuna sorkeran.*

*Eguzkia ta sendia
agertu ziran batera,
Mendigurengo zelaia
urretxindorrez poztu da.*



Biziaren billa

IX.- MUTILTXOARI DEIA DEITUAREN ITZ AUNDIA

GOIZEZ

*Goizez, aritz adarretan
urretxindorrek kantari,
Mendigurengo zelaiak
zeru urdiña dirudi.*

*A ittitte, seme, illoba,
danak zelaira begira,
abeslariei entzuten
zoramenaren girora.*

*Ta semeak aitari itzka:
Aita, nik, noz, abestuko
urretxindorren antzera,
zoriontsu izateko...?*

MUTILTXOA

*Mutiltxoa azten joian,
gero eta ernaiago,
buru ta borondatea,
argi, zabalduz geiago.*

*A ita, apaiz izan nait dot...
urretxindorren antzera
abestuteko erriei
gure Sorlearen itza.*

*A itak, onelan, diñotso,
gauz ona autatu dozu;
baserri zoragarriak
biurtzeko zoriontsu.*

SEME IKASLEA

*Mutilla ikasten dabil...
aita-amak baserrian,
urretxindorrak dabiltzaz
kantu zoragarretan.*

*Semea, aurrera, doa
azkenengo ikaskizunetan,
aitaren ta amaren poza
lora biur da zelaian.*

*Aldatz gora dator Josu,
pozaren pozez beterik,
seme apaiz besarkada
gurasoei eskeiffirik.*

ABADE BARRIA

*Osorik eskeindu da
barru eta biotzez
Jainkozko aldarari;
nekeak eta pozak
izango dauz kurutzak
lan zoragarrian.*

*Mendi goitik begira
izar dirdiraz dakus
ortzi eta lurra;
nun ete da zelaia
ardi zuriz betea...
ain arlo ederra...!*

MEZA BARRIA

*Amets zoriontsua...
egi biurtu da
egun itxaroa;
bere esku zorietan
gorputz aldatuko dau
ogia itzetan.*

*Jaungoikozko gorputza
emongo dau janari
abade barriak;
lenen Mezaren poza
zabalduz erriari
seme on maitiak.*

OPARIA

*Mendiguren etxea,
eguzkitan, da, goizez,
baserri zuria;
guraso ta semea
poz barritan doazi
opari eskeintzera.*

*Erriak ikusi dau
bere seme leiala,
otsein biurtuta;
oparia eskeintzen
danak batera doaz
erri eleizara.*

ITZ A UN DIA

*Itz aundiena da
Jesusen izatea
aldara gaiñean;
Josu mutil gazteak
oparia eskeintzen
erri izenean.*

*A ita ta ama dagoz
uso biren antzera
opal mai ondoan;
"Au nire gorputza da"
diño Josu semeak
Jainkozko itzean.*

ZERU TA L U RRA

*Mendiguren etxea
aldara biurtu da
erriko eleizan;
erlauntz eder dirudi
kristau alkartasunak
eztizko otoian.*

*Erriarean otoia
Jaunak onartzen dautse
maitasun gartsuaz;
zerua eta lurra
bat ein dira aldaran
sinismen garragaz.*

MENDIGUREN

*Mendiguren, maite zaitut
nire odolena sustraia,
Mendiguren, maite zaitut
sinismen sort iturria.*

*Ortxe, mendi aldatz gora
ikusit neban Kurutzat
argi egiten ludira
eguzkiaren erara.*

*Lur illuna, larri, egon
bizitzaren gal-zorian,
oi ene lur zoragarri,
lagun zaitut gal-bidean.*

JOS UREN EGARRIA

*Euskaldunen lurraldea,
oi zein eder dan egia...
zabaldut zure begiak
ta artu egizu argia.*

*Egia zabaltzen doa
Mendigurengo semea,
aita-amak otoika dagoz
indartuz egi bidea.*

*Guraso eta semea
argi-zuzi bihurturik,
Jaungokozko maitasuna
darie biotz barrutik.*

ETSAIAK

*Zeru goiko argiaz
burua argiturik,
ba-doa mutilla,
Jainkozko erreñua
indartzera lurrean
salbamen gisara.*

*Etsaia, gogor, dabil
eskutuzko ezpataz,
ondo, armaturik;
guzurrezko atsegin
ta aundikerizko ziriz
ondata gurarik.*

*Mendi, solo, zelaian
ta burni lanteietan
adoretsu dabil;
gizadiak zer nai daun
biotz barruan dakus...
zar ta gazte biribil.*

OTSEIN ONA

*Kristoren otsein ona
ba-doa artaldera
amets eztieta;
ardi zuri ta baltzak
ikusten dauz zelaian
bazkal orduetan.*

*Artzain onak ez dau nai
ardi baltzik ezkortan
curen gal-zorian;
danak gaizkatu nai dauz
bizitza izan daien
bakezko zorian.*

*Artalde eder baten
ikusi gura ditu
zelaiko ardiak;
osasuntsu ta eder
egiz janariturik
gizonen semiak.*

BA-DAROAZ

*Artzain gaztea ba-dabil
asmo bikain zuzenetan
bazka onena opaka
ardi danei zelaietan.*

*Erruki ditu gaisoak,
erruki indar bageak,
lepoz artuta daroaz
guztietan makalenak.*

*Artzaigo lanez betia,
atsegiña da zaintzea,
bide-bageko galduak
ba-daroaz ezkortara.*

ETSAIGOA

*Bart gabeen etsaigoa
sortu da txabol zarrean,
azeriak sartu dira
ardiak iruntzi naian.*

*Bedar txarreen eskeiñia
egiten dautse ardiei,
azeriak, beti, zurki
bildotsen bizia il nai.*

*Artzaiña, itzarrik, egon
ardi ta bildotsen aldez,
bazka onena emonez
artaldearen omenez.*

BILDOTSA

*Aurrera doa artzaiña
mendi eta zelaietan,
artaldea ugaritzen
bedartza oparoetan.*

*Egizko kristau semeak
ugarituten doazi,
zuzentasun egarria
erneraziz, bizi bizi.*

*Artzai ta artaldea
bat egin dira aldaran,
ogizko irudipean
Bildotsa arturik majan.*

UR GARBIAK

*Jakituririk onena
zabaltzen dabil artzaiña,
betirako egarria
barnetik asetzen dauna.*

*Ardiak ur ezilkorra
billatu nairik dabilteaz,
ta ain zuzen aldaran dago
opari bizi biziaz.*

*Zatoze ardi ta bildots,
dirautse artzai zintzoak,
artu eizuez ta edan
betirako ur garbiak.*

ARTZAI TA AR TALDEA

*Artzai eta artaldea
indartzen doaz zelaian,
janari ederrak daukez
ta ur gardena iturrian.*

*Ardiak, pozik, dabilnaz
janari ezilkorretan,
bizia bera dan Kristo
artzen dabe mai ganetan.*

*Ez da janari obarik...
.janarien janari da...
gosea kentzen dabena...
ta betirako bizia.*

ARTZAIN TZA

*Artzaintzaren ezierak
poza dama zelaian,
janaririk oberenak
eskeindurik biotz barnian.*

*Erriko baratz aundian
indartzen doaz ardiak,
jakiturizko berbotsak
argituz barne gogoak.*

*Egiazko janariak,
berez, dakar atsedena,
eta artzaiñaren lanak
ardietan eukan poza.*

EDER

*Izadiaren ederra!!
Zelaia egon orlegi,
mendi aldapea aratz
ta gizona eurei adi.*

*Bakea eriion lurrak.
Mendiko ide gaiñetik
garozko usaiña dator
eguzkizko printzetatik.*

*Urdiña, goian, dizdizka,
orlegia, beian, barrez,
bien bitarte euskoa
erritarren zorionez.*

BARATZ

*Izamen, egi ta onak
iru itzak hat egiñik
sortu eben jatorria
eusko izatez ondurik.*

*Lora eder asko ziran
euskoen baratz argian,
larrosa gorria egon
lirio zuri artean.*

*Lurra usaintzen egozan
gizadiaren irudi,
ta lora eder ederrak
notindu ziran maiteki.*

E USKOARENTZAT

*Euskaldunarentzat lurra
maitagarria izan zan,
mendi, zelai eta trokaz
ederrez ederrenetan.*

*Euskaldunen adimena
biotzagaz bat eginda,
arkaitzen goitik egoan
goi argiak argituta.*

*Lurra ain eder dalarik
zelakoa ete sorlea
edertasunaren begiz
ikusirik Jaun Altsua...?*

BEGIA

*Euskaldunaren begia
urrezko da ta egia,
abegiz artu izan dau
zeru goitiko argia.*

*Eguzkia da lurrean
oin urratsen gidari,
buruak gorago dauka
Itza bere zuzendari.*

*Euskalduna, beti, izan da
egizale aberrian,
gizarte Jainkoagaz
alkarturik lan-sacian.*

GIZATASUNA

*Euskaldun gizatasuna,
zer dozu zure barnean
ain onezgarria dana
gizadiaren aurrean.*

*Lurrez txikia izanik,
goren zara gizonetan,
ludi guztiko argia
lur eta itxasoetan.*

*Eusko izarrak ba-dabiltz
buruzko eta biotzez,
erri dardara zabaltzen
mundu zear gaitasunez.*

EUSKOTARRA

*Nundik artu dozu itza
ta zure trebetasuna,
nork ixuri dau zuregan
maitasunaren ederra...?*

*Egiz, ete zara bakan
on ta argitasunetan...!
maitagarri izateko
zuzentasunen bidetan...?*

*Nork emon dautzu argia...
Nork jantzi zaitu zentzunez
ainbeste on egiteko
gizadiaren omenez...?*

EUSKO IZANA

*Izar bat ba-zan ludian
Euskalerriko gaiñian,
dizdira bardin bageaz
lurra argitzen goizian.*

*Argia ezilkorra zan
Euskalerriko baratzan,
egia eban gidari
erriko arazoetan.*

*A girretar jaun jatorra
Bilbotar seme nausia,
eguzkia zirudizun...
Euskalerriko loria.*

AGIRRETAR JOSEBA ANDONI

*Gizon bat ba-zan
Euskadin...
Euskalerriko aritza,
buru ta biotzez su-gar...
erriaren deadarra.*

*Doi ederrenak zenduzan,
argiz eta maitasunez
lora txortaren antzera
giz ederraren ederrez.*

*Ta zuk, dana emon zeuntzan
maite zendun erriari,
buru, biotz ta bizia
egiaren ezaugarri.*

AGIRRE JOSEBA ANDONI

*Gizonaren nortasuna
jakin nai ha-dozu garbi,
zoaz etsairengana
ta entzun min gaiztoari.*

*Milla bederatzireun ta
ogei ta emeretzian,
amaitu zan guda baltza
odol askoren artian.*

*Negar samin ta gorroto...
zer aren ondorena...
kartzelak itz ba-legie...
ai! guda sorleen ajena...!*

AGIRRE J.A.

*Giz arrokeria gogor
ta kaiñoiak lotsatuta,
gelditu zan nozbaitean
mendietan eriotza.*

*Zuretzat Joseba Andoni,
guda barria sortu zan,
itzezko ta iraiñezko
gorrotoaren sasitzan.*

*Guda osteko urteak
zer eden euken zuretzat,
zer zeunkan zure irudian
euskoen goragarritzat...*

AGIRRE J.A.

*Zenbat ta geio beratu
etsaizko maltzurkeriak,
gorago jasotzen zaitu
beraren gaiztakeriak.*

*A girre Joseba Andoni,
zer zeunkan zure barnean,
ain menperatu eziña
urteen joan etorrian.*

*Ezin asmau-ala gaitzez
zure aurka ebiltzezan,
baiña egizko argiak
gorago jaso zinduzan.*

AGIRRE J.A.

*Agirre Joseba Andoni
izarretan izar zihian,
zure kidekorik ez zan
auzo aldeko lurretan.*

*Min gaitzak ezin itzali,
iholan bere, izarra,
maltzurkerizko iraiñak
sartu ziran ur zulora.*

*Betiko itzal ziran
gaiztakerizko esanak
ta zure izen gorena
zaindu dau Euskalerrriak.*

EUSKO IZKUNTZA

*Euskeraren oiñarriak
lur ontan tinkatu ziran,
zar; sendo eta bikaiñak
beren arkaitzen antzeran.*

*Izkuntz zar eta garbiak
ur gardena artu eban
arkaitz zurien artetik
gerizpe zoragarria.*

*Euskera arrigarria,
ele danetan bakana,
Euskalerria da zure
sor-leku jakitunena.*

*Euskeraren edermena,
itz egiozu lurrari,
ain jakintsu eta gailen
sortu zinduzan amari.*

*Zer eukan lur santu onek
beren errai garbietan...!
zer euken mendi, zelaiak
curen orlegi printzetan...!*

*Mendidi eta gaillurrak,
beti, izketan ebiltzezan
eguzkiak argituta
izkuntzaren sormenetan.*

*Izaeraz eta argiz
sortu ziñen bereziak
Aitorren mendi goietan
eusko seme leiñargiak.*

*Ze argi illezkor izan zan
zuen barne gidaria...!
eusko lurretan sortzeko
ain erri aintzagarria...*

*Zerk argitu zinduezan
euskal parnaso mendian,
izarduna al zan lurra
zuen adimen aurrian...!*

EUSKERA K

*Jakitura dario
eusker a miragarriak...
jakintsuak sorturiko
izkuntza arrigarria.*

*Jakintsuen goi eretxiz
ez dau bardiñik lurrean,
ederra ta bakana da
lurreko izkuntz artean.*

*Bere barnean daroaz
izkuntz bitxi bikaiñenak,
olerkari ta izlarien
ezti zoragarrienak.*

E USKOA

*Euskoa aritz bat lez da.
Mardul, lerden eta guren,
zuzentasunezko itzez
Euskalerria otseintzen.*

*Nundik artu zendun itza...?
Nork emon eutzun garaitza
edertasunen artian
jokatuteko bizitza...!*

*Egiz ete zan arkaitza
odol orren iturria...
arrizko sendotasunez
sorturik giz leiñargia.*

E USKOETAN

*EUSKO... Zerk gizondu
zaitu...*

*lurrak ala goi gogoak...
biak, egiz, dira eder
adimen argitzailleak.*

*Zerk urretu dau biotza
euskal gizon jatorrean...
nungo argiz argitu dau
euskal semea lurrean...*

*Argi ta borondatea
bat ein dira euskoetan,
itza, egia ta ona
alkartuz euskaldunetan.*

EUSKO JASA

*Euskaldun jatorren itza
ain jori ta dirdaria
gizontasun onenetik
izan eban sorreria.*

*Egia, gizontasuna
eta euskaldunen jasa
bat ein ziran gizartean
eusko semien gisara.*

*Egi garrak indartuz
baratz lora zuritan
euskaldunen izatea
berezko edermiñetan.*

GIDARI

*Loreak lore sortzen
ta larrosak larrosia,
eusko seme leiñargiak
sortu dau erri berezia.*

*Euskoak, berez, daroa
jatorriaren indarrez,
gizontasunaren itza
lurrari argi egiñez.*

*Jatortasun ta fedea
ziran zure ziñaldariak,
begi argi, biotz zabal
izan zenduzan gidari.*

SORBURU

*Eusko odolezko itzez,
emen, nai neuke idatzi,
euskaldunen irudia
erri onen ezaugarri.*

*Egi ta zindotasuna
zure irudiak dira,
egitez autortu dozu
odolaren arabera.*

*Zeure lurra maite dozu,
berezko legez artua,
lur Sortea gurtzen dozu
egi danen Sorburua.*

ODOLA

*Odola eta arima
curen leialtasunean
ezin dituzu ukatu
eusko gizatasunean.*

*Odol berezia dozu
jatorrizko izatetik,
itxaso, muru ta mendi
iturbide direlarik.*

*Izadiak emon dautzu
beraren jabetasuna,
garbi, eder ta aratza...
oroz goitik dagoena.*

ITZA

*Eusko gizonaren itza
urrezkoa da egitan,
euskaldun giz leiñargia
mi; dabil egi bidetan.*

*Xabierrek eSan zitun
Azpeitiko lur gaiñean
eusko itzik mardulenak
ama lurraren oiñean.*

*Egia, berez, soilla da
eusko lurraren itza lez,
eusko lurra ta gizonak
bat dabiltzaz giza legez.*

ITZALDIA

*Xabierrcn itzetara
Izarraitzko aitz sendoak
barne garrez poztu ziran
onartuz egi argiak.*

*Baiña etsaia mindu zan
egia guzurtzat jonik,
ta askatu zituan miñak,
gaizki, edozer esanik.*

*Egia, kinkan, jarri nai
ta alkar poztuten ziran
asmaualakoak jalkiz
guzur baItzen jira-biran.*

GAIZTAKERIA

*Nai aiña gaiztakeria
jalki zituen aidean...
Guzurra nausitu zata,
zoritxarren irudian.*

*Egia, ixilik, egon
beren barneko pozetan,
laster, ekusan garaitza
egizko gizon itzetan.*

*Etsaiak lotsatu zitun
euren buru gidariak...
Xabierren itz guztiak
soil soil, ziran egitiak.*

EGIZKO GIZONA

*Egizko gizon bakarra
guzurtien goitik dago,
euskoaren egi itza
agertu zan ederrago.*

*Kanta, jaunak, erriari,
esan egiak lurrari,
eusko egia jun dedin
ate zabaltzen itzari.*

*Garaitz jatorra izan da
euskotarraren egia,
zentzun ta eskubidea
bijoaz artzen bidia.*



Alberto Onaindia, Abadea, Maria, e^int_aillea

**X.- PAZKOA! JAI EDERRA
ZARA;
BERBIZTEN DOA ERRIA**

PAZKO JALA

*Pazko faja eder zara.
Egun zoragarriena...!!
Berbizten doa erria,
arbaso kabi maitena.*

*Itz bi daroaz jai onek,
Jainko erri sinismena
oin eta geroko ustez
osoturik dagoena.*

*Alderdi bi dauz biziak
maite zinez sendaturik,
zeru goiko Aberria
lur aherriz alkaturik.*

PAZKO JALA

*Pazko Jaiaren ederra,
dizdiz, dabil euskoetan;
argia dario goiak
kristau itxaropenetan.*

*Argia dario lurrak
euskaldun enparantzetan,
izketan dabiltz gizonak
erriko egi hidetan.*

*Arbasoen jatorriak
landu eban euren lurra...
biziak, berez, emona,
millaak urteen abi zarra.*

PAZKO JAIETAN

*Eusko seme leial ta argi
batu ziran Azpeitian
Udalaitzaren menpean
Pazko Jai aundienean.*

*Arzailluz jaunaren itzak
biztu eben lur guztia,
erri entzulea, pozik,
ta asta-makillez etsaia.*

*Alderdi guztietatik
il nai eben zure izena...
baiña gorago jaso dau
etsaiak zure omena.*

BULTZADA

*Ospea erri arnas da.
Gizon jaun ertilariak
eltzen dira goi ospera,
egiz, lagunduz argiak.*

*Oi Euskalerrri zindoa,
Pazko egun jatorrean
ospatu zenduan jaiia
neha arreba artean.*

*Erri batzarra izan zan
jatorri guna oroitzan,
adimen eta biotzez
erri bizitza aipatzen.*

IZLARI

*Batzar arteko anai bat
oiz arnasaz eldu zan
itz egiten ol-gaiñera
euskotarren aurraldian.*

*Itza zolia ízan zan
euskaldunaren tankeraz,
itza egiz betea zan
euskotarren oituraz.*

*Izarraitz... arkaitz mendia...
dana entzuten egoan,
millaak urten bizia
gogoratu, enparantzán.*

IZARRAITZ A URREAN

*Batzar anaikorra zan...
Erriaren nortasuna
goratu eben guztiak
oroituz kidetasuna.*

*Anaiak alkar maitatzen,
zorioneko Pazkoa...
arbasoen iturritik
edan eben ur gozoa.*

*Poza erion egunak,
anaitasuna Pazkoak,
Arzailluzek jalki zitun
egizko itz ederrenak.*

ARTZAILL UZ IZLARI

*Arzailluz ta itzaldia,
gaizki, neurtu zituezan...
aurkalariak, an, ziran
etsaikerizko lanetan.*

*Egi-eza ta saltzea
ba zan urrengo egunetan,
arterik artu eziñik
martillu kolpe otsetan.*

*¡parretik egoaldera
ez egon beste esa-mesik,
Azpeitiko Itzaldia
ta Arzailluz izan ezik.*

PAZKO JAIA

*Azpeitiko Pazko Jaiak
dardaratu zitun biotzak,
lorik egin ezinda
amesti dabiltz gizonak.*

*Odol bera galdu ete
gorrotozko zoritxarrez...?
buruak illundu ete
itzaren argitasunez...?*

*Ar gaiztoak mindu ete
biotzeko odol gorria...
irri miñez nai izateko
zapaldu eusko egia...?*

PAZKO JAI ONDOREN

*Alderdi guztietatik
salatz gaitza agertu zan
zure aurka Xabier jaun,
zu ondatzeko asmoetan.*

*Biotz bako salakuntzak...
zu ta zure lur maitea
betiko ondatu nairik...
a zan leoi burrukea...!*

*Ase eziñik ebiltzan
garramurak eraginda,
zure itza erre nairik
gorrotoak ordituta.*

GALB UR UA

*Gari Barau lur pean
ezereztuten danean,
galburu ederra dakar
urrezko lasto gaiñean.*

*Gal-garauaren bizia
ezereztu ez ba-litz
uts geratuko litzake
garaua ez itz ta ez mitz.*

*Il zan gal-garan ederra
eusko lur oberenean,
ta bateko eun sortu zan
montor osteko soloan.*

EUSKO ITZA

*Arzailluzen eusko itza
galgarauaren irudi,
suaz erre nai eben ta
ezin izan zan itzali.*

*Argi zuziaren antzo
biztuta geratu da itza,
len baiño indartsuago
euskotarraren abotsa.*

*Giz-itzak asta-makillez
zauriz odoldu nai eban
euskaldunaren egia
betiko ondamenean.*

PAZKOETAN

*Lurra argiago ein cia
argi zuziaren bidez,
etsaiak indartu ein dau
erasoaren bitartez.*

*Izena ezereztu nairik
ezaupidea geitu dau
inguruko lurraldetan
ta izen ona ezilkortu.*

*Pazko eguna izan da
Eguzki egun ederra,
etsaiaren erasoak
indartu dau eusko lurra.*

PAZKO OSTEAN

*Birrindu egin nai eban
erasoaren erasoz,
berezko lurraren itza
ahendiaren gorrotoz.*

*Zabalkundea, mingarri,
zirudian Pazko ostein,
baña edaldi onena
etsaitik etorri zan.*

*Lokartuak biztu ziran...
Etsaia bera ixildu...
Ta egiaren indarra
bazterrik bazter zabaldu.*

ZABALKUNDEA

*Oi Euskalerra maite,
etsaiak goratu zaitu...
bere gorroto guztia
bat-batean da ixildu.*

*Esan txarrak esatea
ez ete da hidegabea...
guzur haltzak ete ziran
ainbesteko jarduera...?*

*Oi Euskalerra maitea,
argi, daukazu bidea,
etsaia ixildu jatzu
edatuz zabalkundea.*

IXILD UBEARRA

*Ixildu-bear galena...!
Gaizki esanez dardara
ots hatean, amaitu da
guzur balizaren erara.*

*Idazleak alkartuta,
jokatu eben zoria,
Xabi Arzailluzen aurka
erronka gaiztoz betia.*

*A sta-makillakeria,
nun da zuen erronkia,
nora Joan da gaitz garra,
odeiak jota larria...!!!*

ARBASOEN JATORRIA

*Euskalerrian ba dago
zentzundun gizategia,
Euskalerriak ez dan uka
arbasoen jatorria.*

*Antxiña, eusko odola
lur" ontan tinkatu zan,
ta euskoen bizitza
askatasuna izan zan.*

*Xabierren guraria,
beti, egia izan da,
erriari zor jakona,
egiz, biurtuz beria.*

ARZAILL UZ

*Garaitz on bat lortu dozu...
etsaiak ixildutea...
guzurrean ete chillen
etsai azerikeria...?*

*Berezko zabalkundea
etorri jatzu erria,
euskotar seme jatorra,
artu arbaso egia.*

*Itz zentzundun gizoneri
zabaldu barne ateak,
bere sena lortu daian
euskoktarren aberriak.*



Zer nai cbe,'

XI.- GUDA: ZERGAITIK ETA ZELAKOA

- Urbasa**
- Urkiola, Oiz, Anboto**
- Zer nai eben?**
- Gurutz-Guda?**
- Gernika, Lauaxeta...**

GU DA

*Gudaren burruka...
Zertatik dator
ainbeste neke samin
odol gorri minduen
erioz?*

*Arrokeria al da
guda sorrera...
nauskeria ete da
barruko griña baltzen
sortea...!!!*

*Diru-zalekeria
al da lurrean
iñoren odolagaz
arrotzeko burua
aidean...!*

NEGARREZ

*Lurra negarrez dago
ainbeste miñez,
zuzengabekeriak,
gora goraka, dabiltz
gaitz itzez.*

*Gizakeri maltzurra,
benetan, dabil
iñoren odol bidez
poltzea jarri nairik
biribil.*

*Aundikeri arroak
zer nai ete dau...
norberekeri baltzez
erriak menperatu
ta uldu... ?*

ANKERRA

*Guda ankerra sortu zan
jida erdian,
zer asmo gaitz ete euken
giz ezpata zaleak
mendian...*

*su bizia ekarren
asmo garretan,
itz gogor ta odola
asan ekoi ezpata
puntetan.*

*Itza eta burdiña,
aurrera, doaz,
dunbada gogorretan
kaleak urratuten
lergaiaz.*

EZPATA

*Nauskeria ta poza
bizi, dabilnaz,
ezpata garaipena
odoletan lortzeko
asmoaz.*

*Mundura adi dagoz
jaunkerietan,
agindu ta zapaldu
norbere gurarlen
eratan.*

*Asmoak asmo zital
kaiñoi puntetan,
samiña ta odola
giza errukarrien
zaiñetan.*

EGOAK ARROTZEN

*Gero ta zabalago
doa burruka,
ta egoak arrotzen
mendan ikusirik
odola.*

*Go-gaiztoak tentaka
giz buruetan,
jo, mutillak, aurrera
nagusitasunaren
otsetan.*

*Miñak ez dauz minduten
odol jarioz,
nauskeriaren garrak
geiago arrotuten
poz giroz.*

LARRIA DA ERIOTZ

*Mendi ta kale zear
dator guda ots,
gero ta gogorrago
burdin artean dakar
eriotz.*

*Larria da eriotz
asmo gaiztotan,
baiña biotz ankerrak
ez dauka errukirik
itzetan.*

*Saillak artzen doaz
alkar pozturik,
gorrotozko indarrak
ez dau ezer parkatzen
il barik.*

GAU TA EGUN

*Gizon berarizko bat
jildor barik,
gau ta egun chillan
izketan eztenkari
eginik.*

*Guda erdia berak
menpetu eban,
miñaren kaiñoiagaz,
gogoz, aspertu bako
lanean.*

*Esan gorriak zitun
ezpata puntan...
gizon errukarria!
gorrotoz, jausten zana
minpetan.*

SAMIN ITURRIA

*Guda gaiztakeriak
ez eukan ertzik,
etxerik etxe dabiltz
odolak berotuta
il nairik.*

*Anaien odolagaz
poztuten ziran,
biotz errugabeak
millakak jausi ziran
lurpean.*

*Odola deika dago
egi aurrian,
nork zuritu odola
samiñen jturnia
!urrian...?*

ALDATZ GORA

*Naparroako mendi,
Urbasa maite,
zu zara ziñaldari
mendi mindu ontako
aitzarte.*

*Nundik nora dakarrez
lapurren antzo
etxietan ostuta
Jainkoaren semeak
ilteko...!*

*Moskortuta dabiltzaz
odol egarriz,
ta burleka daroez
aldatz, gora gaisoak
min biziz.*

SAMINTASUNA

*Zugatz samintasuna,
ixilik, dago,
zigorraren bildurrez
orriak lotsatuta
il giro.*

*Iltzailleak, gaiztoki,
poztuten ziran,
gizon errukarria
ikusita eriotz
bidean.*

*Arriak lotsatuta
bide ertzetan,
gizonen txarkeriak
anaiak il-bearrez
Zorretan.*

BIDE ZEAR

*Gola urdin egoan
lurrera begira,
ta mundu egal oro
adl eguzkira.*

*Bide zear gizonak
biotz negarretan,
zer txar egin dot diño
erio miñetan.*

*Andrea, gero, bakar
erruki bagea,
umeak negar, laster
da bakardadea.*

EZPATA BILDURREZ

*Giza oin-otsak ixil
aurrera doazi,
Urbasa gain guztia
giz-ilkorrei adi.*

*Lurra minduta dago
ezpata bildurrez,
bere seme maiteak,
alan, il bearrez.*

*Giza ankerkeria
itsuturik dago,
pistiak eurak baiño
askoz gogorrago.*

ZER EGIN DOGU?

*Aurrera oiñotsak ta
bIotza mInago,
¿zer egin dogu baina,
oirrenbesterako... ?*

*Arriak erdibitu
egin gura leuke,
euren miña agertzeko,
itzez, al ba le-be...*

*zugatzak, dardal; dagoz
alkarri galdezka,
zer dago, gaur; Urbasan
lotsagarritzkoa...?*

ORTZIA NEGARREZ

*Laster dator ordua
ta ortzia negarrez,
eguzkia illundu
da miñaren miñez.*

*Gaiñak ez dau ikus nai
gizonen samiña,
ta odeia sortu da
eguzki azpira.*

*Lurra, dardaraz, dago
erailketa baltzez,
gorrotoaren forra
ulertu eziñez.*

ITXI BEGIAK

*Amiltegi sakonak,
urrin, dau barrena...
dardai; dagizt biotzak
OndOra begira.*

*A rruaren barrenak
ez dau nai ilterik...
baiña zitalkeriak
ez nai parkamenik.*

*Arriak, dardai; dagoz
arTu magaletan,
ta amiltegia dago
oiu larrietan.*

*Itxi begi azalak
u/le larri ontan...
joben iguingarria
izango da Urbasan...!*

*Aldien aldietan
lotsatuko dira
gaiztakeri Onegaz
mendira begira...*

*Eguna illundu da...
ez dau nai ikusi,
ainbeste odol larri
ezarten lurrari.*

AMILTEGI ERTZIAN

*Hiz egin al ha-leie
arri ta mendiak,
samiñez, esan euskun
giz segalariak.*

*MIn, ulua, negarra,
bildurrez egoan
Urhasa gain guztia
ikusgai aurrean.*

*Amiltegi ertzian
gizonak begira,
noz, jaurtiko zituen
zulo barrenera...*

MIÑA ERION ITZAK

*Zentzun danak, dardaraz,
zorabiatuta,
iltzailleak, bakarrik,
gaitzez astotuta.*

*Miña erion aitzak,
sua eguzkiak,
bien arte gizonak
artzen dauz zuloak.*

*Aidean, dardaraz, doaz
heko zuloraiño,
arnas hete eziñik
eriotzaraiño.*

DARDAR

*Azurrrak apurtuta...
buruz, eskuz, oiñez...
azken miñetan dagoz,
laster il bearrez.*

*Nekea ta samiña,
ordu latz aretan,
bakarrik, laguntzaille
amiltegi artan.*

*Amiltegia bera,
dardaratan, dago,
ainbeste odol gorriz
gaisoak artuta.*

MIN BARRIAK

*Azken miñak, oingoan,
ixilduten doaz,
lurra minduta dago
giza eriotzaz.*

*Laster dira, barriro,
ilketa mingarriak,
lengo odol usaiña
kendu-ge arriak.*

*Garbi, zoratu ete
giz batzuen sena...?
Nork zuzenduko ete
gizozte alma... ?*

ARRUA BARRENA

*Bi, iru, geiagotan,
barri'o, dakarrez,
gizon errukarriak
ara, il-bearrez.*

*Lotsaz beterik dago
arrua barrena,
arriak erdihitzen
goitik eta bera.*

*Lengo Illen orola
jatorke gizontei,
euren bizia nintzen
hiotzen galgarri.*

ILLAK ETA ILLAK

*Ezin negurtu aiña
odol doa bera...
negarrez eta miñez
lur amiltegira.*

*Ezin dabe ikusi
ez gizon, ez arriTik,
U'hasako hazterra
ilfobi egiñik.*

*Izarrak, gau orduan,
ilten ikusirik,
negarrez asten dira
garrazki, mindurik.*

ERIO MINGARRI

*Urbasaren bizkarra,
bizien illobi,
biurtu zinduezan
erio mingarri.*

*Zer asmatu zenduan
zure barne ortan,
oiu latzak entzunda
gizonen miñetan...?*

*Il-bear latzagorik
asmatu al dozu...
Ankerkeri gogorrek
zauritu al zaitu...?*

BASATIKERI

*Basatikeri baltza
odol gorrietan
biurtu zan Urbasan
amildei barnean.*

*Lurrak ez dau oroi nai
ainbeste txarkeri,
baiña odola deika
goiko zeruari.*

*Giza gizakeriak
mindu dabe lurra,
geroztik negar dagi
kolpatuz bularra...*

GUDALDIAN

*Urkiola azpian
aitzak arrigarri,
baiña gudaldietan
itzak arrigarri.*

*Frankoren gudaldian
arkaitzak bildurrez,
Kurutzeta ta ilketa
alkartu bearrez.*

*Edozer zan zillegi
batzuen gorrotoz,
Kurutzeta aurrean
ta ilten gogo gaiztoz.*

AMILTEGIA

*Urkiola aldeko
artZ lerdin zuriak
berba egiguzue
agertuz egiak.*

*Zer ikusi zenduen
egun mingarrian...?
Euzko gudarozteko
mutillak aitzian...?*

*Mutil talde ederra
daroe aitzera
ta amiltegi bat dago
andik barrenera.*

A URREZ A UR

*Anboto. Zerua
Urkiolara adi
ta aurrez aur dakiise
ilketa mingarri.*

*A rriak ez dabe nai
olan, ilketaTik,
miña sentitzen dabe
arkaitzak illotzik.*

*Baiña etsaia, zorO,
asmo galgarrietan,
gorrotoz dau biotza
odolen artian.*

AMILTEGIRA

*A rritu zaitez, lurra,
giza txarkeriaz...
lotsa zaitez arkaitza
ikustekoagaz...!*

*Ots batean doazi
euskaldun mutillak
arkaitz amiltegiara,
gogor bultzatuak.*

*Mendi goiko pistiak
uluaka dagoz,
aIn gorroto aundikO
gizonen erioz.*

LOTSAZ ARRITURIK

*Amiltegi barrena,
zer ikusten zagoz...?
Zerk naigabetzen zaitu
miden zorabioz...?*

*Gizonak zoratuta
arrien artean,
miñak urratzen ditu
gizonak lurrian.*

*Arriak, dardai; dagoz
odolez bustirik,
gizon iltzailleei deika
lOtSaZ arriturik.*

ZER NAI EBEN...?

*Nork sortu eban guda...?
Nor zan odol zale...?
Nork birrindu nai eban
bizitzaren lege...?*

*Iltzailleek zer nai eben...
goi aginpidea...
ondasun ta nauskeriz
beterik bizia...?*

*Zer nai eben gizonak...
giz alkartasuna...
lana ugaritzea...
ala goikeria...?*

KAIÑOI OTSAK

*Euria hear ba zan
trumoia eldu zan,
iltea bear ba-zan
ezpata sortu zan.*

*Ain jakitun aundiak
ta ain barregarri...
odola deika dauke
biotzen mingarri.*

*Zorigaizto ordua
deika ausartu zan
erriak austu nairik
kaiñoien otsetan.*

GERO TA ILLUNAGO

*Zer datorren ba-leki
guda susterretik...
odeia illuna da
beren baltzeratik.*

*Gero ta illunago
joiezan buruak,
odolak itsututa
garaitzazko suak.*

*Zorigaiztoko guda
lapurretan dabil,
giza biziak artu
ta gaiztakeriz il...*

ASMO TXARRA

*Asmo txarretan dabiltz
giza gogaiztoak,
erriak erre ta il...
jende oberenak...*

*Zerk barrabaztu eutsen
buruko armena,
zer zan gizon arengan
agindu ebana...?*

*Zoratu egin al zan
gizonen burua...
suagaz erreteko
giz bizi-modua...?*

GURUTZ GUDA

*Gurutz guda izena
artu eben lagun,
ta jendea il ta il
giza lotsakizun.*

*Ezin alkartu leike
guda sinismenaz,
ez eta gorrotoa
Gurutz izenagaz.*

*Zerk alkartu zituan
gizonen buruari
guda ta eriotza
Gurutz inguruan...?*

*Milla bederatzireun
ogei ta amazazpi
jorrad ogetaseia
izan zan mingarri.*

*Españar Gurutz guda...
sua ta odola...
alkarren aurka dagoz
miña dariola.*

*Nork asmau eitekean
gauz onek naastea,
nork kidetu eikezan
ona ta etsaia.*

GERNIKA

*Mendi goian nengoan
Gorbei magalean
Euskalerrira adi
gudaren oiñean.*

*Suagaz datoz, egaz,
egazkin ilkorrak,
burdin sua dakarre
etsaien lerkaiak.*

*Bota ta bota dabiltz
Gernika gaiñean,
burdiñak sua dakar
erio miñetan.*

*Alderdi guztietatik
dana sutan dago,
ikuspegi larriak
mintzen biotz oro.*

*Dana zan sua eta
ez ziran naikotzen,
barriro, datoz bOnbak
sua indartuten.*

*Suaren lainu baltzak
gora gora, doaZ,
mendi egalak minduz
kedar edenagaz.*

UME NEGARRAK

*Ume negarrak datoz
orma zuloetatik,
bizia zaindu nai-ta
suzko eriotik.*

*Orma azpian dago
amaren bizia,
azken arnas larrian
samiñez betia.*

*Umea, estu, deIka
ta ezin lagundu,
amaren zori-gaitza
umeak dau geitu.*

ORMA ARTEAN

*Egun bereziena
aukeratu eben...
suzko gar artean
erria kiskaltzen.*

*Aittitte on biguna
orma aretan datza,
iñora ezin iges...
a zan eriotza...!*

*Egazkin iltzailleak
geratu-ge dabiltz,
zamak ustuan alean
burdin ta su biziz.*

LABA GORJA

*Lurra lertu da garrez
atsa dariola,
au da erriarentzat
sortu eben miña.*

*Il-egarria dabe
euren biotzetan,
ta ez dira naikotzen
suagak botetan.*

*Arritu da arria...
bat ez da zutunik...
laba gori biur da
Gernika osorik.*

SUMENDIA

*Sumendia dirudi
Gernikak osorik,
sua, negar; odola
alderdi danetatik.*

*Mendi gaiñak, ikaraz,
laiñoz bete dira,
ta illen miña doa
arkaitz gallurrera.*

*Sua besterik ez da
ta illak arripean,
ta egazkiñak dabiltz
tiroka aidean.*

GERNIKAREN ERIO TZ

*Zer darabil etsaiak
goi alele aretan...
sua besterik ez da
erria erretan.*

*Illak arripean ta
biziak igeska,
urezko erre-gaiak
datoz goitik bera.*

*Gorheitik agiri zan
laiñozko mendia,
Gernikaren eriotz
ta min agerkaria.*

MENDIAK ZIÑALDARI

*Inguruko mendiak
ziran ziñaldari,
egazkiñen lerkaietz
egozen dardari.*

*Argi ikusten eben
lerkaien bearra,
suari su geiago...
a zan zoritxarra...*

*Mendi danak egozen
erresuminduta,
arnas artu ezinik
atsak irainduta.*

ERRI ERAILKETA

*Sua ez da bakarrik
etsaiaren itza,
Euskadi biur nai dau
giza eriotza.*

*Mendiak ez dan uka
erri erailketa,
aitor egiten dogu
egazkin ilketa.*

*Geiago ez da bear
su ziñaldaririk,
etsaiak erre eben
gorrotoz beterik.*

ERRE TA ERRE

*Aiei aundia da sua,
ain ikaragarri...
curen txarra nai dautse
besteen ezarri.*

*Baiña suak darargi
nor zan sularia,
egazkin litzailleak
ziurtuz egia.*

*Erria erre ta erre
ta lergai barriak
jausten ziran errira
erruki bageak...!*

KALEAK LURPERATU

*Mendi guztiak baiño
gorago joan da
suaren amorrua
ontzi goi aldera.*

*Odoldun laiño baltza
deadarrez doa
suzko miña edatzen
mundu zabalera.*

*Egunik egunera,
erre ta kiskaldu,
kaleak lurperatuz
erria dan lautu.*

BATERA BESTERA

*Gernika, bakez, egon
feri egunean...
erritar jende zeia
sal-erosketetan.*

*Zer da jazoten dan au
galdezka ebiltzan,
ta triskantz bardin geak
zoratu ebaZan.*

*Batera ta beStera
iges doaz danak,
pistiak uluaka...
negarrez gizonak.*

LOTSA DIRA

*Iltzailleak, artega,
dagoz curen baitan;
nori ezarri ilketa
zorigaizto ontan...?*

*Lotsa dira, benetan,
lurraren aurrean...
bakez egon erria
il dabe lurrean.*

*Iñori ezarri nai
curen erailketa...
ta oiuka dabilta
galdu zarataka.*

ERRIA LA UT UTA

*Lau lau, eginda dago
torre, eliz, erri,
ta azpian odola
guztion oiñarri.*

*Suak landuta daukaz
kaletan arriak,
ezin negarrik egin
biotz il-barriak.*

*Dana, ixilik, dago
eriotz erdian,
lerkai zarata dator
aizeen durundian.*

ARRIAK ODOLDUTA

*Berotasuna dator
bazter danetatik,
ilketaren usaiña
arri bitartetik.*

*Mendiak gora doaz
laiño ta su garra...
biotzean daroa
illen deadarra.*

*Illeen bakardadea,
ixil ixil, dago;
arriak odolduta
biotz barneraíño.*

ERRI MAITEA

*Eusko erri maitea...!
Zu nai zinduezan
erre ta kiskaldu
guda aitzakietan.*

*Zer dakusu begia...
Gernika austnrik...?
Zer adierazten dau
Gernikak il-otzik... ?*

*Euskaldunen biotz lez,
berez, sortu ziñan;
lege biltzar tokia
urrezko legetan.*

ERIOZ MINDUA

*Zer diñozu, Gernika,
Ierkaiz ondatua...?
Zer diñOzu erria
erioz mindua...?*

*Nor egon zoratuta
gaiso orregaz...
zu 11 nai Izateko
suzko erioaz... ?*

*Ildakoak geroztik,
egiari deika,
or dagoz ziñaldari
odol karrazika.*

BOTA TA BOTA

*Arratsalde mintsua...
Bota eta bota
dabiltzaz egazkiñak
suagak errira.*

*Burdiñezko lerkaiak
ormak apurtzeko,
eta lerkai suzkorak
dana ondatzeko.*

*Su, garra, erioa,
dana dago ondatzen,
mendi goiak dakuse
Gemika kiskaltzen.*

IGESKA

*Jendea, zoratuta,
arat onat dabil,
nora iges ezean
neskatxo ta mutil.*

*Iges negargarria...!
bideak betean...!
ta egazkiñak goian
suaga lanetan.*

*Bidean doazela
tiroka jabilkez,
egazkin magaletik
bizitz ondamenez.*

EZ DAGO BIOTZIK

*Oi bakardade miña...!
Samiñaren itza
barneraiño eldu jat
suzko eriotza...*

*Egunetan egon zan
Gernika erretan...
bakar bakarrik bera
suaren garretan.*

*Oi bakardade miña...!
Ez dago biotzik,
Zure samin aundia
jazan legikenik.*

KENDU EZINDA

*Gau berezi aretan
sua zan nagusi,
mendi egal guztiak
egozan dardari.*

*Ez. Geiago ez datoz
su erretzailleak...
ilketa aundiena
egin dau etsaiak.*

*Orain, buruan dabil
bere egitadea,
iñoz kendu ezinda
suzko deadarra.*

ONDAMENDIA

*Bakar bakarrik nago
ondamendi ontan,
sua besterik ez da
ikusten Gernikan.*

*Borda zarra negarrez...
ezin dau sinistu
begi aurrez daukan
erria ala su...!!*

*Iñor ez dago adi
gaiztakeriari...
gaitz aundiegia da
begien mingarri.*

SUZKO LAIÑOAK

*Txori abeslariak,
nora joan dira...
erri maitegarria
laiñotan itxita...?*

*Ezin dabe iruntzi
suaren kei baltza...
ta lotsatuta doaz
arnasa mendira.*

*Gernika ingurua,
suz eta kedarrez,
erreminduta dago
suaren indarrez.*

ARRITU ZAN

*Norantza joan zīñan
txori kantariak...
erri erailketaren
albistelariak...*

*Mundua arritu zan
suagaketagaz,
bakean egona ilten
suzko indarragaz.*

*Zatoze, arin, onantz,
txori kantariak,
abestu erriari
euskoen egia.*

TA ZU LA UAXETA...!

*Au da bakardadea...
Au da erri-miña...
Giza begiak, iñoz,
ikusit ez cuna.*

*Eta, zu, LA UAXETA,
nora joan zīñan
bizia eskeintzera
etsait agiñetan..?*

*Bai, dana emon zeuntzan
maite zendunari...
bildots baten antzera
Euskalerrari...!!*

*Aberri seme zīñan,
benetan, leiala,
biotz barruan zeunkan
amaren bizitza.*

*Sutan egoan ama
eriotz larritan,
seme danei begira
ordu larrietan.*

*Deia asmetan zendun
amaren larrian,
ta ikusten joan zīñan
ama gal-zorian.*

AMA SUTAN

*Ama, sutan, besterik
ez zendun ikusten,
Gernika bai egoan
garretan erreten.*

*Baiña, an, egoazan
suaren jaubeak,
eskua ezarteko
bildurrik bageak.*

*Laster ar zinduezan
kateien artean,
bizia odoltzeko
ormaren aurrean.*

*Kristau irudia zan
zure gidaria,
Jainkozko maitasunak
argituz bidia.*

*Erria maite zendun,
geiago, Jainkoa;
Neri eskein zeuntzen
zure amasea.*

*Bildots baten antzera
jun zihan orinara,
iltzailleri parkatuz
curen egitea.*

SUAGA GARRETAN

*Su-garra amaitu da.
Erre dauz etxeak...
erre ditu kaleak
suagalariak.*

*Zer zendukan Gernika
zugatz aritz ortan...
zer zeunkan zure baitan
erri batzarretan...!*

*Zuk erria nai zendun
orbiztu legetan...
etsaiak il nai eban
suagaz garretan.*



Euskaldunak eta adiskideak izkuntza-lanean

XII.- GAI BARRIAK (Fedearen ikuspegia)

JAINKO AGINDUA

*Jainko agindua da,
danetan, nausia...
giz bear-izanetan
anai laguntzea.*

*Anaia jausi ba-da
bear izanera,
gal-zorian ez itzi
ilten bertan bera.*

*Biotza ez gogortu
anai miserian...
Zabaldu esku leunak
ezbear aurrean.*

EZKARI OBARIK

*Dirua enzokeran
bear-izanean,
errukitsua izan
anaien artean.*

*Ez eskatu dirurik
gizonar7 ordetan,
biotz zabal izan
laguntasunetan.*

*Ordezkorik ez eska
egin dana gaitik...
lurrak ez dau onartu
eskari obarik.*

JAINKOZKO IRA KATSIA

*Zazpi urteetatik
zazpi urtera
larunbat urtea zan
zerutar erara.*

*Parkamen urtea zan
larunbat santua,
anaitasun gima
sortzeko eguna.*

*Aurretiko zor danak
barka bear ziran,
larunbat urtearen
barkamen egitan.*

LAN SARIA

*Lan eginbearra dan
gizonak lurrean,
ezin bestelan bizi
gizontasunean.*

*Ordain bearra dauka
gizonen nekeak,
ez dira utsezkoak
gizon izerdiak.*

*Eguzkizko printzetan
zabaldu sakelak,
nekeak merezi dauz
izerdi sariak.*

AINBESTE LAPURRETA...!

*Ainbeste lapurreta
dabillan aldian,
olan, ezin leiteke
jokatu lurrian.*

*Diruzalekeria
nausitun danean,
lurrak ez dau onartzen
zintzorik lanean.*

*Ez cIa iritzi makala...
Iñoren izerdiz
bizi nai izatea
anaiak ezetsiz.*

DIRU PILLATZEA

*Pilloan bear dira
diru ondasunak,
lana izan dagIan
giz bizibideak...*

*Ezin esan izketa
polita ez danik,
arentzako gosea
eta diruak nik.*

*Aita batek ez dau nai
semerik gosez il,
danantzeko dauka lurrak
irakasten dabil.*

DIR UKERIA

*Diruari lan eragitea...
zer da gizonen legean...?
Zer esan nai dau nauskeri*

orrek

gizadiaren aurrean...

*Beartsuekin baliatzea...
Gose danari kentzea...
Bear izanean dagonagaz
gura dana egitea...?*

*Era ontan aberastutea
Bibliak ez dau onartzen,
lurrean dabil guztien Aita
bizi bidea zuzentzen.*

LANAREN BIDEZ

*Dirua baiño gorago dago
anaitasuna lurrean,
ez dago altxor
bardintzekorik
gizadiaren aurrrian.*

*Bibliak, argi, agintzen
dausku
lanaren irabazia,
zeure izerdiz, ez lapurretaz
irabaz eizu ogia.*

*Jainkoak nai dau gizadi
ontan
guztiak lan egitea,
lanaren bidez irabazirik
anaitasun bizitzea.*

ERRUKARRIA

*Egilleak seme guztientzat
sortu eban lur illuna...
gizon danak landu bear dabe
lurraren gogortasuna.*

*Menpetu guztien onerako
anaiak zareen ezkeroz,
arrotu lurraren erraZ barrua
frutua emon erasoz.*

*Diruaren larkerietatik
ba-doa giza bizia,
zerk poztu al izango ete dau
bizitz ain errukarria...!*

ANAI ARTEKO KEZKA

*Munduan ikusten direnekez
arritu zaite gizona...
ainbesteko zuzengabekeriz
pobria dtera doa...*

*Ori ez da A itaren legea...
semeak, gosez, iltea;
gizonak A itaren aurka doaz
anaiak ilduratuta.*

*Dollorkeri negurri bagea
lurrean ikusten dana,
dirukeria eta gosea...
anai arteko kezkea.*

GOSEA TA ERIOTZA

*Munduak, olan, jarrai ha-dagi
guzurra dabil sesean,
Egillearen zuzenhidea
ez da agertzen lurrean.*

*Bat zan Egille hakar Altsua...
bere maitasun guztia
agertu ehana lur oiñian
ondasunez edertuta.*

*Askok ez dabe onartu nai
Jaungoikoaren eskua,
eta ortik datoz, zoritxarrez,
gosea ta eriotza.*

USAIN TXARRAK

*A inheste millaak urte
larri tan
izan, da hai, zoritxarra,
nauskeria, heti, goitik
ta he aldetik negarra.*

*Ta aurrera darrai goikeriak
gizadia saminduaz,
ta aurrera joko dau
negarrak
hartsuak zapalduaz.*

*Diruzaleak ondrautzat
daukaz
jokabide galgarriak,
baiña egiak epaituko dauz
norkerizko usain txarrak.*

BIZIRA BEGIRA

*Norberekoikeri onen aurka
iru itz agertu ziran,
egiaz igurtzita egozan
giza bizitzaren eran.*

*Bardintasuna, zuzentasuna
eta giz askatasuna;
urrezko itzak cura irurak
giza bizira begira.*

*Gizadiaren ezhearpean
jaio ziran itz ederrak,
mundua argitzera etozan
uxatuz gaiztakeriak.*

NA USKERIA

*Gizona errazoidun pisti cla,
lur arazoan hurta
ta aragi azurren gorputza
bera begira dagona.*

*Buruak gorantza dei dagitso
zuzentasun goi bidean;
gorputzak beretzat nai
guztla
lapurkerizko saillean.*

*Gizonak nauskeria gura
dau
bizitzan agertzen danez,
ta nauskeria zapaltzaille
da
bestientzat zoritxarrez.*

BARDINTZ GEIAGO

*Bizitzeak, berez, eskatzen dau
zuzentza ta anaitasuna
zeru eta lureen Egilleak
bedeinkatuta daukana.*

*Burdi zar baten doaz batera
nauskeri ta norzeria,
ta orrek ezin dabe ikusi
anai alkarte bidia.*

*Bardintza geiago nai dau
lurrak
anai alkartasunean,
bardintz geio nai dau
Jaungoikoak
seme artean lurrean.*

LAPURKERI SOIÑUAK

*Nork kendu nai dauz itz
obenerak
gizonaren biotzetik...
nork kendu nai dau Jainko
izena
berak sortu Jaun lurretik..?*

*Norkeri eta aundikeriak...
ala giz gaiztakeriak...?
zer ekarri dausku lur ontara
zuzentza zapaldutiak...?*

*Ordikeriaren bidetik
ta lapurkeri soiñutik
nekea, gosea ta negarra
ez dator beste gauzarik.*

ISAÍAS IGARLEA

*Ez dauka ezer be estaldurik.
Guztia dauka aurrean,
naiz ta gizonen maltzurkeriak
Jainkorik nai ez lurrian.*

*Jauna nauskerien aurka dago.
Epailari jarriko da
norberekeriaren aurrez
beartsuen jagolea.*

*Beartsuei kendutako gauzaz
etxeak beterik dagoz,
au da guztien A itaren miña
semeak ilten zori gaiztoz.*

IGARLEAREN ITZA

*Gaiztakeria kendu eskutik.
Biurtu biotz onera,
zapalduari zorrak ordainduz
giz anaitasun erara.*

*Zuzenak izan umezurtzagaz,
zintzoak alargunagaz
eta auzitan beartsu alde
jarri zuen laguntzagaz.*

*Zuzentasunak ekarriko dau
bake itza zuregana,
ta maltzurkeri baltzenak
edur biurtuko dira.*

JAINKOZKO ITZAK

*Au da jainkoaren guraria
gizon aldez agertua...
aitaren biotz maitetsu eran
nai clan giz askatasuna.*

*Bidegabeko kateiak eten,
menperatuak askatu,
karrazi dagi, gogor, esanez
hustarri guztiak kendu.*

*Au da arrimen nagusiena...!
jan gosez dagoanari
zure ogitik emon eiozu
zure anai maiteari.*

ZERUTAR ITZAK

*Aterpe etxerik ez daukana
zure jauretxean artu
ta hillotsik dagoana jantzi
erestun ta soinekotsu.*

*Anai heartsua dala-ta...
ez baztertu bertan bera,
poztu aren biotz minherea
zure ondasun erara.*

*Orduan egunsentia legez
asmauko dozu argia,
pozak alaituko dau biotza
gogo askatasunera.*

EZ, OTOI MALTZURRIK, EZ

*Gizadia, begira aurrera,
zer daukazun inguruan,
Baruk Ikaratuta egoan
gizarte mIndu aurrean.*

*Entzun Israel, esaten eutson,
zure bearra ez al da
zuzenbidea zein dan ikasi
eta pohreei laguntzea...?*

*Eta zapaltzailleak ondoren
otoira joaten ziran,
baiña Jaungoikoak ez onartzen
otoi maltzurrik aurrean.*

ERRIA ARGITUTEA

*Antxiña, Mikeas Igarleak
garbi, ots egIten eban
zuzentasuna SOrtu gurarik
giza biotz harrenetan.*

*Gizonen norherekeriak
ez eben gura eginik,
aundikeria zan bere naia
heartsuak zapaldurik.*

*Egiz, Jaungoko guraria zan
erria argitutea,
baiña gizona, beti, herekoi
onera itzar eziña.*

EZIN ZIRAN ARGITU

*Jainkoak ez dauz, begiz,
onartzen
arpegi biko gizonak,
zuzentasuna ta zapaltzea
ez dira alkar lagunak.*

*Jaunak erria zurtu nai eban
ondamena ikusirik,
baiña gizona, beti, kaskarra
beretik urten ezinik.*

*Erri aukeratua zala-ta,
beren asmotan chillan,
ezin ziran argitu zuzentza
ta anaitasun maillan.*

EGIA, A UNDIENA

*Sinismena ta zuzentasuna,
egia ta maitasuna
Jaungoikoak alkartu nai
ditu
gizonagaz bat batera.*

*Gizonen pentsamentuz
bakarrik,
bizia gaisorik dago,
zuzengabekeriak diardu
zarataka ta ordago...!!*

*Egi aundiena bear dogu
bizitza onen gidari,
anaitasuna sort-erazteko
gure bizitz ardatzari.*

POBRIEI BARRI ONA

*Jesus Salbatzaillearen itzak
benetan, dira pozgarri,
beartsuek, egiz, maite ditu
ikusirik ain mingarri.*

*Pobriei Barri Ona emoten
bialdu nau nire Aitak,
beartsuen aldez errukia
dauka Aitaren biotzak.*

*Semien gosea asmetan dau
lur askoren egaletan,
ta min damotso seme samiñak
Aitari biotz barnean.*

ASKATU

*Jaungoikoak ezin dau ikusi
lurrez ezbardintasunik,
ta makalenak, geien, maite
dauz
egitan, errukiturik.*

*Giltzapekoei askatasuna,
dakartse Jesus maiteak,
zigortuta ez dauz nai ikusi
beraren seme kutunak.*

*Gizonak gizondu egin nai
dau
buru argiz ta biotzez,
eta burdin kateiak urratu
egiaren oroimenez.*

EZ DAU NAI KATEIRIK

*Jesusek ez dau nai espetxerik
kateiaz inguraturik,
Jesusek ez dau nai lotsatuta
ikusi bere semerik.*

*Argia gura dau semientzat.
Bakea dakarren itzaz
sortu nai dau bere erreriñua
pozaren zori onagaz.*

*Zapalduentzat askatasuna
dakar Jesusek lurrera,
munduan zuzentasuna nai dau
anai arteko erara.*

MUNDUA BARRIZTATU

*Mundua barriztatu nai
eban,
gal-zorian egoan lurra,
buruz, biotzez ta izakeraz
sortu gizadi barria.*

*Pentsabide gogaiztoak
kendu...*

*Nauskeri griñak iñausi...
Diruzalekeria baztertu
ta egia sortarazi.*

*Ontan eukan bizitz oiñarria
egizko bide bakarra,
bakez ogia gozartuteko
egokiera ederra.*

ITZEZ TA EGITEZ

*Jesusek itzez ta egitez
Israel arritu eban,
ez ekien nundik nora joan
Jesus zapaltzerakoan.*

*Au ez al da arotzaren semea..
Zelan egiten ditu ba
egikera ain arrigarriak
gizona bakarrik ha da...!!*

*Nundik dator indar aundi ori,
gizon almen goitikoa...
legenar gaiso samin ilkorra,
ots baten, osatzekoa...!!*

NA USKERI ZALEAK

*Israelgo jende nauskeria
dirudun ta jakitunak
bildurrez erasota eukazan
Jesusen jokabideak.*

*Eurak, benetan, nai izan
arren,
ez euken eskubiderik
gaisoak, ots baten, osatzeko
osasunez orbizturik.*

*Euren aundikeri zaletasuna
gal-zorian agertzen zan,
Jesusen egiñak ikusita
jende beartsu artean.*

PARISEARRAK

*Aundikerizko jokabidean
itsututa ebiltzezan,
beti, danez goitik egon nairik
arrokerizko bidetan.*

*Jesusen bidea besterik zan,
berak ekarren Barrián;
"Zorionekoak beartsuak"
zentzundun bizitz barrían.*

*Gizon aren nauskerirako
meatxu mingarria zan,
giz beartsua gorestutea
euren bizarren aurrean.*

BEARTSUAK

*"Zorionekoak beartsuak
negar egiten dabenak" ,
benetan, arrigarriak dira
Jesusen itz Jainkotarrak.*

*Jesusek ez dau nai
nauskeririk.*

*Nauskerientzat ez dago
betirako zorientasunik...
Len, esan eben ordago!!*

*Anai arteko kidetasuna
nai dau Jesusek munduan,
izar arteko dirdira legez
zeru goiko urdiñean.*

URRIKERIA

*Lurrean. beti, izango dira
zapalketak ta negarrak,
arokeriak zapaldu nai dauz
gizon apalen bizitzak.*

*Ikusi-ezin ta ondamura
munduaren gaitzak dira,
sasi arte baltz orretan dabil
txarkeria zoraturata.*

*Egin-alan ondasun aundiak
batzen dabil norberia,
eta ortik dator gizadian
askoren urrikeria.*

GORA BEARTS UAK

*Gizon beartsuak zapaltzea
gogorra zan Jesusentzat,
gizaki apal eta zintzoak
nai ebazan berarentzat.*

*Zorioneko minberatiak
poztuak izango dira,
emengo negar ta naigabea
zorion biurtuko da.*

*Geroko bizitz amai-bagean
oraingo gizon minduak
atsedenez zoriondu nai
dauz
lurreko seme maiteenak.*

BEARTSUEN ALDE

*Jesus Maisua, emen, lurrean,
guztiekin ibili zan,
baIna beren erruki guztia
beartsuekin izan zan.*

*Zuzentasuna eskatzen eban
lanaren gora-beretan,
ta nauskeriak ez eban gura
ogia zatitu bitan.*

*Giz aundikeria ikusirik,
pobriaz errukitu zan,
ta betiko zoriontasuna
zeruan eskeini eutsan.*

ZORIONEKOAK BEARTSUAK

*Izkuntz onen muiña ulertzea
ez da azalpen erreza,
emen bizi cifran gizoneri
gerorako eskein poza...*

*Ondasun gose zalekeria
kendu gura dau lurretik,
danentzat ogia izan dedin
anaitasunez bizirik.*

*Agindua ez dautse onartzen
nauskeriaren nauskeriz,
beartsuak, orduan, nai ditu
goratu zorion biziz.*

EGIA MAITE DABENAK

*Mundu oneri begiratuta,
ots ein eban Egilleak,
zorioneko zuzenak
lurraren eder-zaleak.*

*Gizadi ontako lapurretak
min egiotzen barnean,
semien miña Aitaren min zan
giza bizitz saminduan.*

*Zuzentasunaren jagoleak,
egia maite dabenak,
ona egiten artzen direnak
izango dira poztuak.*

ZUZENTASUN EGARRIA

*Gora zuzentasun egarría...!!
Au da Aitaren gogoá.
Iñork, iñor; ez zapaldutea
gizartearen zona.*

*Bere gogoan dauz
zapalduak
zuzentasun maitaleak,
sari aundiaz poztu nai ditu
munduko jazarpenduak.*

*Zuzentasunaren izenean
lanean asko dabiltzaz,
lurreko seme zintzoak nai
dau
saritu goiko sariaz.*

ERR UKIORRAK

*Zorioneko errukiorrak,
gaitza ikusten dabenak,
zapalduagaz mintzen direnak
ta lagundu nai dautsenak.*

*Errukizko konponketa ez da
Egilleak nai dabena,
egiz, errukitu ta lagundu
or dago gizontasuna.*

*Giza bizitzako eskariak
erri ta gizon legez
zaindu ta aurrera ateratea
sarituko dau goi pozez.*

OTZANAK

*Zorakerizko mundua dabil
nauskeri baltz galduetan,
arrokeri gaiztoz itsututa
gizonen ondamenetan.*

*Zenbat samin, negar ta erio
inguru trakets onetan,
ta A ita otzanei deika dago
gizonen ordu latzetan.*

*Egizale ta biotz zabalak
dira lurreko otzanak,
egi ta zuzentasun bidez
zainduko dabez minduak.*

SEME ASTU EZIÑAK

*Lurraren Egille nagusiak
pozik, artu eban lurra,
izar, mendi ta itxasoari
zabaldu eutsen agurra.*

*Danetan jaun eta jabe legez,
jarri zituan gizonak,
giza bizitzaren eskubidez
omiduta seme danak.*

*Ez eban semerik gitxi-etsi,
danak ziran A itarenak,
maitasun berberaren semeak
iñola astu eziñak.*

DIR UKERIRIK EZ DAU NAI

*Gizon zikoitz ta diru zaleak
oker, dabiltaaz lurreean,
ez dira Egillearen lagun
zalekeri gaiztoetan.*

*Gizon zikoitz ta diru zaleak
ez dauz maite Egilleak,
ez dau nai Epulonen
antzekorik
samintzen bere semeak.*

*Jaungoikoa ta dirukeria
alkarren aurrez aur dagoz,
ogasunak danentzako dira
bakea sortuerazoz.*

GOZEZ EGON NINTZAN

*Gizarte auziaren barman
ibili zan beti Jesus,
gizonak goratu nai ebazan
maitasun bidez lagunduz.*

*Gizartean gosez egon nintzan
eta jaten emon zeunsten,
lurrean egarri izan nintzan
ta edaten emon zeunsten.*

*Noz egin dot nik ori zuregaz?
Pobre ta egarridunel...
gosedunari lagundukeran...
HitZ eglñ zeunstan ori.*

BARNE MIÑA

*Jesusek barne miña artzen
eban
gosez ilten ikusirik,
gizona seme lez maite eban
bere gaitza oarturik.*

*Zikoitzkeririk ez eban gura.
Lurra danentzat sorturik
ezin onartu iñondik
nauskeri lapurretarik.*

*Epuion ta Lazaron irudiz
gogorki, agertu eban
zuzentasunaren goi Indarra
zapa%ketaren aurrean.*

NEGARREZ

*Mundua, larri, dago negarrez,
baiña gizonak itsurik,
aurrera, darrai nauskerietan
beartsua zapaldurik.*

*Anaitasunezko jaurerria,
oroz, goitik, maite dabenak,
gaitzetsiz, jazarpanduak dira
beartsuen maitaleak.*

*Diruzalekeriak ez dau nai
zuzentasun barri entzun,
anai zapaltze biurrietan
aurkitzen da zoriondun.*

JAZARPEND UAK

*Jesusek ez dau nai
zapaldurik...*

*ez jazarpendurik...
gizaera barregarrietan
ustelkeriz gozarturik.*

*Lurrean giz nagusikeria
zoritarrez, izango da;
buru-barruko arrokeriak
orditu dau-ta biotza.*

*Jesus, beti, beartsuen alde
beraren maiteenak dira...
Zoriontsu izango dozu,
gero, betiko bizia.*

ZAKEO

*Jazoera arrigarri bat daukat
begi malen aurrean,
ortziko argi txinta antzera
dizdiratua lurrean.*

*Gizon aberats uka gaitza zan,
zalekeriz dirutua...
eta Jesus ezagutukeran
dardaraz eukan barrua.*

*Ondasunen erdia damotset
gosez ilten dagozanei,
ta ostua baiño lau geiago
dirua kendu neutsenei.*

GORROTO DIRA

*Munduak zer dabil
barriketan...?*

*Eskeintz onak egiten dauz
aginpidea lortu artean...
dana, tCairoki, opatuz.*

*Alki nausian jarten danian
birloratu egiten da;
ezin sinistu bera nor danik,
nauskeriak eraginda.*

*Zergaitik ainbeste lapurreta
lan toki ta aginpidetan,
esanak eta jokabideak
gorroto dira eglan.*

*NUN DA
A URRERAPIDEA... ?*

*Gizona, beti, gizon edonun.
Egarri bardiñak daroaz
bere biotzean ezarrita
aundikerizko asmoaz.*

*Urreak, dardai; egiten dautso,
Zidarrak, kili kili,
eta eskua luzatu bear
norberana ez danari.*

*Nun dira eskeintz zoragarriak...
Nun da aurrerapidea...
giza gogoak irabazteko
zarat aundiz eskeinia... ?*

*JESUSEN
AGINDUA*

*Zoriontasuna
 munduarentzat
nai eban Kristok lurtean,
ain zapaldua ikusten eban
gizona gizon-artean.*

*Bere ikasletarikoak be
nauskeriz itsutu ziran,
tokirik onenak eskatuaz
bere esker-eskumetan.*

*Jesusek, argi, arantzun
eutsen...
zuen lana lur onetan
giza semeak otseintzea da
curen hear izanetan.*

LUR ONDASUNAK

*Lur ondasunak barik ezin bizi.
Lurrean itzi ebazan
gizakien serbitzari legez
aberastasunak duhan.*

*Baiña gizon gitxiren eskuan
ezin ebaZan ikusi,
gozes, jlén zirenak lurrean
Zart egitzen hiotzari.*

*A ita zuzen ta errukitsuak
dei dagitso gizonari,
esna zaitez, mindu ez zaitez en
oratus gal-zoriari.*

ARGIA ZABALTZEN

*Jesus argia zabaltzen dabil
gosea ibitu nairik,
azur igerretan dagozenei
errukiz begiraturik.*

*Min sentitzen dan, min etsia,
ainbeste ondasuneri
gizonak egin dautsen hurlea
ezin iñola iruntzi.*

*Semerik maiteenak
goserik jlén
ta lurra urrez beteta,
A ita, norantz, doa, guk ein
gendun
bidearen ontasuna...?*

POL TSA ARGALAK

*A in dira gauza bi ez bardiñak...
zerua ta gure lurra,
zerua da, egiz, alkartasuna
eta lurra burrukea.*

*Nagusi urten gura danean,
dana da eskeintza ona,
lan, etxe ta aurrerapidea...
gizonaren zoriona.*

*Gizonak itz gozoak dagiez
aginpidea lortzeko,
ain ez titsua da goialdea...
polts argalak loditzeko...!!*

JESUSEN IRAKATSIA

*Jesusek bestera esan
euskun...*

*Ez arduratu pillatzen...
Lurraren mamina
danentzat da
bakea izan dagien.*

*Goserik ez dau ikusi gura
seme-alabea artean,
zapaltze gorrotorik ez dau
nai
etxe sendi barnean.*

*Irakatsi oneri begira,
irri-parrez, ari dira,
ta lapurreta ta gose-miña
sartu dira gizartera.*

URTU ZAITEZ

*Urko laguna, zeu ba-ziña lez
artu ta maite egizu,
urtu zaitez bere aldez, onez,
ta zerua zeurea dozu.*

*Irakatsi aundi ederrena
zeru goitik etorri zan,
baiña giz norberekeriak
ez eban beretzat nai izan.*

*Gaiztoak ez dau nai bere goitik
Jaungoikozko agindurik,
ta or dabiltz lapurreta zarrak
anai bizitza austurik.*

EZ DA ERREZ

*Mundu ontan asko ta asko
burlez dabiltz egiari,
eta guzurrezko bidetatik
maite dabe lapurkeri.*

*Ez dakit noren izenean dan
lan alde itz egitea,
Egillearen maitasun barik
ez da errez on eitea.*

*Danentzat sortu dan
ondasuna
esku gitxitan ba-dabil,
gose larri ta eriotzak,
aizez, gizona darabil.*

*"Urko laguna zeure burua
lez maite izango dozu",
agindu onen mamim sustraia
gizonak ezin ulertu.*

*Zorakeria da askorentzat
egi onen esan-naia;
norberekeri ta aundikeriak
ezin dau maite anaia.*

*Eta Jesusen irakatsia
bearrezko da munduan,
lapurkeri gaiztoak kendurik
anaien izen onean.*

URKO LAGUNA

*Urko laguna maiteko ba-litz
Jesusen itza entzunez,
ogi arduak poztuko leukez
bazter danak zorionez.*

*Maitasunik ez dagon lurrean
lapurretea da nausi,
ta goseak dakartsoz gaisoak
gorputz argal minduari.*

*Jesusek zuzentasuna nai
dau
gizonen biotz barnean,
Jesusek janaria gura dau
osasuren aurrean.*

*Gizonak, bere baitan, daroa,
norkeriz, aundikeria,
zalekeri ortako bidean
zerk mintzen zaitu gogo...?*

*Ain gizon txikia izan arren
asko nai dozu zuretzat,
zapaltzaille biurtu al jatzu
biotz ori anaiantzat...?*

*Lurra zer da geiago zuretzat
beste anaiantzat baiño...?
aitak ez al dau zorterazi
gizaki guztientzako...?*

ZUZENTASUN ITZA

*Zuzentasuna maite dabenak
zorionekoak dira,
Jaungoikoak lagunduko
dautse
bide urratzen zerura.*

*Zuzentasun itza lora bat da
munduko baratza erdian,
anaitasuna eta bakea
darioz gizon artean.*

*Miseripean bizi direnak
nai dabe maitetasuna,
eroapenez bizitza ein da
lortuz betiko zoruna.*

EBANJELIOKO GAZTEA

*Zuzentasun ta anaitasuna
dira zorion oiñarri,
beste guztiak aizeak daroaz
lapurkerien ongarri.*

*Lurrean zapalduak direnak
ta anaitasun maitaleak
bizitza onen ondorenean
izango dira poztuak.*

*Zuzen ta beartsu izan danak
artu bear dau saria,
gogoz, egia maite dabenak
argituko dau bizia.*

*Barrua ebilkion deieraz
betiko zorion billa;
artega eukan biotz barrua
beti gerora begira.*

*Bakea ta poza nai zituan
bizitzaren inguruan,
ta arin, Jesusengana doa
egunsentiko argitan.*

*Betiko bizitzaren itzak
daukazuz Irakaslea...
zorionekoa izateko
zein da bide egokia...?*

GAZTEAREN JOKEREA

*Betiko zoria gozartzeko,
bete amar aginduak,
or dagoz gizonen bizitzako
eginkizunen legeak.*

*Bai, Maisu Jauna, arreta
aundiz
arduratu naz orretan,
gogo onez bete izan ditut
mezuak goiz arratzetan.*

*Jesus Jaunak, barrero, dirautso:
Gauz bat egin bear dozu...
"Zure ondasun guztiak saldu
ta beartsuei banatu" .*

*Ondasun salketa
entzuketan,
burua makur makurrik,
bere barne asmakizunetan
alde egin eban
Jesusegandik.*

*Gazte a guztiz aberatsa zan.
Ta diruzaleatasuna,
gogotsu, eukan bere
barnean,
ederkeriz estalduta.*

*Ezin eban bere biotza
diru gaisotik banandu,
eta agur agindu guztiak...
eukiak dauz menperatu.*

GAL-GARA UA TA ITZA

*Nork agindu leike era ontan
gizonen ondasunagaz...!
Nor errukitu da Jesus legez
beartsuen biziagaz...?*

*Gazte aberatsaren jokoa
lurrean ikusten eban,
ondasunak, gaitzez, pillatuta
pobreak il-bearrean.*

*Min eukan. Samin ezin etsia,
ainbeste negar entzunik;
eta ardurabagekeriak
gizadia dauka illik.*

*Irudi polit bateren bidez
arazorik aundiena,
larri, agertu eban Jesusek
gizadiaren aurrera.*

*Ereillea urten zan solora,
ta sasira jausi ziran
ta gari ale penagarriak
bereala, ito ziran.*

*Alabear zorigaiztokoa...
ez egon lur egokirik...
ta galdu-bearra eldu jakon
jaio orduko gaisorik.*

*Gari garaua jainko itza zan.
Sasitzea zan gizadia.
Gizadiak ez eban nai izan
Jaungoiko itza entzutia.*

*Zuzentasun, erruki, maitasun,
Jaungokozko itzak dira,
gizadi alkartzea lortzeko
biderik egokiena.*

*Baiña nauskeriak ez ei dau nai
ogi bardin zabaltzea,
ta Jesusek orixe eskatzen dau
min ta negarra kentzea.*

ZUZENTASUN EGARRI

*Zuzentasun egarrria dago
munduaren egaletan,
egizko guraria ete da
oiuka giza itzetan...?*

*Jesus etorri zan garai
ontan,
nun, etzanik ez eukana..
giza bizitza osotutera
maitasunaren erara.*

*Negarrak negar eragiotson
erri-miña oarturik,
egiagaz itz egiten eban
pobriei lagundu nairik.*

"ILTZAILLEA DA "

*Almen guztia beregan eukan
baita ondasunen giltza,
baiña irakastera etorri zan
giza bizitza erara.*

*Zeuretzat nai dozun on guztia
besteentzat nai izan egizu,
or, egon egi zuzenbidea
berak nai ebana aurkeztu.*

*Gizonaren norberekeriak
beretzako nai ebana,
ezin eban biotzez onartu
irakatsirik onena.*

*Anaiari gorrotoa dautsona,
gizonen "iltzaillea da" .
Au da Apostoluek artu eben
goi irakatsi ederra.*

Jon. 3, 13

*Gizon eta aren ondasunak
zapaltzen dituana,
lapurra ta iltzaillea da...
gaiztakeri aundiena.*

*Egille ona arduratu zan
irakatsia zabaltzen,
zuzentasuna ots egin eban
gizon ta erri alkartzen.*

*Jesusek ez ditu onartuten
zapaltze ta lapurreta,
gizonik ez dau ikusi gura
nauskeri gaiztoz ilduta.*

*Jesusek ez dau nai gaiztorik
bere semien artean;
abegi ona ta laguntza
nai dauz bere jarrailetan.*

*Munduko ezpat gogorkeriak
deika dagoz zeruetan,
zorioneko jazarpenduak
poztuko beti-iraunetan.*

NA USKERIARI ADI

*Munduko nauskeriari adi
agertu zan goi argia...
ez erantzun gogorkeriagaz...
zabaldu, beti, argia...*

*Matrailla baten joten
ba-zaitu
emon beste alderdia,
ez erantzun ikubillez joten...
maite egizu bakia.*

*Gorrotoak ez dakar gauz
onik,
min eta odol besterik...
maitasunak itzi bear dauskuz
bizitz ateak zabalik.*

*Bake sorlekutik begiraturik
larria da burrukea,
ta gizonak ezin dabe entzun
bakearen oiartzuna.*

*Jaungoikoak, zuzen, itz egin
dau
mundua argitu nairik,
baiña giz adimen okertuak
ez eben gura egirik.*

*Gizonaren izate guztia
lotuta eukan etsaiak,
ta giza- seme errukarriak
ezin urratu kateiak.*

GORATUA IZANGO DA

*Alan bere, batzuk izan ziran
bake zaleak munduan,
Gandi indiar askatzailleak
bakez jo eban lurrean.*

*Gaur; Gandiren antzera
dabiltzaz
euzko seme leiñargiak,
egi, zuzentasun ta bakez
jaubetu nairik erriak.*

*Gizon zuzenen egingoa da
maitasun ta askatasuna,
beti, goratua izango da
egizko askatasuna.*

*Txarra txarragaz menperatzea
gauza gatxa izango da,
gorrotoak ondoren txarra dau
samin barrlen sorl'nena.*

*Gogorkeriak gogorkeria
dakar beren ondoren,
ikusi nai ez ta zapaltzea
anai bizitza ondatzen.*

*Jesusek egi barri bat dakar
gizarte zuzentasuna;
neuk maite zaituedan lez
maitatu urko laguna.*

MAITATU ETSAIAK

*Ezin dau ikusi zapaldurik,
dana, argiz, dakusanak;
ezin dau onartu gorrotorik
dana, berez, maite daunak.*

*Maitatu egizuez etsaiak
nik maite zaituedan lez,
guztien Aita zeruan dago
zuek argitzen izarrez.*

*"A diskideak maitatzeagaz
zer egiten dozue onik...
gaiztoak be ori citen dabe
curen obariak gaitik".*

*Zerua ta mundua, aurrez aur;
agertzen dira lurrean,
zerua da argi ta zona,
jurna dago illunean.*

*Illunak ez dau onartu gura
argiaren dizdizera,
bere barneko gaiztakeriaz
lotsaz dauke biotz bera.*

*Bildur da burua agertuten
ainbeste lapurkeriagaz,
lotsaz daukaz barne erraiak
anaiaren goseteaz.*

MAITASUN GARRA

*Neuk maite izan zaituedanez
esaten dabil Maisua,
zuek be alkar maite egizue:
au da zorientasuna.*

*Laster; iltzeaz; ikusten eban
bere burua Kurutzan,
antxe, maitasunez urratu
zan
gizadi alde z Golgotan.*

*Itz ta egitez eskatu eban
zuzentasuna lurrean,
ta odolez izenpetu eban
maitasun garra ilkeTan.*

*Zorigaitz guztia, gori gori,
bere gain ekusanean;
judarrak gorrotoz beterik
egokiozan aurrean.*

*Txistua botaka arpegira,
burlez, ibil jakozan,
Jainkoaren Seme ba-zara
ez zaitez egon Kurutzan...*

*Ordu minkor iraintsu aretan
pobreak eukazan aurrez...
ta diño: alkar maite egizue,
lagundu lanaren bidez.*

GORROTOKERIA

*Munduko gorrotokeria
mingarri jakon Jesusi
anaien arteko zapaltzeak
ezin zituan ikusi.*

*Bakea sortzera etorri zan,
egi ta maitasun bidez,
gosea ibituta lurrean
beartsuak goralduez.*

*Anaitasuna sortu nai eban
Aita baten semeetan,
zeure burua lez maite egizu
urko laguna benetan.*

*Egillea maite egarri zan
zerutar ikuspegian,
giza eskuetan itzi eban
anaitasuna lurrean.*

*Maite negurri bat jarri eutsen,
Neuk maite zaituedan lez,
elkarri on egiozue,
gizonki, biotz zabalez.*

*Kendu nauskeri kirtenkeriak...
Eztia darion lurra
bear dau gizon alkartasunak
bizitza lagun indarra.*

IZARREZ GOITIK

*Izarrez goitik begiraturik
lurra gaisorik egoan,
miña, negarra ta zoritxarra
ordu latzetan ebiltzan.*

*Azal ederretako itz utsak
dabiltzaz salgei munduan;
buru ta biotza ustelduta
gaiztakerizko jokuan.*

*Itz eta egite azal utsak
betetu dabe lur dana...
gizartearen errukarria!!
larri dago gizadia.*

JOSU *NAZARETARRA*

*Maitez sortu eban gizadia
laster; ez bideratu zan,
zoriontasunerako zanak
bideak galdu ebazan.*

*Ezin itzi ondatzen semeak...
Ain zan biotz onekoa...!
Geure gorputz bera artu eban
gaizkatzeko aiñakoa.*

*Azken bagea zan maitasuna...
Ta dana ixuri eban
odolez gorriturik lur gaiña
dindilizka Kurutzean.*

*"Nundik jatorko jakituria
eskolara joan barik...
ots egiten eban erri zeiak
goi argiak argiturik...!!*

*"Iñork ez dau berbarik
egiten
gizon zur onen antzera...
beartsuak ditu, geien, lagun
txirotasun ara-bera.*

*Iñoz, ez zan lotsakor ixildu
gosez minduen aurrean,
bere barneko leentasanak
beartsuentzat eukazan.*

*Egia ezin eben ulertu
norkerietan haiturik,
aundikeriz aundiki ehiltzan
barnez asetu ezinik.*

*Aundikeri ta laguntasuna
ez ziran, iñoz, kideko,
maiteago eben nauskeria
txiro laguntzea baiño.*

*Iñor ez eben nai irakasle
euren nausikerietan,
gozarena gura eben euren
bizitza inguruetan.*

MAITASUN BIDEA

*Jainkoa... egia... heartsua...
iruko onetan datza
bizi danaren jakituria
ta bizitzaren ardatza.*

*Sort-iturriaren Egillea
euren aurrez ikusirik,
ez eben, iñundik, onartu nai
Aren jakintz ta almenik...*

*Maitasuna ta apaltasuna
ziran Jesusen bideak,
ta arrokeriak ezin onartu
zuzentasunezko itzak.*

*Gizonen lagun nagusia,
beti, ibili zan zintzo,
giza eskubideak jagoten,
dana eskeiniz oparo.*

*Gizadi guztia berea zan
biziaren sormenetik,
biotzez, jakituriz ta gogoz
seme-alabak lorturik.*

*Ez judarrak ta ez munduak
ezin onartu egia,
nauskeriak ez dau onartu nai
Egillearen argia.*

MUNDURA DATOR

*Basartera etorri zan Jesus.
Aurrez ekian guztia...
giza gaiztakeriaren barri
zer zan giz zapalkeria.*

*Ezin ikusi eban, iñola,
gizadia zapalduta,
arrokeriz eta gaiztakeriz
gosez azpiratuta.*

*Lurrera, bertara, joango
naz
gizonezko lez jantzirik,
egia zer dan jakin dagien
laiño baltzak baztertirik.*

ITS UT URIK

*Lurtarrak itsututa egoten
giza joko gaiztakeriz,
zuzentasunezko egirik ez
eben nai entzun txarkeriz.*

*Zuzentasun ta maitasuna
astoragarri jakozan,
min egiotzen Jesuen itzak
jokabide gaizto artan.*

*Bizitz egi berbera zan Jesus,
ezaintzat bota nai eben,
euren txarkeria guztiak
gaizki, estaldu eitezen.*

JESUS KUR UTZERA

*Kurutzera ori, ots egien
biotz gorrotoz beterik;
nauskeria ezin bizi eiken
zuzentzak argi egüzik.*

*Gero eta gorroto geiago
izan eutsen argiari,
curen norkerizko asmo
txarrak
zalatz en ebazanari.*

*Etziran gelditu asmo gaiztoz
Jesus zalatz en errian;
jende gorrotoa sortu arte
lengo maitasun aurrian.*

JESUS IRAKASLE

*Jesus otzan eta apala
egi berbera izan zan;
barruan eukan maitasun dana
odolez ixuri eban.*

*Iñor ez eban, bertan bera, itzi.
Danen aldez opaldu zan:
"Aita, parkatu egiozue
euren ezjakin onetan".*

*Bizitza ederraren jaubea
dindiliz dago Kurutzan,
gizadiaren maitasun-arren
argia sortzen lurrean.*

*Manuel Lekuona, Abade
izkuntzalaria*



AGURRA

*Jose Migel Barandiaran,
Abade giza-iztilaria*



SORTERRI

*Eusko odolez bustirik
agurtzen zaitut euskera,
olerkien egoetan
bizi da zure ederra.*

*Agur euskaldun mendiak,
agur euzkoen Gernika,
seme-alaben odolak
mindu eutzuen biotza.*

*Agur Maxa Bizkaikoa
ardien larrategia,
zure babesean datzaz
arizti ta pagadia.*

*Agur itxaso oztiña,
egazka zabiltz aidean,
jira-bina gardenetan
izarraren babesean.*

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	5
I.– Goitar indar-argia, zatoz	9
II.– Izadia ta gizona, lana ta Egillea	13
III.– Zidar-ederra izarretan, urdin éederra itxasoetan	39
IV.– Neskatzá gorriz jantzita, mutil gazte maitalea, kantari entzuleak ugari	55
V.– Gorostolari kantua	65
VI.– Maxa mendiari kantua	91
– Maxa Ederra!	
– Gaua Maxa'n	
– Uda-goiena	
– Ikuspegiak	
– Pistiak eta artzaiñak	
– Egun-sentia	
– Zugatzak	
– Eresa	
– Edurra	
– Ekaitza	
– Egazkiña	
VII.– Jakintzaz beterik zagoz; euskera! (Euskaldunak)	195
VIII.– Argia ta lurra, alkar maitale kutunak; euria zara-zara, egarria asetuta; Udaé barriko giroan; margo orlegia zelaietan	217

IX.–	Mutiltxoari deia deituaren itz aundia	237
X.–	Pazkoa! Jai ederra zara; berbizten doa erria	261
XI.–	Guda: Zergaitik eta zelakoa	273
	– Urbasa	
	– Urkiola, Oiz, Anboto	
	– Zer nai eben?	
	– Gurutz-Guda?	
	– Gernika, Lauaxeta...	
XII.–	Gai barriak (Fedearen ikuspegia)	307
AGURRA	355

EGILLEAREN **BESTE LAN** **BATZUK**

"Uskeriak"	1960
"Urreébitsa"	1961
"Gizonetan"	1969
"Gizadian"	1972
"Deika"	1974
"Erri arnasa"	1977
"Eder miñetan"	1986
"Aldatz gora"	1987
"Aldatz malkarretan ta Gernika erretan"	1987
"Urrats"	1991
"ITZA"	1993

